



ARTZINIEGAKO UDALA

AKTA

Saioa: Ohiko Bilkura
Eguna: 2019ko urriak 3
Ordua: 10:00 – 12:45
Lekua: Udaletxeko Bilkura Gela

Bertaratuak:

Joseba Mirena Vivanco Retes
Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin
Arkaitz San Jose Martinez
Unai Gotxi Kastrexana
Alazne Lafragua Ureta
Jose Miguel Vadillo Ribacoba
Miren Izaskun Perez Barragan
Joseba Elejalde Ribacoba

Ez dira agertu: Encina Castresana Astarloa, ez bertaratzearen arrazoia azaldu duena.

M^a Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 10:00etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

Alkatea: kaixo, egun on. Eskerrik asko Legegintzaldi honetako lehen ohiko udalbatzara etortzeagatik. Gai ordenean, besteak beste, hiru hitzarmenen sinadura jorratuko dugu: Aiaraldea Euskalgintza Kontseiluarekin, Aiaraldea Hedabidearekin eta ASASAM Aiarako buru gaixotasun elkartearekin.

Beno, urriko ohiko saioari hasiera emango diogu. Ezer baino lehen, azken orduan sartu dugun puntu bat premiaz bozkatu behar dugu, hots, Kantauriko Urkidetza ur partzuergoko ordezkarien, kasu honetan, falta zen ordezkariaren, izendapenari dagokiona. Beraz, ezer baino lehen, puntu horo premiaz bozkatzea.

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu taldekoak (5); Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ-PNV (2) alderdikoak; Joseba Elejalde Ribacoba P.P. taldekoa (1)

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Onartuta geratu da.

1- Kontu Orokorra onartzea.

Alkateak akordio-proiektua irakurri du:

“AKORDIO-PROIEKTUA



“Erakunde honen 2018 ekitaldirako Kontu Orokorra aztertu ondoren, Udalbatza honetako Kontuen Batzorde Bereziak bere txostena egin ondoren eta Kontu Orokorra publikoaren eskura jarri ondoren, 2019ko uztailaren 26ko 86. Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki bidez, erreklamaziorik, arazorik edo oharrik jaso gabe, honakoa proposatzen da:

Lehena.- Udalaren 2018 ekitaldiko Kontu Orokorra onartzea.

Bigarrena.- Ondasunen Inbentarioa zuzentzea, hala xedatzen baitu Toki Erakundeen Ondasunen Araudiak, 31. artikuluan”.

Alkatea: ikusten duzueenez izapide kontua da ia.

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu taldekoak (5); Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ-PNV (2) alderdikoak; Joseba Elejalde Ribacoba P.P. taldekoa (1)

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Onartuta geratu da.

2.- 3/2019 Kredituaren Gaikuntza onartzea.

Alkateak informazio-batzordearen irizpena irakurri du:

“2019KO IRAILAREN 26AN EGINDAKO KONTU, LANGILE ETA HERRIEN INFORMAZIO BATZORDE BEREZIAREN IRIZPENA.

Ikusirik indarrean dagoen 2019ko Udal Aurrekontuaren Gastuen Egoera-orrian ordainketa-kredituak gaitzearen inguruko 3/2019 espedientea, 68.849,94 eurokoa.

Ulertuta, Idazkari eta Kontu-hartzaileak jakinarazten duenez, espedientea bat datorrela otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko 31. artikuluan eskatutako betekizunekin eta Egikaritze-aurrekontuaren Udal Arauan ezarritakoarekin, 2019ko irailaren 26an egokiro egindako Ogasun eta Antolamendu Informazio Batzarrean proposatzen zaio Udalbatzari har dezala hurrengo

AKORDIOA

Aipatutako akordioa eta bertatik eratortzen diren diru-sarrera eta gastuekin lotutako egoeren aldaketak, jarraian zerrendatzen direnak, onartzea:

DIRU-SARREREN EGOERA

Kreditua sortzen duten diru-sarrerak dira:

AURREKONTU APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEKOA
114.00	GAINBALIOA. LURRAREN BALIOARE GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA	33.000,00



130.01	EKONOMIA JARDUEREN GAINEKO ZERGA LUCART TISSUE 2018	13.000,00
399.06	JOLAS TXOKOAK PARTAIDETZA-KUOTAK	2368.00
399.14	IRUÑEARA EGINDAKO BIDAIKO PARTE-HARTZAILEEN DIRU-SARRERAK SAN FERMIN	295.00
420.14	AFA E.A.L.Z. 2018KO LIKIDAZIOA	17.782,34
720.06	AFA GOFI ALTZARIAK EALZ 12 BESAULKI	889.60
420.17	AFA MENDIAK GORDELIZEKO MAZELAN SASTRAKAK KENTZEA	1515.00
	GUZTIRA	68.849,94

Eta, aurrekontuaren ikuspuntutik, indarrean dagoen 2019 ekitaldiko aurrekontuaren diru-sarreraren egoera-orriaren aldaketa dakarte, honako moduan:

AURREKONTU- U- APLIKAZIOA	IZENA	HASIERAK O KREDITUA	IGOERA	KREDITUA GUZTIRA
114.00	GAINBALIOA. LURRAREN BALIOARE GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA	25.000,00	33.000,00	58.000,00
130.01	EKONOMIA JARDUEREN GAINEKO ZERGA LUCART TISSUE 2018	0	13.000,00	13.000,00
399.06	JOLAS TXOKOAK PARTAIDETZA-KUOTAK	5.000,00	2.368,00	7.368,00
399.14	IRUÑEARA EGINDAKO BIDAIKO PARTE-HARTZAILEEN DIRU-SARRERAK SAN FERMIN	0	295,00	295,00
420.14	AFA E.A.L.Z. 2018KO LIKIDAZIOA	0	17.782,34	17.782,34
720.06	AFA GOFI ALTZARIAK EALZ 12 BESAULKI	0	889,60	889,60
420.17	AFA MENDIAK GORDELIZEKO MAZELAN SASTRAKAK KENTZEA	0	1.515,00	1.515,00
		30.000,00	68.849,94	98.849,94

DIRU-SARRERA KONTZEPTUAN IGOERAREN ZENBATEKO OSOA: _____

68.849,94

GASTUEN EGOERA

Aurrekontu- aplikazioa	IZENA	ZENBATEKOA
1622.226.001	TRASTE HANDIAK BILTZEARI BURUZKO KARTELAK	481,73
311.226.001	IZURRITEEN KONTROLA	496,13
312.223.001	BIDAIA GALDAKAORA MAMOGRAFIKAK	170,00
338.226.014	BIDAIA IRUÑEARA SAN FERMIN	774,00
340.226.008	JOLAS TXOKOAK	1.668,77
459.227.001	HIRIGUNEKO SARBIDEAK KONTROLATZEKO SISTEMAREN MANTENUA	5.000,00
920.226.004	FUNTSETAKO HORNIDURA	3.500,00
920.625.002	150 PAGO AULKI (NORTE) BERNIZATU GABE	3.357,75



335.481.011	DIRU-LAGUNTZA AIARALDEARI	168,40
1622.421.002	HONDAKINEN KUDEAKETA AIARAKO KUADRILLA EDUKIONTZIEN EROSKETA ENVISER	4.179,98
230.625.001	EALZ ALTZARIAK	1.200,00
414.680.002	CAMPIJON LUBERRITZEEN BIRPOPULATZEA	2.182,18
9201.131.000	LAN ETA ZERBITZUETAKO ALDI BATERAKO LANGILEEN ORDAINSARIAK	24.538,00
9201.160.001	GIZARTE SEGURANTZA KOMUNITATEAREN ONGIZATE	8.150,00
9201.121.003	ZERBITZUETAKO KOMISIOAREN ONDORIOZKO ALDEAK	9.650,00
414.226.001	GORDELIZEKO MAZELAN SASTRAKAK KENTZEA	3.333,00
	GUZTIRA	68.849,94

GAITUTAKO KREDITUEN ZENBATEKO OSOA: 68.849,94”

Alkatea: kredituen gaikuntza bat da, partaide jakin batzuetan diru-sarrera handiagoak izan direla aprobetxatuz, diru horrekin sortuz joan diren gastu berriei egin zaie aurre, esate baterako, azken jaietan erabili ziren 150 aulki, edo Jolas Txokoetarako partidaren igoera, edo eguneko zentroan altzariak erosteko, hots, zenbait gastutarako aprobetxatuz diru-sarrera handiagoak izan ditugula beste partida batzuetan gainbalio modura etab., eta modu horretan gastu horiek konpentsatu egiten dira.

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu taldekoak (5); Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ-PNV (2) alderdikoak; Joseba Elejalde Ribacoba P.P. taldekoa (1)

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Onartuta geratu da.

Santa Kolomako mugarriztutako bidea ofizioz berreskuratzeko administrazio-espeditentea.

Alkateak informazio-batzordearen irizpena irakurri du.

“2019KO IRAILAREN 26AN EGIN ZEN NATURA ETA HIRI INGURUNeko, ENERGIA, UR, MENDI, INGURUMEN, LAN ETA HONDAKINEN KUDEAKETARAKO INFORMAZIO BATZORDEAREN IRIZPENA.

Gaia: Santa Kolomako bide publikoa ofizioz berreskuratzea, Artziniegako 4. industrialdeko 738 A, 38 B, 737 A, 26 A, 26 B eta 49 A katastroko partzeletatik igarotzen den lekuan.

Ikusirik 2015eko urriaren 8ko saioan udalbatzak hartutako akordioa, zeinaren bidez erabakitzen baita ofizioz berreskuratzea 66 m²-ko azalera duen bide publikoa, Santa Kolomako udalerrian kokatua, Artziniegako 4. poligonoaren 788. katastro-partzelari dagokiona, aldamenetako titularrek inolako okupaziorik gabeko bide publiko libre gisa utzi beharko dutena, akordio hau Arabako Foru Aldundiko Katastroko Zerbitzuari jakinaraziz, adierazpen honi dagokion zuzenketa



egin dezan. Halaber, adosten da Arabako Foru Aldundiari laguntza teknikoa eskatzea mugarriak jartzeko, Santa Kolomako bide publikoaren mugak ezartze aldera, Artziniegako 4. poligonoko 738 A; 38 B; 737 A 26 B eta 49 A partzelak gurutzatzean, prozedura honetan aurkeztutako eskrituren eta katastro-datuen arabera; bai eta 26 A partzelaren azalera asfaltatua ere, eraikinen arteko espazio librearen zabalerarekin bat datorrena, 788 partzelaren jarraipen gisan, udal teknikariak bere 2015eko abuztuaren 3ko txostenean aipatutako moduan.

Kontuan izanik 2017ko urtarrilaren 12ko udalbatzaren saioan Santa Kolomako bide publikoa ofizioz berreskuratzeko mugaketa onartu zela, Artziniegako 4. industrialdeko 738 A, 38 B, 737 A, 26 A, 26 B eta 49 A partzeletatik igarotzen den lekuan. Adostu da Santa Koloman Bide Publikoan mugarriak ipintzea aipatu partzelak igarotzen diren guneeetan, behin mugaketa onartzeko akordioak irmoa denean eta 2016ko abenduaren 12ko lur-neurketa jasotzeko aktarekin bat etorritz, mugaketan Amurrioko Jabetza Erregistroan eta Udaleko Ondasunen Inbentarioan inskribatuz.

Kontuan izanik mugaketaren akordioak irmotasuna harturik eta bidean mugarriak ipini eta ofizioz berreskuratu aurretik bertan eragiten duten okupazio oro baztertuz, udal zerbitzu teknikoei egun mugarriztatutako bideak duen egoerari buruzko txostena igor dezatela eskatzen zaiela, jabedun mugakideei entzunaldia onartuz.

Kontuan izanik entzunaldirako epealdian alegazio hauek aurkeztu zirela:

1. 2019ko ekainaren 18an (1833 sarrera-erregistroa), Angel Arechabala Torre jaunak idatzi bat aurkeztu zuen, bertan azalduz Udalak aipagai den bidearen zati modura eskatzen duen azaleraren titulartasunaren kontua Amurrioko Epaitegien aurrera eraman zela, alegazioa egiten duenaren jabetza deklaratu zedin eta arrazoi hori dela medio Udalaren edozein esku-hartze bertan behera uzteko eskatu du ordena zibileko auzitegiek ebazpena eman arte. Gaineratu duenez, bertan behera uzteko eskaria aintzat hartzen ez bada bere jabetzako lurretara sartzearen aurka agertuko da eta Udalaren esku-hartzeak eragin diezaiokeen kalte eta galera erreklamatzeko eskubidea gordetzen du, baldin eta gauzatuko balitz.
2. 2019ko uztailaren 1ean (1927 sarrera-erregistroa) Alejandro Barcena Aguirre jaunak alegazio-idatzi bat aurkeztu zuen, mugarriak ipintzeko egintza bertan behera uztek eskatuz, oinarri hauen arabera:
 - a. Adierazten duenez, jurisdikzio zibileko bideari heldu aurretik erreklamazio bat aurkezteko asmoa du, partzelaren titulartasuna aitortzeko eskatuz. Adierazi duenez, espediente honetako finkak bere alde inskribatzeari dagokion izapideak aurrera doaz, aurreko titular izandako Alejandro Barcena Barcena aitaren oinordeko bakarra izatearen ondorioz.
 - b. Aipatzen duenez Artziniegako 1211 zenbakidun finkaren jabeduna da, 360. Liburukian, 17. Liburuan, 26. Folioan, 2. Inskripzioan inskribatua, mugarriztatze administrazio-espedientearen alegazioak aurkeztu dituelarik bere jabetzako lurra aitor ziezaion, nahiz eta eskaera egiteko berraztertze



errekurtsua ezetsi egin zen, adieraziz gainera Udalak berreskuratu asmo zituen ondasunak jabetza publikokoak zirenik sekula frogatu ez zela.

- c. Ez dago ados bidea mugarriztatu eta publikotzat hartzeko erabili ziren ondorioekin, ulertuta ez dela kontuan izan Jabetza Erregistroan inskribatutako finkaren deskribapena bera. Aipatzen duenez, argazki zaharrak gaineratu dira, non ikusten baita kalezuloa txabola batek okupatuta egon zela eta hori dela jabetza erregistroan "bere labe" modura inskribatutako elementua, eta are gehiago adierazi duenez bera jabe izan da eta jabe titulupean jardun du, beraz edozein kasutan aipatu titulua gorabehera, preskripzio eskuratzaileren betekizun guztiak bete dira. Adibide modura 1990eko idatzi bat atxikitzen da, auzotarrei ematen zizkien mindak gordetzeko lizentziaren eskaerari dagokiona, zeinaren bidez partzelaren lurpearen erabilera laga baitzion Udalari minda horiei irteera emateko. Gaineratzen duenez, bere garaian azaldu zen moduan, 1983. urtean etxeari atxikitako nekazaritza nabea eraiki zen eta 1999. urtean Udalak 26. zenbakidun partzelatik igarotzen zen saneamendu-sarearen trazaduraren aldaketa bat gauzatu zuen, eta arrazoi horren ondorioz asfaltatu zen zati batean aurrez txabolak okupatzen zuen zorua, obra horiek egikaritzeko jabetzarekin hartutako akordioaren zati gisa.*
- d. Adierazten duenez, titulartasunen auzia ezin da ebatzi zuzenean edo presuntzios mugaketa administratiboaren irismenagatik auzigai den finkaren jabari izaera esleitzeko titulu modura. Inskribatutako eskubideak gabetu nahi zaizkiola uste du eta, bere ustez, administrazio-espediterearen ebazpena Jabetza Erregistroan matrikula kentzeko titulua da, baina ez da nahikoa hirugarrenen jabetza eskubideak arteztu edo kentzeko. Gaineratzen duenez, jurisprudentziarekin bat etorritik, alde jarduleak alegatutako preskripzio eskuratzailera balioetsi egin behar da, izan ere, ez mendiaren inskripzioak ez burututako mugaketa administratiboak ez dute zuzenean edo presuntzios auzigai den finkaren jabari izaera zehaztu.*
- e. Ondorioztatzen duenez, mugaketak eragin diezazkiokeen kalteengatik eta hura gauzatzeko berehalako premiarik ez dagoenez, administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 117. artikuluan administrazio-egintza bertan behera uzteari dagokionez aurreikusten dena bideratzea dagokio hark bere jabetzarako eskubidea urratuko lukeela ulertuta, egintza berehala egikaritzeak sorraraz dezakeen kaltea haztatuz eta eskubide ona agertzen dela iritzita.*

Kontuan izanik 2019ko ekainaren 19an Udaleko Arkitekto aholkulariak jakinarazi zuela Santa Koloman bide publikoaren mugaketak eragindako partzelak ikuskatzeko bisita egin ostean Arabako Foru Aldundiko Lurralde eta Hirigintza Antolatzeako Zerbitzuak AHÍ – 108/15-k05 espediterearekin lotuta igorritako txostenaren arabera lur publikoan okupaziorik dagoen adierazteko xedez, okupazio hauek daudela jasotzen dela, kendu egin behar direnak:

- 1. 49 A partzela: lur-erazketa eta bi txabola txiki kentzea eta ixtea egindako mugaketatik kanpo. Material pilaketak eta atoiak kentzea.*



2. 737 A partzela: eraikuntza-material pilaketa kentzea.
3. 38 B partzela: lur-erazketa eta abeltzaintza itxitura kentzea egindako mugaketatik kanpo.
4. 738 A partzela: lur-erazketa eta itxiturak, harlangaitza eta elementu begetalak, ate metalikoak eta egungo ibilgailuen sarbidean hormigoizko zoladura kentzea. Material pilaketa eta bertan dauden hirigintzako zenbait elementu eta altzari kentzea.

Kontuan izanik ez dela bidearen mugakide diren jatedun guztiei entzunda izapidetu den mugaketaren administrazio-egintzaren eraginkortasuna bertan behera uzteko inolako arrazoirik ematen, mugaketa behin betikoz onartzeko egintza irmotzat joz. Ezin da baietsi mugarriztatutako bidean mugarririk ipintzea bertan behera uztea, izan ere, mugaketaren eragiketa osagarria da, zeinaren helburua akordio irmo bidez behin betikoz onartutako mugaketaren akordioan finkatuta geratu diren bideko mugak mugarririk bidez ezarri edo adieraztea da, ez delarik onargarria mugaketa-prozeduran aurkeztutako alegazio errepikatuak, legez ebatzi direnak.

Kontuan izanik, edozein kasutan, jasota dagoela mugarririk legez ipini ahal izateko ezinbestekoa dela udal zerbitzu teknikoek adierazitako okupazioak kentzea bidea erabilera publikoa eragozten duen okupazio orotatik salbu eta libre uzteko xedez. Horretarako, ofizioz berreskuratzeko dagokion prozedura izapidetu beharko da.

KONTUAN IZANIK.- Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean 68. artikuluan eta harekin bat datozenetan ezarritakoa.

KONTUAN IZANIK.- Tokiko Erakundeek mugaketarako eta ofizioz berreskuratzeko dituzten ahalmenei buruzko Tokiko Erakundeen Ondasunen Erregelamenduko 44.1 artikuluko b) eta c) ataletan eta 56. artikuluan eta hurrengoetan nahiz 70. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa.

KONTUAN HARTUZ.- Ekainaren 13ko 1372/86 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundeen Ondasunen Araudiaren 65-69 bitarteko artikuluetan xedatutakoa.

Udalbatzak, 2019ko irailaren...(e)ko egunez egindako ohiko osoko saioan elkartuta... (adierazi gehiengoak), ...

ADOSTU DU:

LEHENA.- Angel Arechavala Torre jaunak eta Alejandro Barcena Aguirre jaunak beren alegazio-idatzietan mugaketa mugarriztatzea bertan behera uzteko egindako eskaera ezestea. Dena den, hura praktikoki burutu aurretik ofizioz berreskuratzeko espedientea izapidetuko da udal zerbitzu teknikoek adierazitako okupazioak kendu eta baztertzeko bidea haren erabilera publikoa eragozten duen okupazio orotatik salbu eta libre uzte aldera, mugarriztatzea legez gauzatu ahal izateko.

BIGARRENA.- Santa Kolomako mugarriztaturiko bideko, zeinaren erabilera instalazio eta eraikuntza ezberdinek oztopatzen baitute, azalera hauek ofizioz berreskuratzeko administrazio-espedientea abiatzea, haren identifikaziorako katastro-erreferentzia zaharrak aipatuz:



1. Antzinako 49 A katastro-partzela, gaur egun, lur-erazketak eta bi txabola txikik eta egindako lur-neurketatik kanpo dagoen itxitura batek okupatzen duten bide publikoa. Horiek kendu egin beharko dira, eta pilatutako materialak eta atoiak ere kendu egin beharko dira.
2. Antzinako 737 A katastro-partzela, gaur egun pilatutako eraikuntza-materialak, bertatik kendu beharko dena, okupatzen duen bide publikoa.
3. Antzinako 38 B katastro-partzela, gaur egun lur-erazketak eta egindako lur-neurketatik kanpoko abeltzaintzako itxiturak, kendu egin beharko dena, okupatutako bide publikoa.
4. Antzinako A katastro-partzela, gaur egun lur-erazketak eta harlangaitzezko itxiturak eta landare-elementuek (metalezko atea duena eta hormigoizko zolata ibilgailu sarbidean) okupatutako bide publikoa. Horiek kendu egin beharko dira pilatutako materialarekin eta bertan dauden hirigintzako beste elementu batzuekin eta altzari zenbaitekin batera.

HIRUGARRENA. - Erabaki honen berri ematea interesdun diren guztiei, **HAMABOST EGUNEKO** epea emanez, jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita, alegazioak egin ditzaten edo egokitzen jotzen dituzten probak aurkez ditzaten.

Alegazioak ipintzeko epea igarota, espedientea ebatzi egingo dela jakinaraztea, mugaketa egindako bide publikoko lurrak, okupazio orotatik libre daudenak, utz ditzatela eskatuz, haietarako sarbide publikoa ahalbidetuz inolako eragozpenik ipini gabe.

Ohartaraztea behin bidea berreskuratzeko eskakizuna egin ondotik, haren erabilera eragozten duten okupazioak kenduz, horretarako ematen den epearen barnean, ez bada berariaz hori betetzen, Udalak berreskuratu egingo duela, egikaritze subsidiarioan, gastu guztiak obligaziodunen kontura izanik, zeintzuei dagokion likidazioa igorriko baitzaie dagokion zenbatekoarekin eta, beharrezkoa balitz, haren ondarearen aurrean premiamenduzko bidera joz.

LAUGARRENA. - Ebazpen honen berri ematea espedientean agertzen diren interesdun guztiei, ohartaraziz lehenengo atalean adostutakoaren aurka aukera izango dela Udal honen aurrean berraztertze errekurtsoa jartzeko, hilabete bateko epean, edo aldiz, jakinarazpenetik bi hilabeteko epean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko aukera, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegien aurrean.

Gainerako erabakien aurka ezin da inolako errekurtsorik ipini, izapide hutseko egintzak baitira”.

Alkatea: hau, diodan moduan, Santa Koloman bide publikoan ofiziozko espediente bati hasiera ematea da, berreskuratu egin dena, eta hau azken fasea da, azkenekoa, bidearen gainean jarduteko, bide publiko hori bereganatu zuten zonetako jabedunek okupatuta dutena kendu edo bazter dezaten, eta azken izapidea dela esan dezagun.

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu taldekoak (5); Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ-PNV (2) alderdikoak; Joseba Elejalde Ribacoba P.P. taldekoa (1)



Kontran:
Batere ez.
Abstentzioa:
Batere ez.

Onartuta geratu da.

4.- 139/2016 epaia egikaritzea, % 0,6ko igoerari dagokiona.

Alkateak informazio-batzordearen irizpena irakurri du:

“2019KO IRAILAREN 26AN EGINDAKO KONTU, LANGILE ETA HERRIEN INFORMAZIO BATZORDE BEREZIAREN IRIZPENA.

Ikusirik 2016. urterako laneko baldintzak onartzeko Negoziazio Kolektiboarekin lotuta izapidetutako espedientea.

KONTUAN IZANIK Udalbatzak EUDEL erakundearen gomendioei jarraiki, 2016ko martxoaren 10ean, EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteak 2015eko abenduaren 10ean UDALHITZ negoziazio kolektiboarekin lotuta egindako gomendioekin bat etorri, oinarritzko ordainsarien eta ordainsari osagarrien soldata-masaren % 0,6ko modernizazio eta produktibitate funts bat gaitzea adostu zuela.

KONTUAN HARTUZ ordainsari gordinen % 0,6ko modernizazio eta produktibitateko funts bat gaitzeari buruzko Udalbatzaren erabakia aurkatu egin zuela Estatuko Abokatutzak, 139/2016 zenbakidun administrazioarekiko auzi errekurtsua ipini zuenak.

KONTUAN HARTUZ Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak uztailaren 31n emandako 233-2017 epaiarekin ezetsi egin zela Estatuko Abokatuak eta Estatuko Administrazio Nagusiak (EAEko Gobernu Ordezkaritza) 2019ko martxoaren 10eko Udalaren erabakiaren auka ipinitako errekurtsua.

KONTUAN HARTUZ Estatuko Administrazio Nagusiak (EAEko Gobernu Ordezkaritza) 233-2017 epai horren aurka 965/2017 zenbakidun apelazio-errekurtsua ipini zuela, baietsi egin zena aurkatutako ebazpena baliogabetuz.

KONTUAN HARTUZ 2019ko ekainaren 6an (1704 sarrera) 1 zenbakidun Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak agindu Antolaketarako eginbidea eman zuela adieraziz hamar eguneko epean Epaitegiari Epaia egikaritzeaz arduratzen den organoaren berri emateko, ohartaraziz BI HILABETEKO epean egikaritu beharko dela.

Azaldutakoa oinarritzat hartuz, Udalbatzak, eskumeneko organoak, hartu du hurrengo
ERABAKIA:

LEHENA.- *Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari jakinaraztea epaia egikaritzeaz arduratu behar duen organoan Artziniegako Udalbatza dela.*

BIGARRENA.- *189/2018 zenbakidun epaia egikaritzea, 965/2017 prozeduran emandakoa, apelazio-errekurtsua ezesten duena, langile publikoek 2016ko ekitaldian desegoki jasotako dirua (oinarritzko ordainsarien eta ordainsari osagarrien soldata-masaren % 0,6ko modernizazio eta produktibitate funts modura, Udalbatzak hala onartuta 2016ko martxoaren 10ean egindako saioan, EUDEL erakundeak 2015eko abenduaren 10ean UDALHITZ negoziazio kolektiboarekin lotuta egindako gomendioarekin bat eginik) itzultzeko betebeharrak.*



HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Gasteizko 1. zenbakidun Justizia Auzitegi Gorenari”

Ascensio Hormazabal Meabe: ez daki azalpenik behar ote duen. Udalbatzak 2016an hartutako erabaki bat izan zen, Eudel erakundeak proposatzen zuenarekin bat eginez, eta produktibitate osagarria bideratutako 0,6ko portzentaje baten ingurukoa da, uste dut bere garaian egin nuela txosten bat, baina tira hemen onartzea adostu zen, langileok jaso genuen, Estatuko abokatuak errekurritu egin zuen, eta are administrazioarekiko auzi batean, lehen fase baten eta ondoren apelazioan, eta hau da epaia eta orain itzultzea dagokio.

Joseba Elejalde Ribacoba: Batzordean aipatu nuen moduan, ez dakit Joseba etxeko lanak egin ote dituzun, lehendabizi, zenbateko kostua izan du administrazioarekiko auzi horrek? Izan ere, Idazkari eta kontu-hartzaileak ongi aipatu duen moduan Udalbatzara eraman zen, saio hartan atzera egite bat egon zen, Alderdi Popularretik adierazi baitzen soldataren igoera hori legez kanpoko zela, eta ez zela aplikatu behar uste genuen. Atzera-egite bat egon zen, irten den Alkatea Bilduko bozeramailearekin irten zen, eta sartzean erabaki zuten udalbatza hartan puntuz puntu onar zedila erabaki hura. Horregatik, hainbat galdera ditut egiteko, hots: Zenbateko kostua izan du administrazioarekiko auzi horrek? Galdera hori duela astebate egin nuen dagokion batzordean. Zergatik, behin Estatuko abokatutzat administrazioarekiko auzia ipinita, ez zuen udalbatza honek Osoko Bilkurako erabakia aldatu? Zergatik ez zitzaion jaramonik egin Idazkari eta Kontu-hartzaileak egindako txostenari udalbatzak aurkeztu ez arren, baizik eta apur bat beranduago Alderdi Popularrak eskatuta? Zergatik ez zen puntu hori mahai gainean utzi? Zergatik ez zen Alderdi Popularraren bozeramaileak soldataren igoera hori irregularra zela eta Estatuko aurrekontu orokorretan ez zegoela jasota adieraziz egindako oharpena kontuan hartu? Eta garrantzitsuena, nork ordainduko du kudeaketa txar hori? Beste behin, herritarrek. Nahas-mahasi hau kostatu zaiguna, koherentziarik eza hori, jakinik Estatuko aurrekontu orokorretan % 0,6ko igoera hori ez zela jasotzen, bada hemen horrela egingo zela erabaki zen Eudel erakundeak hala adierazten zuelako. Baina, Eudel, nire begirune osoz, oker zegoen egun hartan eta hala ikus dezakegu islatuta epai honetan. Nork itzuliko du dirua? Guztion artean ordainduko dugula uste dut. Irten den Alkatea izango da, une hartan Bilduko oposizioko taldeko bozeramailea, Alkatea une honetan. Nola eskatuko zaie ez dakit zenbat hilabetez % 0,6 hori jasotzen aritu diren langileei une honetan Udalerri itzultzeko? Nik uste dut udalerrri honetan udalbatzako erabakiak hartzen direnean ondoren zer gerta litekeen jakinda egin behar dela. Eta lehen eskutik genekien erabaki honekin arazoak izan genitzakeela, eta hala izan da, epaian islatzen den moduan, eta nik nahi nuke galdera horiek guztiak, Joseba nahi baduzu banan-banan galdetuko dizkizut, eta zu erantzuten joan.

Alkatea: ez, nik soilik eskatu nahi dizut galdera horiek guztiak, lau galderak, idatziz igorri ahal badizkidazu, eta izapide horretatik hurrengo osoko bilkura bitartean, edo hurrengo osokoa ongi begira ditzakegu eta behar duten erantzuna emango diegu. Bai, lehenengoa aurreko asteko batzordean egin zenidan, baina nik, lau galderak batzen badizkidazu hurrengo osokorako erantzungo dizugu, zure gustukoak izan zein ez.

Joseba Elejalde Ribacoba: pasa gaitezen hurrengo osokora.

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu taldekoak (5); Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ-PNV (2) alderdikoak;

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Joseba Elejalde Ribacoba P.P. alderdikoa (1);

Onartuta geratu da.



5.- Artziniegako hornidura sarean dauden Zuntz-zementuzko Hoditeriak Berritzeko Proiektua onartzea. 1. fasea.

Alkateak informazio-batzordearen irizpena irakurri du:

“2019KO IRAILAREN 26AN EGIN ZEN NATURA ETA HIRI INGURUNEKO, ENERGIA, UR, MENDI, INGURUMEN, LAN ETA HONDAKINEN KUDEAKETARAKO INFORMAZIO BATZORDEAREN IRIZPENA.

GAIA: Artziniegako hornidura sarean dauden Zuntz-zementuzko hoditeriak berritzeko proiektuaren hasierako onarpena (1. fasea).

“Ikusirik Artziniegako hornidura sarean dauden Zuntz-zementuzko hoditeriak Berritzeko Proiektua, Pablo Torquemada Alonso Bideetako Ingeniari jaunak (C y P) idatzitakoa, 2019ko irailaren 11n aurkeztua (2547 sarrera), zeinaren aurrekontua, desjabetzeak barne, zazpiehun eta laurogei mila eta hirurogeita hamahiru euro eta berrogeita hemeretzi zentimokoa baita (780.073,59 €), horrela banakatuta:

EGIKARITZE MATERIALA GUZTIRA.....	434.059,20.-
(% 19) GASTU OROKORRAK ETA INDUSTRIA MOZKINA.....	82.471,25.-
BEZ % 21	
108.471,39.-	
KONTRATAREN AURREKONTUA GUZTIRA	
625.001,84.-	
DESJABETZEN AURREKONTUA.....	155.071,75.-
AURREKONTU OROKORRA GUZTIRA	780.073,59.-

Kontuan izanik proiektuaren xedea dela medio hirigintza arrazoen ondorioz desjabetzea legeztatu egiten dela, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 177 b) artikuluan aurreikusita bezala, lurra eta sistema orokorreko sarearen zuzkidura publikoak egikaritzeko esku-hartzeak garatzeko beharrezkoak diren gainerako ondasun eta eskubideak eskuratzeko, esku-hartze integratuetan barneratu gabeak eta horietara atxiki gabeak.

Kontuan hartuz proiektuan "Eragindako ondasun eta eskubideak" 2. eranskin modura obrek eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda barneratzen dela, beraz hura behin betikoz onartzeak obren erabilera publikoa deklaratzeko eta desjabetze aldera eragindako ondasun eta eskubideak okupatzeko premia ekarriko duela. Horretarako, egoki da proiektua informazio publikora eraman eta eragindunei pertsonalki jakinaraztea, egoki diren alegazioak egin ahal ditzaten.

Kontuan hartuz proiektatutako obrak maiatzaren 29ko 260/2018 zenbakidun Foru Gobernu Kontseiluaren Erabakiz diruz lagunduta daudela 479.033,85 euroko zenbatekoaz, Obra eta Zerbitzuetako Foru Planeko 2018-2019 programaren kargura, egikaritze-epeak betetzea eskatzen duena, eta horrenbestez desjabetzea premiazkotzat jotzea dagokiola.

Kontuan hartuz, 2019ko uztailaren 2an aipatu obrarako dagozkion arloko baimenak eskatu zitzaizkiela, Errepide Sailari (764 irteera) eta URA Uraren Euskal Agentziari (767 irteera).



KONTUAN IZANIK.- Tokiko Erregimen Arloan Xedapenen Testu Bategina onartzeko apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuko 94. artikuluan xedatzen dena.

KONTUAN IZANIK.- Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 177. eta 178. artikuluetan eta harekin bat datozenetan xedatzen dena.

KONTUAN IZANIK.- Horri dagokionez 1954ko abenduaren 16ko Behartutako Desjabetzeari buruzko Legean xedatzen dena; nahiz aipatu Legea garatzeko 1957ko apirilaren 26ko Erregelamenduan xedatzen dena.

Udalbatzak, 2019ko urriaren 3ko Osoko Bilkuran,

ADOSTU DU:

Lehena.- Artziniegako hornidura-sarean dauden zuntz-zementuzko hoditeriak Berritzeko Proiektuari Hasierako onarpena ematea (1. fasea) eta informazio publikora eramatea 15 EGUNEKO epez. Denbora horretan dokumentua udaletxe honetako Idazkaritzan egongo da hura kontsultatzeko interesa duen edozein pertsonaren eskura, eta epe horretan egokitzen jotzen diren alegazioak aurkezteko aukera izango da.

Honen berri ematea proiektuak eragindako lurren jabedunei eta, horiei jakinaraztea, alegazioetarako epea igarota, Proiektua behin betikoz onartu egingo dela, obrak egitea beharrezkotzat joz, eta proiektuak berekin dakarrela erabilera publikoaren deklarazioa eta eragindako ondasun eta eskubide guztiak okupatzeko premia desjabetzeko espedienteak abiatzeko aldera.

Bigarrena.- Proiektuak eragindako ondasun eta eskubideak desjabetzeko administrazio-espedienteak irekitzea, eta interesdunei jakinaraztea berehala okupatzearen adierazpena egitea dagokiola.

Hirugarrena.- Eragindako ondasun eta eskubideen zerrendaren hasierako onarpena ematea, desjabetze aldera, eta baita haietako titularrena ere:

1.- 731 A partzela, 4. industrialdean:

- Titularrak.- Artziniegako Udala.
- Eraginak: Eragindako azalera m²):
 - Behin betikoa 4
 - Aldi batekoa 465
 - Zortasuna Kondukzioa Hornidura /3 m: 93
- Izaera: Landa erakoa
- Kargak.- Ez da ageri

2.- 349 A partzela, 2. industrialdean:

- Titularrak.- Jonatan Camara Revuelta eta Izaskun Santamarina.
- Eraginak: Eragindako azalera m²):
 - Behin betikoa 0
 - Aldi batekoa 21
 - Zortasuna Kondukzioa Hornidura /3 m: 9
- Izaera: Hiritarra). Familiabakarreko etxebizitza lerroan
- Kargak.- Ez da ageri

2.- 349 B partzela, 2. industrialdean:

- Titularrak.- Agustin Herrera, Socorro Rivera, Ignacio de la Llosa, Miguel Martin, Begonia Blanco, Guillermo Lopez, Onintze Ibarretxe, J. Maria Olanga, Iza Santamarina eta Jonatan Camara
- Eraginak: Eragindako azalera m²):
 - Behin betikoa 0
 - Aldi batekoa 182
 - Zortasuna Kondukzioa Hornidura /3 m: 97
- Izaera: Hiritarra. Orubea
- Kargak.- Ez da ageri

2.- 349 C partzela, 2. industrialdean:



- Titularrak.- Arteko Aldapa, 18-32 Jabekideen Erkidegoa
- Eraginak: Eragindako azalera m2):
 - Behin betikoa 0
 - Aldi batekoa 28
 - Zortasuna Kondukzioa Hornidura /3 m: 11
- Izaera: Hiritarra). Orubea
- Kargak.- Ez da ageri

3.- 348 partzela, 2. industrialdean:

- Titularrak.- Gonzalo Martinez Valencia eta Alvaro Martinez Valencia
- Eraginak: Eragindako azalera m2):
 - Behin betikoa 0
 - Aldi batekoa 312
 - Zortasuna Kondukzioa Hornidura /3 m: 67
- Izaera: Hiritarra). Orubea
- Kargak.- Ez da ageri

4.- 345 partzela, 2. industrialdean:

- Titularrak.- Antonio eta Marta Martin Torralba
 - Diego, Alvaro, Pedro eta Daniel Fernandez Martin
 - Diego Fernandez Valdes
- Eraginak: Eragindako azalera m2):
 - Behin betikoa 0
 - Aldi batekoa 2660
 - Zortasuna Kondukzioa Hornidura /3 m: 572
- Izaera: Hiritarra). Laguntza izaera duten eraikin txikiak
- Kargak.- Ez da ageri

5.- 351 partzela, 2. industrialdean:

- Titularrak.- M^a Carmen Diaz de Durana
- Eraginak: Eragindako azalera m2):
 - Behin betikoa 0
 - Aldi batekoa 182
 - Zortasuna Kondukzioa Hornidura /3 m: 39
- Izaera: Hiritarra). Orubea
- Kargak.- Ez da ageri

6.- 352 partzela, 2. industrialdean:

- Titularrak.- Promociones Parque Zabalgaitia, S.L.
- Eraginak: Eragindako azalera m2):
 - Behin betikoa 0
 - Aldi batekoa 479
 - Zortasuna Kondukzioa Hornidura /3 m: 102
- Izaera: Hiritarra). Laguntza izaera duten eraikin txikiak
- Kargak.- Ez da ageri

7.- 466 A partzela, 2. industrialdean:

- Titularrak.- Maria Belen Gutierrez Fernandez
- Eraginak: Eragindako azalera m2):
 - Behin betikoa 0
 - Aldi batekoa 1018
 - Zortasuna Kondukzioa Hornidura /3 m: 217
- Izaera: Hiritarra). Laguntza izaera duten eraikin txikiak
- Kargak.- Ez da ageri

7.- 466 B partzela, 2. industrialdean:

- Titularrak.- Maria Belen Gutierrez Fernandez
- Eraginak: Eragindako azalera m2):
 - Behin betikoa 0
 - Aldi batekoa 105
 - Zortasuna Kondukzioa Hornidura /3 m: 23
- Izaera: Hiritarra). Orubea
- Kargak.- Ez da ageri

8.- 464 partzela, 2. industrialdean:

- Titularrak.- M^a Angeles Zabalbeitia Marquijano
- Eraginak: Eragindako azalera m2):



Behin betikoa 0
Aldi batekoa 1011
Zortasuna Kondukzioa Hornidura /3 m: 215
-Izaera: Hiritarra). Orubea
-Kargak.- Ez da ageri

9.- 462 partzela, 2. industrialdean:

- Titularrak.- M^a Purificacion Herrero Martinez de Nanclares
- Eraginak: Eragindako azalera m2):
Behin betikoa 0
Aldi batekoa 720
Zortasuna Kondukzioa Hornidura /3 m: 154
-Izaera: Hiritarra). Orubea
-Kargak.- Ez da ageri

10.- 461 partzela, 2. industrialdean:

- Titularrak.- Matilde Alava de la Torre
- Eraginak: Eragindako azalera m2):
Behin betikoa 0
Aldi batekoa 865
Zortasuna Kondukzioa Hornidura /3 m: 189
-Izaera: Hiritarra). Orubea
-Kargak.- Ez da ageri

11.- 459 partzela, 2. industrialdean:

- Titularrak.- Manuel Partera Criado
- Eraginak: Eragindako azalera m2):
Behin betikoa 0
Aldi batekoa 341
Zortasuna Kondukzioa Hornidura /3 m: 95
-Izaera: Hiritarra). Orubea
-Kargak.- Ez da ageri

12.- 532 partzela, 2. industrialdean:

- Titularrak.- Francisco Parra Borrego
- Eraginak: Eragindako azalera m2):
Behin betikoa 0
Aldi batekoa 569
Zortasuna Kondukzioa Hornidura /3 m: 162
-Izaera: Hiritarra). Laguntza izaera duten eraikin txikiak
-Kargak.- Ez da ageri

13.- 460 partzela, 2. industrialdean:

- Titularrak.- Matilde Alava de la Torre
- Eraginak: Eragindako azalera m2):
Behin betikoa 0
Aldi batekoa 316
Zortasuna Kondukzioa Hornidura /3 m: 22
-Izaera: Hiritarra). Orubea
-Kargak.- Ez da ageri

14.- 400 partzela, 2. industrialdean:

- Titularrak.- Iciar Mestraitua Ruano eta Ignacio Mestraitua Ruano
- Eraginak: Eragindako azalera m2):
Behin betikoa 0
Aldi batekoa 740
Zortasuna Kondukzioa Hornidura /3 m: 161
-Izaera: Hiritarra). Orubea
-Kargak.- Ez da ageri

15.- 169 partzela, 8. industrialdean:

- Titularrak.- Tubacex Taylor Accesorios, SAU
- Eraginak: Eragindako azalera m2):
Behin betikoa 0
Aldi batekoa 89
Zortasuna Kondukzioa Hornidura /3 m: 4
-Izaera: Hiritarra). Fabrika



-Kargak.- Ez da ageri

16.- 150B partzela, 8. industrialdean:

- Titularrak.- Juan Marcos Oyarzabal Garcia
- Eraginak: Eragindako azalera m2):
 - Behin betikoa 0
 - Aldi batekoa 670
 - Zortasuna Kondukzioa Hornidura /3 m: 158
- Izaera: Hiritarra). Biltegia, Tailerra
- Kargak.- Ez da ageri

16.- 150C partzela, 8. industrialdean:

- Titularrak.- Cristina Corral Lizarralde, Manuel Sanchez Casas eta Jose Maria Casas Ahumado
- Eraginak: Eragindako azalera m2):
 - Behin betikoa 0
 - Aldi batekoa 58
 - Zortasuna Kondukzioa Hornidura /3 m: 12
- Izaera: Hiritarra). Orubea
- Kargak.- Ez da ageri

Pertsonaren batek uste baldin badu aipatu ondasunen gainean eskubide erreal baten edo interes ekonomiko baten titular dela eta harekin eginbideak ulertu behar direla, informazio publikoko epealdian egin beharko du eskaera behar bezala egiaztatu beharko du Behartutako Desjabetzeari buruzko Legeko 4. artikuluekin bat etorritz.

Laugarrena.- *Proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen eta horietako titularren zerrenda informazio publikoko izapidera bideratzea, Arabako Aldizkari Ofizialean eta egunkari batean argitaratuz, Aldizkarian argitaratzen denetik hasita 15 egun balioduneko epean edozein interesdunek aukera izan dezan egokitzen jotzen dituen alegazioak aurkezteko bertan egon daitezkeen akatsak zuzentze aldera, hori guztiori behartutako desjabetzeari buruzko Legearen 17. artikuluan eta hartako erregelamenduan harekin bat datozenetan xedatzen dena betez.*

Bosgarrena.- *Erabaki honen berri pertsonalki jakinaraztea proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen titularrei, jakinarazpena egiten denetik hasita 15 eguneko epean ondasunen eta eskubideen edo horietako titularren zerrendan egon daitezkeen edozein akats zuzentzeko, nahiz erabilera publikoaren deklarazioari eta okupazioaren premiari begira, edo desjabetzeko premiari begira, egokitzen jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten.*

Adierazitako epean erreklamaziorik ipintzen ez bada, proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda zehatza behin betikoz onartutzat joko da, eta erabilera publikoa eta okupatzeko berehalako premia deklaratzat emango da, interesdunei gonbitea luzatuz jabaria eta aldi baterako okupazioa elkarren adostasunez eskuratzea ahalbidetzen duen prezio bat proposa dezaten.

Seigarrena.- *Amurrioko Jabetzaren Erregistratzaileari eskatzea desjabetzeko espediente honek eragindako lurrei dagozkien erregistro-finken jabaria eta kargak egiaztatzeko ziurtagiria, eta desjabetzeko espedientea abiatzeko orri-bazterreko oharra egin dezala.*

Zazpigarrena.- *Alkatea gaitzea prozedura hau izapidetzen jarraitzeko beharrezkoak diren egintzetarako, eta bereziki lurren gaineko eskubideen titularrekin adiskidetasunezko akordioa erdiesteko berehalako okupazioa eman dadin.*

Zortzigarrena.- *Erabaki honen aurrean, izapide hutseko egintzak izaki, ezin da inolako errekurtsorik ipini, egokitzen jotzen diren ekintzen kalterik gabe”.*



Alkatea: beno, dakizuen bezala, proiektua onartzea da hau. Udalak bere garaian Aldundiko obra eta zerbitzuetako Foru Planari eskatutako hiru proiektuetatik, eskatu ziren hiru proiektuen barruan, zuntz-zementuzko hoditeria berritzeko I. faseari dagokiona, ia deposituaren zonatik herrira sartzeko biribilgunera artekoa izango litzateke, bertan tarte askotan uraren egungo sarea ordeztuko da pixkanaka oso zaharra baita eta ihesen arazo zenbait ematen ari da, eta zuntz-zementukoa da, eta orduan hori guztiori berritu egingo da. Obra horrek, era berean, pilotalekuko aparkalekua, pilotalekuko aparkalekuaren zona urbanizatzea ere ekarriko du, osorik hura urbanizatzea ere bai, izan ere, ireki egin behar denez, bide batez aprobetxatu egiten da, eta ondoren Saratxagureneko aldapa ere, hilerrikoa, galtzada ere egingo da, hoditeria berria galtzadatik sartuko denez, oker ez banago orain espaloia azpitik doan, Saratxagureneko aldapatik Geltoki Plazara arteko igoera asfaltatu edo hobetzeko aprobetxatuko da, proiektu hori probestuz. Ezer esan nahi bada.

Joseba Elejalde Ribacoba: joan den egunean esan nuenari helduz, Caja Vitaleko orubeari buruz, ea azkenean hori, dirudien moduan, Udalarena izango ote den azkenean, hemen osoko bilkura honetan berriro errepikatu nahi dut, ezer baino lehen Figaredo familiarekin harremanetan jarri behar garela, Morako parkeko familiarekin horma altxa dezaten ondoren ez gaitzean atzerapen gehiagorekin aurkitu egikaritzeko orduan, egungo aparkalekua denaren ordez, plaza dena, eta guztia amaitu, zona hori guztiori osorik egin arte.

Alkatea: hasiera batean badakizue plaza aparkalekuko plazaren zatia dela eta ondoren zati pribatu bat, baina aparkatzeko ere erabiltzen dena, Caja Vitalena dena. Udalaren asmoa beti espazio hori Caja Vitali erostea izan da, gertatzen dena da lehendabizi alboko jabekideetako batekin duen arazoren bat konpondu behar duela, eta behin Caja Vitalek arazo hori konpontzen duenean, Udalak lur hori erosiko du, guztia bereganatze aldera. Eta Morara begira dagoen hormaren gaiarekin, hain justu guztia erorita dagoen bazter horretan, lehengo egunean jarri nintzen harremanetan, haiekin harremanetan jarri asmoz, bitartekari baten bidez, eta esan zidanez horretan daudela dirudi obrako edukiontziren bat sartu behar baitzuten, barnean sartu behar zuten, beraz pentsatzen du konpontzea aurreikusten dutelako izango dela. Fase horretan dago. Edozein modutara eta edozelan, proiektuaren onarpena eta proiektua abiatzea ez dago lur zati hori falta izatearen baitan, baizik eta lur zati hori Udalaren eskuetara pasa daitekeenean proiektura gaineratuko da, eta plaza hori berriro diseinatuko da hala aparkaleku gisa nola edukiontzien bateriaren gaiari so... Edozein kasutan, proiektuari onarpena eman behar zaio Aldundira igaro behar baita Aldundiak onespene eman eta arintasuna eman diezaion.

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu taldekoak (5); Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ-PNV (2) alderdikoak; Joseba Elejalde Ribacoba P.P. taldekoa (1)

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Onartuta geratu da.

6.- Zuntz-zementuko hoditeriari, Hirigintza Plangintza betetzeari eta irisgarritasun araudiari buruzko irailaren 16ko txosten teknikoa onartzea.

Alkateak informazio-batzordearen irizpena irakurri du:

“2019KO IRAILAREN 26AN EGIN ZEN NATURA ETA HIRI INGURUNEN, ENERGIA, UR, MENDI, INGURUMEN, LAN ETA HONDAKINEN KUDEAKETARAKO INFORMAZIO BATZORDEAREN IRIZPENA.



“Ikusirik Artziniegako hornidura sarean dauden Zuntz-zementuzko hoditeriak Berritzeko Proiektua, Pablo Torquemada Alonso Bideetako Ingeniari jaunak (C y P) idatzitakoa, 2019ko irailaren 11n aurkeztua (2547 sarrera), zeinaren aurrekontua, desjabetzeak barne, zazpiehun eta laurogei mila eta hirurogeita hamahiru euro eta berrogeita hemeretzi zentimokoa baita (780.073,59 €).

KONTUAN HARTUZ Artziniegako Udaleko hirigintza arloko Aholkulari teknikariak, Foru Planeko Arauko betekizunei so, 2019ko irailaren 18an jakinarazi zuela proiektuak Udal Hirigintza Plangintza eta irisgarritasun arloan indarrean den araudia betetzen dituela eta Artziniegako Udalak beharrezkoak diren arloko baimenak eskatu dituela.

Azaldutakoan oinarrituta, eta Obra eta Zerbitzuetako Foru Plana egikaritzeko araudiarekin bat etorriz, Udalbatzak ERABAKI hau hartu du:

Lehena.- Hirigintza arloko Aholkulariak Artziniegako hornidura-sarean dauden zuntz-zementuko hoditeria Berritzeko Proiektuari (1. fasea) buruz igorritako 2019ko irailaren 18ko txostena onartzea hark Udal Hirigintza Plangintza nahiz irisgarritasun eta mugikortasun arloan indarrean dagoen araudia betetzen duela eta.

Bigarrena.- Proiektua, hura onartzeko ziurtagiriarekin eta Hirigintza Txostenarekin batera Foru Planaren Sailera igortzea”.

Alkatea: Aldundiak behartzen digun izapide bat baino ez da, ziurtagiri hori igortzekoa, proiektua garatzen jarraitzeko.

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu taldekoak (5); Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ-PNV (2) alderdikoak; Joseba Elejalde Ribacoba P.P. taldekoa (1)

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Onartuta geratu da.

7.- Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluarekin Hitzarmena onartzea 2019.

Alkatea: hau eta hurrengo puntuak hiru hitzarmen dira, bakoitza bere aldetik doa, 2019ko aurrekontuan aurreikusita zeuden hiru hitzarmen dira, orduan egiten dugun bakarra horiek aktibatzea da, ez baitzeuden sinatuta, orduan osoko bilkurara ekartzen ditugu sinatu eta ziurta daitezen. Oraindik 2019ko aurrekontuan aurreikusita zeuden beste hitzarmen edo diru-laguntza batzuk geratzen dira, esate baterako, Gurutze Gorria edo Zaraobeko Babio Gurasen Elkartearena, eta horretan ere lanean ari gara ikusteko ea geratzen diren datozen bi osoko bilkuretan onartzen ditugun ziurtatu ahal izateko. Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren hitzarmenaren kasuan partida 250 eurokoa da, eta oker ez baldin banago iazko berdina da.

Alkateak informazio-batzordearen irizpena irakurri du.

“2019KO IRAILAREN 26KO AGENDA, JARDUERA, HEZKUNTZA, EUSKARA ETA KIROLETAKO INFORMAZIO BATZORDEAREN IRIZPENA.

- **Hitzarmena Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluarekin**



Ikusirik Artziniegako Udalaren eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren artean euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez kolaboratze aldera egiteko Hitzarmenaren proposamena.

KONTUAN HARTUZ Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua irabazi asmorik gabeko elkarte bat dela,

Gaineratzen den dokumentazioa aztertuta, Udalbatzak

ADOSTU DU

***LEHENA.-** Artziniegako Udalaren eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren artean Aiaraldean euskararen erabileraren normalizaziorako 2019ko ekitaldirako Hitzarmena sinatzea, jarraian transkribatzen dena:*

"ARTZINIEGAKO UDALAREN ETA AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUAREN ARTEKO 2019. URTERAKO AKORDIOA AIARALDEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO

Artziniegan, 2019ko urriaren(e)an

ELKARTU DIRA

Alde batetik, Joseba Vivanco Retes, Artziniegako Udaleko alkatea, 30.307.841-Q NAN zenbakiaren jabea.

Beste alde batetik, Josu Zabala Acha, AIARALDEKO EUSKALGINTZAREN KONTSEILUA elkarteko presidenteordea, 30.560.679-A NAN zenbakiaren jabea.

FINKATU DUTE

Lehenak, Artziniegako Udaleko alkate izaeraz, tokiko administrazio horren izenean eta hura ordezkatzuz, Artziniegako Udala gaituta dagoela eta baimena duela, Tokiko Arabidearen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorriz.

Bigarrenak, aipatu elkartearen izenean eta hura ordezkatzuz, zeinaren IFZ zenbakia G01545599 baita.

*Bi aldeek sinatu eta **lankidetzak-akordio hau** betetzeko eskumen osoa aitortzen diote elkarri eta, horretarako,*

ADIERAZTEN DUTE

Aiaraldean eta, zehazkiago, Artziniegako udalerrian, ezinbestekoak dira bitarteko guztiak eta batu daitezkeen indar guztiak euskararen erabileraren normalizazioaren alde lan egiteko.

Eginkizun horretarako, Artziniegan konpromiso aktibo bat hartu duten elkarte eta erakunde guztiak funtsezko funtzioa betetzen dute, baita Artziniegako Udalak ere.

Gure ustez, ezinbestekoa da gizarte eremuko elkarte eta erakundeak euskararen normalizazioaren alde lankidetzan aritzea. Ildo horretatik, elkarrekin lan egin nahi dugu, eta hori lortzeko bi aldeen artean sinergia iraunkorrak sortzeko konpromisoa hartzen dugu.

Norabide horretan, euskararen normalizazioaren alde lan egiteko Aiaraldeko 40 erakundek



AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUA izeneko foroa sortu zuten Laudion, 2016ko otsailaren 12an. Foro horren helburua da gure eskualdean euskararen alde egiten diren jarduera eta ekarpen guztiak uztartu, eta gogoeta egin eta guztion artean normalizaziorako lanketa ahalik eta eraginkorrena izateko dinamikak sortzea.

Modu horretan, ARTZINIEGAKO Udalak foro horretako partaide izateko konpromisoa hartu nahi du.

ARTZINIEGAKO Udalak uste du udalerrri mailan interes publiko handia duen proiektu bat dela.

Beraz, eta erakundeek euskararen erabileraren normalizazioaren alde modu aktiboan parte har dezaten, bi aldeek lankidetzak-akordio hau sinatzen dute, jarraian agertzen den edukiarekin:

KLAUSULAK

Lehena.- Akordio honetan xehetasunez azaltzen dira 2019. urtean zehar AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUAK eta ARTZINIEGAKO UDALAK modu kolektiboan gauzatuko dituzten lanketak. Lankidetzak epe luzekoa izango denez, bi aldeek aurten elkarrekin lan egiteko konpromisoa hartzen dute. 2019. urtea amaitzen denean, hurrengo urterako baldintzak negoziatuko dituzte.

Urtero, urteko lehendabiziko hiru hilabeteetan zehar Artziniegako Udalak akordioa berritzen duen ala ez erabakiko du. Horretarako, informazio-bilkura batean amaitu berri den urteari dagokion dokumentazioa nahiz indarreko urterako proposamen eta baldintzak aztertuko ditu. AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUA izango da proposamen hori eta baldintzak igorriko dituen

Beraz, akordio hau 2019. urterako sinatzen da, eta indarrean egongo da 2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean.

Bigarrena.- Bi aldeek konpromisoa eta betebeharrak hauek hartzen dituzte:

ARTZINIEGAKO UDALA

- Udaleko euskara teknikariek modu aktiboan parte hartuko dute Kontseiluaren bilkuretan Foroa urtean hiru aldiz elkartzeko da.
- Teknikarien bidez bi aldeek euskararen normalizazioaren alde egin dutenaren edo egin nahi dutenaren berri emango diote beste aldeari. Ildo horretatik, modu aktiboan lan egiteko dute eta beren aldetik ipiniko dute akordio eta sinergiak erdiesteko.
- ARTZINIEGAKO UDALAK ekarpen ekonomiko bat egingo du Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren funtzionamendu-gastuak eta 2019. urtean zehar gauzatu dituen jarduerak ordaintzeko.

AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUA

- Beste erakunde batzuekin batera euskararen normalizazioaren alde lan egiteko konpromisoa hartzen du. Horrenbestez, lankidetzak hori sustatzeko jarrera aktiboa izango du uneoro.
- Lankidetzak-akordio honen ondorioetarako, Kontseiluak betebeharrak hauek izango ditu Artziniegako Udalaren aurrean:



1. *Diru-laguntza bideratu zaion ekitaldia igaro eta hurrengo urtearen hasieran (urtarrila edo otsaila), Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Artziniegako Udaleko alkatearekin- edo hark delegatutako pertsona batekin- eta euskara teknikariarekin elkartuko da. Bilkura horretan dokumentazio hau aurkeztu eta azalduko da:*

- Diruz lagundutako urteari dagokion jardueren memoria.*
- Diruz lagundutako urteari dagokion memoria ekonomikoa.*
- Hurrengo urterako plana (urte horretakoa)*
- Hurrengo urterako proposamena (urte horretakoa)*
- Hurrengo urteari begira erakunde bakoitzari eskatzen zaion ekarpen ekonomikoaren proposamena (urte horretakoa).*

Hirugarrena.- *Artziniegako Udalak 250 euro emango dizkio AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUARI*

Urteko ekarpen ekonomikoa ordainketa bakarrean egingo da, urteko lehendabiziko lauhilekoan. Ordainketa modua erakunde bakoitzarekin adostuko da, betiere, kasu bakoitzean indarrean diren prozedurak kontuan izanik. Ekarpen ekonomikoa AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUAREN kontura ordainduko da.

Laugarrena.- *Behin akordioa sinatuta, Artziniegako Udalaren logotipoak kontseiluaren komunikazio-euskarrietan agertuko dira "Kontseiluarekin lankidetzan diren erakundeak" esaldiaren alloan.*

Bosgarrena.- *AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUAK, hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen, dokumentazio hau aurkeztu beharko du Udaleko Erregistro Nagusian:*

- a) Jarduerak finantzatzeko erakunde publikoen zein pribatuen aldetik jasotako diru-laguntza guztien deklarazioa.*
- b) Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketa guztiak egunean izatearen ziurtagiria.*
- c) Bere jarduerari dagozkion dokumentu hauek:*
 - ✓ Diruz lagundutako ekitaldiaren gastu eta diru-sarreraren Balantzea.*
 - ✓ Diruz lagundutako urteari dagokion jardueren memoria.*
 - ✓ Egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa, eta horiek burutu izanaren zinpeko aitortpena.*

Eta aurreko guztiaren adostasunaren froga modura, elkartutako bi aldeek dokumentu hau sinatzen dute, aurrez adierazitako lekuan eta egunean".



BIGARRENA.-Diru-laguntzaren eskaera aurkeztea eskatzea diruz laguntzeko jardueraren memoriarekin batera, eduki hau izan beharko duena:

- Diru-laguntzaren xedea zehaztea, haren izaera berezia eta interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioa egiaztatzeko arrazoiak adierazita.
- Jardueraren aurrekontu banakatua.

HIRUGARRENA.- Udalaren aldetiko urteko diru-laguntzaren zenbatekoa JUSTIFIKATZEKO zenbateko horri dagokion dokumentazioa aurkeztuko da:

- a. Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko jasotako diru-laguntza guztien deklarazioa, erakunde publiko nahiz pribatuen eskutik jasoak.
- b. Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketa guztiak egunean izatearen ziurtagiria.
- c. Jarduerarekin lotutako dokumentazio hau:

- 1.-Diruz lagundutako ekitaldiaren Gastu eta Diru-sarrerren Balantzea.
- 2.-Diruz lagundutako ekitaldiaren Jardueren Memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta egin izanaren zinpeko adierazpena).
- 3.-Amaitutako urtearen memoria ekonomikoa (jardueren gastua + funtzionamenduaren gastua), gastu eta diru-sarrerak adierazita, dagozkion fakturak eta ordainagiriak aurkeztuz.

Lehendabiziko hitzartzean islatzen diren baldintzak bete ezean, ez da diru-laguntza onartuko.

LAUGARRENA.- Interesdunari akordio honen berri ematea eta, 2020ko urtarrilaren 31 baino lehen, diru-laguntzaren justifikazioa aurkeztu beharko duela jakinaraztea, Diru Laguntzen Udal Ordenantzako 11. artikuluaekin bat etorritik (ALAHO, 32. zenbakia, 2018ko martxoak 16) “

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu taldekoak (5); Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ-PNV (2) alderdikoak; Joseba Elejalde Ribacoba P.P. taldekoa (1)

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Onartuta geratu da.

8.- Aiaraldearekin Hitzarmena onartzea 2019.

Alkatea: aurtengo aurrekontuan ezarritako hitzarmenaren zenbatekoa 1.000 eurokoa da. Lehen bozkatu dugun kredituaren gaikuntzaren barnean 168,40 euro onartu dugu, izan ere, aurtengo partida, hitzarmena urtez urtekoa denez eta biztanleen gaiaren arabera funtzionatzen duenez, bada aldaketa horretan dago. Beraz, hasiera batean, aurtengo aurrekontuan 1.100 euro zeuden aurreikusita, eta ondoren dagokion doikuntza egin da eta 168 euro gehiago ziren, lehen egindako dugun onarpenean gaitu dena. Alkateak informazio-batzordearen irizpena irakurri du:



“2019KO IRAILAREN 26KO AGENDA, JARDUERA, HEZKUNTZA, EUSKARA ETA KIROLETAKO INFORMAZIO BATZORDEAREN IRIZPENA.

- **Hitzarmena Aiaraldearekin (1.100 €)**

Ikusirik euskarazko tokiko Hedabideak sustatu eta finantzatzeko Artziniegako Udalaren eta Aiaraldea Kooperatiba Elkartearen arteko Hitzarmena.

KONTUAN HARTUZ kooperatiba bat eratu dela (Aiaraldea Kooperatiba Elkartea), gizarte ekimenekoa eta irabazi asmorik gabea, euskarazko tokiko hedabideak sustatu eta babesteko konpromisoa hartzen duena.

Gaineratzen den dokumentazioa aztertuta, Udalbatzak

ADOSTU DU

LEHENA.- *Artziniegako Udalaren eta Aiaraldea Kooperatiba Elkartearen artean 2019ko ekitaldirako euskarazko tokiko hedabideak sustatu eta finantzatzeko Hitzarmena sinatzea, jarraian transkribatzen dena:*

ARTZINIEGAKO UDALAREN ETA "AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAREN" ARTEAN EUSKARAZKO TOKIKO HEDABIDEAK SUSTATU ETA FINANTZATZEKO SINATUTAKO AKORDIOA

Artziniegako Udala, 2019ko

ELKARTU DIRA.-

*Alde batetik, **JOSEBA VIVANCO RETES**, ARTZINIEGAKO Udaleko alkatea (30607841-Q NAN zenbakiaren jabea) eta hura ordezkatzuz;*

*Beste alde batetik, **LUIS XABIER UGALDE GULIAS**, AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEKO presidentea (14.949.925-V zenbakiaren jabea), eta hura ordezkatzuz.*

Bi aldeek elkarri akordio hau sinatzeko agintaritzza eta eskumena aitortu ondotik;

ADIERAZI DUTE.-

Etorkizuneko informazioaren gizaratean oso garrantzitsua da euskararen erabilerrako espazio hurbilak sortzea, eta bereziki kontuan izaten baldin bada komunikazioek zein hedabideek hizkuntzaren normalizazioari begira duten zeregina.

Testuinguru horretan sortu zen AIARALDEA KOOP. ELK., irabazi asmorik gabeko eta gizarte ekimeneko kooperatiba bat (2017. urtera arte "Info-Aiaraldea Kultura eta Komunikazio Elkartea" izena zuen eta, legean ezarritakoari jarraiki, elkarte izatetik kooperatiba bilakatzerara pasa zen), hain zuzen Aiaraldean euskarazko komunikazioa sustatzeko xedez. Kooperatibaren helburuetako bat euskarazko hedabideak abian jarri eta garatzea da eta baita komunikazio-jardunak ere, komunikazioaren eremu tradizionaletan nahiz gaurkotasan handienera daudenetan lan eginez, gizarte-kohesioa bilatuz, inolako irabazi asmorik gabe, eta administrazioen eta eragile ekonomiko, sozial eta kulturalen eskutik lan eginez.

Helburu horiek lortzeko, AIARALDEAKOOPERATIBA ELKARTEAK eta ARTZINIEGAKO UDALAK euskarazko tokiko hedabideak sustatu eta babesteko konpromisoa hartu dute; zehazkiago, AIARALDEA HEDABIDE TALDEAK bultzatu eta kudeatutako hedabideak, hots, web-orrialde hau www.aiaraldea.eus ("AiaraldeaGaur" izena duen), eta paperezko bi hilean behingo argitalpena("AiaraldeaHemen").

Hedabide horien bidez hizkuntzaren normalizazioa bultzatzen da, eta ARTZINIEGAKO udalerrria onuradun da orokorrean.



ARTZINIEGAKO UDALAK uste du udalerrri mailako interes publikoko proiektu bat dela eta, ildo horretatik, Eusko Jaurlaritzak kooperatibari "gizarte ekimeneko" izaera aitortu dio.

Horrenbestez, eta euskarazko tokiko hedabideen garapenean modu aktiboan parte hartzeko asmoz, bi aldeek lankidetzak-akordio hau sinatu dute, klausula hauekin:

KLAUSULAK.-

Lehena: Akordio honetan, AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAREN eta ARTZINIEGAKO UDALAREN artean euskarazko hedabideekin lotuta 2019. urterako adostutako lankidetzak zehazten da. Bi aldeek aurten kooperatzeko konpromisoa hartzen dute eta, behin urte hau amaituta, datorren urterako baldintzak negoziatzeko.

Behin Araialdea Kooperatiba Elkarteak amaitu berri den urteari dagokion dokumentazioa igorrita, eta indarreko urteari begira bere proposamenari dagozkion baldintzak aztertu ostean, urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan zehar ARTZINIEGAKO UDALAK akordioa berritzearekin lotutako erabaki bat hartuko du dagokion informazio-bilkuran.

Asmo horrekin, sinatu da 2019. urterako akordio hau, indarrean egongo dena 2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra.

Bigarrena: Akordio hau sinatzen den unetik aurrera, ARTZINIEGAKO UDALAK eskumena zango du AIARALDEA HEDABIDE TALDEAREN jarduerak ezagutzeko eta baita komunikazio talde horri dagozkion kontuen berri izateko ere. Betiere, bi aldeek arteko harremana eta kooperazioa iraunkorra izan dadin, ARTZINIEGAKO UDALAK komunikazio taldearen balioespenak eta urteko planak ezagutzeko eskubidea izango du, zeinaren finantzazioa xehetasunezkoa izango baita.

Halaber, eta betiere akordio hau sinatzen duten aldeetako batek hala eskatzen baldin badu, akordioaren edukien gaineko jarraipena egiteko edo beste edozein arrazoi dela medio bilkurak egingo dituzte.

Hirugarrena: ARTZINIEGAKO UDALAK konpromisoa hartzen du

AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEARI diru-laguntza ekonomiko hau emateko:

) 2019. urtea: 0,70€/ biztanleko

Biztanle kopuruari buruzko datua urtero eguneratu egingo da. Horretarako Eustat euskal institutuak argitaratutako azken datuak izango dira kontuan. Modu berean, urtero Udalak igoera bat aplikatuko dio, KPI indizearen arabera, proiektura esleitutako kopuruari.

Gauzak horrela, 2019. urtera begira ARTZINIEGAKO UDALAK komunikazio taldeari 1.268,40 euroko ekarpena egingo dio (EUSTAT erakundearen datuen arabera, 2018. urtean 1.812 biztanle zeuden).

Ekarpen ekonomikoaren urteroko ordainketa, ahal den heinean, lehen hiruhilekoan zehar egin beharko da. Udal ordenantzan ezartzen denarekin bat etorritik, laguntzaren % 80 onartzen den unean jasoko da eta gainerako % 20a behin hura justifikatu denean. Ordainketa AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAREN kontu korrontean egingo da (Euskadiko Kutxa: ES55-3035/0045/21/0450079351).

Bestalde, AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAK urtean jasotako kopuruaren bikoitza justifikatu beharko du, hain zuzen akordio honen xede diren lanketak burutzeari dagokiona.



Laugarrena: Akordio hau sinatzen den unetik aurrera, eta "Aiaraldea Gaur" eta "Aiaraldea Hemen" hedabideak diruz lagunduko dituenek, AIARALDEA HEDABIDE TALDEAKOAK, ARTZINIEGAKO UDALAK kolaboratzaile modura agertuko da bi HEDABIDEETAN, modu horretan beren ekarpena eskertuz publikoki.

Akordia indarrean den bitartean, Udalaren logotipoa kredituen informazioarekin (helbide elektronikoak, egoitzak, etab.) batera gaineratuko da, hala web-orrialdean nahiz paperezko bi hilean behingo argitalpenean.

Bosgarrena: Aiaraldea Hedabide Taldeak, informazioa jorratu eta hedatzerakoan, orotariko eduki eta gaiak argitaratuko ditu. Hedabide independente, plural, orekatu eta parte-hartzailea izango da. Beraz, uneoroalderdi politiko baten mende ez egoten saiatuko da, eta inpartziala izateko ahalegina egingo du. Gainerako elkarteek eta eskualdeko edozein herritarrek aukera izango dute aipatu hedabideetan parte hartzeko.

Seigarrena: Iritzari buruzko atalari dagokionez, herritar guztiek izango dute beren iritzia emateko eskubidea bi hedabide horien bidez, eta baita horretarako aukera ere; hedabideek, alderdikeria ekiditeko, iritzia politiko anitzen presentzia bermatuko dute eta guztien arteko oreka sustatuko dute.

Zazpigarrena: Bilatzen den izpiritu irekiarekin bat etorriz, akordio honen xede diren hedabideetan orotariko eduki eta gaiak jorratuko dira. Haatik, gauza guztien gainetik begirunea lehenetsiko da eta, horregatik, ez da irainik eta funtsik gabeko izen-belzterik onartuko.

Zortzigarrena: Nahiz eta "Aiaraldea Gaur" eta "Aiaraldea Hemen" euskara batuan idatziko diren, hizkuntzaren aberastasunari eta eskualdean nagusi diren euskalkiei beren ahotsa eskainiko zaie. Hizkuntza irakurlearentzat eredu bilaka daiteke eta, horri dagokionez, hedabideek ahalik eta eredu onena eskaintzeko ahalegina egingo dute. Halaber, hizkuntzaren kalitateari begira gutxieneko bat bermatuko da.

Bederatzigarrena: AIARALDEAKOOPERATIBA ELKARTEAK betebeharrak hauek izango ditu:

a) Urteko kontuak ixten diren unean, kontratu honen xede diren hedabideak finantzatzeko jaso dituen diru-laguntza, laguntza eta baliabideei buruzko informazioa emango dio Udalari.

b) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela bermatuko du.

c) AIARALDEAKOOPERATIBA ELKARTEAK urtea amaitu eta hurrengo urteko urtarilaren 31ra arteko epea izango du Udalaren Erregistro Nagusian dokumentazio hau aurkezteko:

c.1) Amaitu berri den urtearen akordio justifikatzeko dokumentazioa:

- Hedabideen gastu eta diru-sarreraren balantzea, amaitu berri den urteari dagokiona.
- Amaitu berri den urteko jardueren memoria eta ebaluazioa, eta laguntza ekonomiko burutu diren jarduerak egiaztatzeko zinpeko aitortpenak.

Justifikazioa eta, hala dagokionean, ordaindu ez diren kopuruak likidatzeko eskaera, amaitu berri den urteko ekitaldiari lotua.

c.2) Akordia berriaren urteko urtarilaren 31 baino lehen aurkeztu behar diren dokumentuak:

Urte berriari dagozkion aurrekontuen zirriborroa.

Urte berriari dagozkion jardueren proiektuaren zirriborroa.

Arabako Foru Aldundiak eta Gizarte Segurantzak igorritako egiaztagiria aurkeztu beharko dira, zerga betebeharrak egunean dituela frogatzekoak.



AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAREKIN sinatutako akordio hau luzatuz gero, hark dagokion ekitaldirako c.1) eta c.2) ataletan adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Eta aurrekoarekiko adostasun froga modura, dokumentu honetan aipatzen diren bi aldeek dokumentu hau sinatzen dute, bi aletan, eta ondorio bakar batekin, goran adierazitako leku eta egunean".

BIGARRENA.-Diru-laguntzaren eskaera aurkeztea eskatzea diruz laguntzeko jardueraren memoriarekin batera, eduki hau izan beharko duena:

-Diru-laguntzaren xedea zehaztea, haren izaera berezia eta interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioa egiaztatzeko arrazoiak adierazita.

-Jardueraren aurrekontu banakatua.

HIRUGARRENA.- Udalaren aldetiko urteko diru-laguntzaren zenbatekoa JUSTIFIKATZEKO zenbateko horri dagokion dokumentazioa aurkeztuko da:

- a. Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko jasotako diru-laguntza guztien deklarazioa, erakunde publiko nahiz pribatuen eskutik jasoak.
- b. Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketa guztiak egunean izatearen ziurtagiria.
- c. Jarduerarekin lotutako dokumentazio hau:

1.-Diruz lagundutako ekitaldiaren Gastu eta Diru-sarreraren Balantzea.

2.-Diruz lagundutako ekitaldiaren Jardueraren Memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta egin izanaren zinpeko adierazpena).

3.-Amaitutako urtearen memoria ekonomikoa (jardueraren gastua + funtzionamenduaren gastua), gastu eta diru-sarrerak adierazita, dagozkion fakturak eta ordainagiriak aurkeztuz.

Lehendabiziko hitzartzean islatzen diren baldintzak bete ezean, ez da diru-laguntza onartuko.

LAUGARRENA.- Interesdunari akordio honen berri ematea eta, 2020ko urtarrilaren 31 baino lehen, diru-laguntzaren justifikazioa aurkeztu beharko duela jakinaraztea, Diru Laguntzen Udal Ordenantzako 11. artikularekin bat etorriz (ALAHO, 32. zenbakia, 2018ko martxoak 16)"

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: ñabardura bat, ez dakit eskakizuna hitzarmenean jasotzen den, baina, biztanle guztiok ordaintzen dugunez, Aiaraldea herri honetako auzotar guztiekin tratua bera izan dezala, Elkarte guztiekin eta kultura edota kirol talde guztietan, eta abar.

Alkatea: proposamen edo iradokizuna bideratuko diegu.

Joseba Elejalde Ribacoba: Alderdi Popularretik kontrako botoa emango dugu. Ez naiz gehiago luzatuko, badakizkizue arrazoiak, beraz nire botoa kontrakoa izango da.

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu taldekoak (5); Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ-PNV (2) alderdikoak;

Kontran:

Joseba Elejalde Ribacoba P.P. alderdikoa (1);

Abstentzioa:

Batere ez.

Onartuta geratu da.

9.- ASASAM elkartearekin Hitzarmena onartzea 2019.



Alkateak batzordearen irizpena irakurri du:

“2019KO IRAILAREN 26KO AGENDA, JARDUERA, HEZKUNTZA, EUSKARA ETA KIROLETAKO INFORMAZIO BATZORDEAREN IRIZPENA.

• **ASASAM Hitzarmena**

Ikusirik ASASAM elkarteak, gaixotasun mentala duten pertsonen eta horien familiek osatzen duten Elkarteak, pertsonen kolektibo horren garapena eta integrazioa ahalbidetzeko, garatzen dituen ekimen eta jarduerak ezberdinak sustatzeko kolaboratzea xedetzat duen Hitzarmenaren proposamena.

KONTUAN HARTUZ, ASASAM irabazi asmorik gabeko Elkarte bat dela, estatutuen arabera, zeintzuen kopia bat Artziniegako Udalean aurkeztu beharko baitu.

Gaineratzen den dokumentazioa aztertuta, Udalbatzak

ADOSTU DU

LEHENA.- Artziniegako Udalaren eta ASASAM Elkartearen artean 2019ko ekitaldirako Elkartearen ekimen eta jarduerak garatzea ahalbidetzeko Hitzarmena sinatzea, jarraian transkribatzen dena:

“ARTZINIEGAKO UDALAREN ETA GAIXOTASUN MENTALA DUTEN PERTSONEN ETA FAMILIEN AIARAKO ELKARTEAREN (ASASAM) ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA.

Artziniegan, 2019ko urriaren(e)an

ELKARTUAK

Alde batetik, JOSEBA VIVANCO RETES jauna, 30.607.841-Q NAN zenbakiaren jabea, Artziniegako Udaleko Alkate modura, Artziniegako Udala, P-0100.500-H zenbakidun IFK, eta jakinarazpenetarako helbidea Garai Plaza 1 Behean duena, Artziniegan, Araba.

Beste alde batetik, Maria Angeles Arbaizagoitia Telleria andrea, adin nagusikoa 72.163.503-Z NAN zenbakiaren jabea, Gaixotasun Mentala duten pertsonen eta familien Aiarako Elkarteko (aurrerantzean ASASAM) presidente modura.

PARTE HARTZEN DUTE

Lehenak Artziniegako Udaleko Alkate modura, tokiko erakunde horren izenean eta hura ordezkatzuz, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera horretarako gaitua eta eskumenaren jabe izanik.

Bigarrenak, ASASAM elkartearen izenean eta hura ordezkatzuz, G01048594 IFK zenbakiarekin, bere izaera eta ordezkaritza atxikitzen den ziurtagiri bidez egiaztatzen duenak.

*Bi aldeek ahalmen juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa onartzen diote elkarri **Lankidetzahitzarmen** hau eman eta betetzeko, eta horri dagokionez*

AZALTZEN DUTE

I. ASASAM elkarteak irabazi asmorik gabeko elkarte bat dela, gaixotasun mentala duten pertsonen eta horien familiek osatzen dutena, eta bere helburua gaixotasun mentala duten pertsonen kolektiboari osoko arreta bat eskaintzea dela urtean zehar programa eta proiektu ezberdinak garatuz:

- a. *Gizarte ekintzako programa.*
- b. *Esku-hartze psikologiko eta hezkuntzako programa.*
- c. *Psikologia eta hezkuntza zentroa.*



- d. Bizitegi programa.
- e. Gizarteratze eta laneratze programa.
- f. Familia esku-hartze programa.
- g. Esku-hartze komunitarioko programa.

II. Artziniegako Udalak, ASASAM elkarteak eskualde honetan egiten duen gizarte arloko lanari so, eta gainera Artziniegako udalerriko pertsonen mesedetan egiten duena zuzenean, jarduera hau laguntzea erabaki duela, beste modu batzuen artean, Hitzarmen honen bidez, urtean zehar egiten dituzten jarduera ezberdinak garatzeko emango zaion urteroko diru-laguntza arautzekoa.

III. Aplikagarri den legedia zehatz-mehatz betez, eta Toki Erakundeei lankidetzatza-hitzarmenak sinatzeko duten ahalmenari erreparatuz, bi aldeek lankidetzatza-hitzarmen hau formalizatzen dute, horretarako betez hurrengo

HIZPAKETAK

Lehenengoa. Artziniegako Udalaren aldetik Hitzarmen honen xedea ASASAM elkarteak urtean zehar, pertsonen kolektibo honen garapena eta integrazioa ahalbidetzeko garatzen dituen ekimen eta jarduera ezberdinak sustatzen laguntzea da. Diru-laguntza eskuratu ahal izateko diruz lagun daitekeen jardueraren Memoria eta diru-sarrera eta gastuen aurrekontu banakatua aurkeztu beharko ditu.

Bigarrena. Artziniegako Udalak garatzeko sustapen-jardunaren edukia aurkeztutako Memorian deskribatutako jarduerak, ASASAM elkarteak burutuak, ondorio dituzten gastuen diru-laguntzan gauzatzen da.

Hirugarrena. Administrazio honek jarduera sustatzeko emango duen diru-laguntza Memorian deskribatzen diren jarduerak garatzeak dakartzan gastuak ordaintzera egongo da bideratua.

Diru-laguntza sortutako gastuen (Memorian eta jarduerak garatzeko Aurrekontuan zehaztuak) arabera kalkulatu da, ASASAM elkarteak kontzeptu hauetarako jaso ditzakeen beste diru-laguntza batzuen ondorioz dituen diru-sarrerak deskontatuz.

Hitzarmen honekin lotutako udal diru-laguntza LAUREHUN EUROKOA (400€) izango da gehienez urtean.

Laugarrena. Udalaren aldetiko urteko diru-laguntzaren zenbatekoa (gehienez 400 euro) JUSTIFIKATZEKO zenbateko horri dagokion dokumentazioa aurkeztuko da:

- a. Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko jasotako diru-laguntza guztien deklarazioa, erakunde publiko nahiz pribatuen eskutik jasoak.
- b. Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketa guztiak egunean izatearen ziurtagiria.
- c. Jarduerarekin lotutako dokumentazio hau:
 - i. Diruz lagundutako ekitaldiaren Gastu eta Diru-sarreraren Balantzea.
 - ii. Diruz lagundutako ekitaldiaren Jardueren Memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta egin izanaren zinpeko adierazpena)
 - iii. Amaitutako urtearen memoria ekonomikoa (jardueren gastua + funtzionamenduaren gastua), gastu eta diru-sarrerak adierazita, dagozkion fakturak eta ordainagiriak aurkeztuz.

Lehendabiziko hitzartzean islatzen diren baldintzak bete ezean, ez da diru-laguntza onartuko.

Hitzarmen honetako laugarren hizpaketan eskatutako justifikazioa aurkezten ez bada 2020ko urtarrilaren 31rako ez da diru-laguntza emango eta alde zuzenetik ordaindutako kopuruak itzultzeko prozedura bat abiatuko da.

Diru-laguntza hau ez da bateragarri izango Udalak urtero deitzen dituen gainerako diru-laguntzekin.

Bosgarrena. Diruz laguntzeko jarduerak gauzatzeko epea, salbuespenak izan ezean, diruz lagundutako urteko, 2019. urteko, denborazko muga arabera izango da.

Seigarrena. Honakoa izango da diru-laguntza ordaintzeko modua: Artziniegako Udalak gehienez hizpatutako diru-laguntzaren % 90 ordainduko da behin hitzarmena sinatu ostean. Gainerako % 10a hitzarmen honetako laugarren klausulan islatutako dokumentazioa aurkeztu ostean.



Artziniegako Udalak edozein unetan egokitzat jotzen duen informazioa eskatu ahalko du.

Zazpigarrena. ASASAM elkarteak egiten duen publizitate orotan Artziniegako Udalaren lankidetzaz aipatu beharko du.

Zortzigarrena. ASASAM elkarteak Hitzarmen honetan bereganatzen dituen betebeharrak urratzen baldin baditu, diru-laguntzen indarreko araudian erantzukizun eta zehapenei dagokienez aurreikusten den araubidea aplikatuko da.

Eta akordioarekiko adostasun modura, Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuz onartutako Legearen Erregelamendua eta Diru-laguntzen Udal Ordenantza aplikagarri izanik, aldeek lankidetzaz-hitzarmen honen bi aldeak sinatzen dituzte, zuzenketa, zirriborro edo zuzenkizunik gabe, dokumentu hau osatzen duten lau folio horietako bakoitzean, hura betetzeko konpromisoa hartuz goiburuan adierazitako leku eta egunean".

BIGARRENA.-Diru-laguntzaren eskaera aurkeztea eskatzea diruz laguntzeko jardueraren memoriarekin batera, eduki hau izan beharko duena:

-Diru-laguntzaren xedea zehaztea, haren izaera berezia eta interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioa egiaztatzeko arrazoiak adierazita.

-Jardueraren aurrekontu banakatua.

HIRUGARRENA.- *Interesdunari akordio honen berri ematea eta, 2020ko urtarrilaren 31 baino lehen, diru-laguntzaren justifikazioa aurkeztu beharko duela jakinaraztea, Diru Laguntzen Udal Ordenantzako 11. artikuluekin bat etorritik (ALAHO, 32. zenbakia, 2018ko martxoak 16)"*

Alkatea: zenbateko ekonomikoa 400 eurokoa da, eta aurtengoa da hitzarmen hori egiten den lehen urtea, baina 2019ko aurrekontuaren barnean ere jasoa zegoen, eta orain egin dugun bakarria da aktibatzea sina dadin, orduan osoko bilkuratik pasa behar da derrigorrez, Udaltzatza onar dezala Asasam elkarteak, bide batez, bihar Laudion hilaren 20ko martxa aurkeztuko duenak, Laudio Amurrio eta Luiaondo elkarteko dituenak, eta liburutegian txartelak daude 3 euroan edonork eros ditzakeenak modu solidarioan parte hartzeko, eta kasu honetan kontua hitzarmen honi onespina ematea da Udaletik Elkartera 400 euroko ordainketa hori gauzatu ahal izateko, hark ere bere justifikazio edota memoriak aurkeztu beharko baititu, ezer esateko?

Joseba Elejalde Ribacoba: niri arreta ematen dit ASASAM elkarteari 400 euroko diru-laguntza bat ematea eta Aiaraldeako hitzarmenerako 1.100 euro bideratzea. Gaixotasun mentala duten pertsonen eta familien osatutako elkarte batez hitz egiten ari gara eta beno, ez dakit azkenean nola orekatzen den, edo azkenean nola hartzen diren akordioak diru laguntza bat emateko elkarte bati edo beste bati. Nik uste dut elkarte horiek instituzio mailan gure laguntza behar dutela eta udaletatik laguntza eman behar dugu eta senitarteko horiek jarduera guztiak beren etxeetatik ahalik eta hurbilen dagoen zirkulu baten barnean gara ditzatela, lan egin dezatela eta ahalik eta bizitza asebetegarriena bizi dezatela ahalbidetu behar dugu. Eta arreta ematen dit, berritort, 800 euroko alde bat Aiaraldearen alde eta ASASAM elkartearen aurka. Nik Udaltzatza honi eskatuko nioke diru-laguntzak ematerakoan aplikatzen ditugun baremoak datorren urterako apur bat doitu daitezela, izan ere, nire ustez halako elkarteek instituzioen aldetik, udaletatik kasu, babes handiagoa behar dute, ematen dutenagatik eta Aiarako eskualdean eta, beraz, gure udalerrian izan ditzakegun pertsona ezinduei eskaini diezaieketen kontuan izanik.

Alkatea: besterik gabe esan, zuk diozun moduan, 2019ko aurrekontuko eztabaidari begira, hor udal talde bakoitzak bere proposamenak egin ditzake, zer lehenesten duen eta zer ez. Kasu honetan esan nahi dut aurrekontuan hala jasota dagoela, ez da inolako aitzakia, baina egia da ez dakidala azkenean lehenestea ala ez den, baina sar gaitzke balioestera ASASAM elkarterako gutxi ote den edo Udaltzatza eman ditzakeen beste kontzeptu batzuetarako gutxi den, jaietan, adibidez, X diru xahutu dezakegun bitartean. Beti egon daiteke esango duenik "aizu, jai gutxiago eta elkartasun gehiago" nolabait esatearren. Baina tira, uste dut azkenean talde bakoitzak edo are pertsona bakoitzak banaketak egin behar duen moduari buruzko bere iritzia izango duela eta kontu bakarria esandakoa, 2019. urterako dagokion aurrekontuen eztabaidara begira, 2020.



urterako, barkatu, hor bakoitzak bere proposamenak egingo ditu norabide batean ala bestean, eta partiden alde egingo du norabide batean ala bestean, eta ondoren ikusiko da eta eztabaidatuko da.

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu taldekoak (5); Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ-PNV (2) alderdikoak; Joseba Elejalde Ribacoba P.P. taldekoa (1)

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Onartuta geratu da.

10.- EH Bilduren mozioa, elkartasuna Nafarroarekin uholdeak direla eta.

Arkaitz San Jose Martinezek mozioa irakurri du:

“NAFARROAKO ERDIALDEKO UHOLDE LARRIEN AURREAN AKORDIOA

Pasa den uztailaren 8an izandako eurite handiek eta Zidakos ibaiak gainezka egin izanak, bereziki, Nafarroako erdialdeko Tafalla, Erriberri, Puiu, Beire, Pitillas, Leotz eta beste hainbat herri kaltetu zituen, etxebizitzetan, garajeetan eta komertzioetan kalte garrantzitsuak eragiteaz gain, oinarrizko azpiegiturak ere kaltetuak izan zirelarik, baita herrietako komunikazio bideak, kaleak eta landa-bideak ere.

Barasoain, Ezprogi, Garinoain, Leotz, Lerga, Murillo el Cuende, Orisoain, Zare, San Martin Unx

Zoritxarrez, uholde hauek, 25 urteko Zeru Cañada Zorrilla gaztearen heriotza eragin zuten, bizi zen Gardalain herrira kotxez zihoala.

Hondamendi natural honek eskumena duten administrazio publikoen parte-hartzea eskatzen du, baita hain larriki kaltetua izan den eskualde honekiko elkartasun ekonomikoa adierazi nahi duten administrazio guztien diru-laguntza ere. Tafallako eta beste herri batzuetako udalek antolatutako auzolanetan herritar ugarik erakutsitako elkartasun pertsonalaz gain, beste toki-entitate batzuek auzolan ekonomiko bat sustatzea posiblea izanen litzateke, besteak beste, euriteek eragindako kalteak moldatzeko behar diren inbertsioei aurre egin ahal izateko.

AKORDIOA: Guzti honen aurrean, Artziniegako Udalera bideratzen da onar dadin hurrengo

Lehena.- Udal honek 2019ko uztailaren 8an Nafarroako Erdialdean gertatutako euriteen eta uholdeen ondorioz kaltetutako herritarrei eta udalerriei elkartasuna adierazi nahi die, eta, bereziki, Zeru Cañada Zorrillaren senitartekoei.

Bigarrena.- Zentzu berdinean eta udalerrri horietako zerbitzuetan edo azpiegiturretan euriteek eragindako kalteak berreraikitzen laguntzeko, Udal honek kalte handienak jasan dituzten Udalekin harremanetan ipintzeko konpromisoa hartzen du lankidetzarako bide ezberdinak aztertzeko.



Hirugarrena. - Udal honek Nafarroako erdialdean kaltetuak izan diren herriei beraien elkartasuna adierazteko auzolan ekonomikoan parte hartzera animatu nahi ditu herritarrak, horretarako kaltetutako udalek ireki dituzten banku-kontuetan egokia ikusten duten ekarpena eginez.

Laugarrena. - Udal honek adosten du herritarrei akordio hauen berri ematea eskura dituen bitartekoen bidez.

TAFALLA ETA ERRIBERRIKO UDALEK IREKITAKO KONTU KORRONTEAK

TAFALLAKO UDALA

- La Caixa ES85 2100 3696 6122 1015 1810
- Caja Rural de Navarra ES94 3008 0044 4140 3886 8321
- Euskadiko Kutxa ES16 3035 0114 19 114004 4394

ERRIBERRIKO UDALA

- La Caixa ES 98 2100 5012 1002 0009 2687

Arkaitz San Jose Martinez: kontua horretarako gaitu diren kontu-zenbakiak hedatzea ere izango litzateke. Hau da egiten dugun planteamendua eta Udalbatzari onartzeko eskatzen diogu. Alkatea: Ezer esateko?

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: bai, Nafarroarekin elkartasuna adierazten dugun modu berean, Levanterekin ere elkartasuna adieraz dezakegula, han ere asko sufritu baitute, eta sei dira biktimak.

Arkaitz San Jose Martinez: elkartasuna beti da positiboa. Guk mozio hau aurkezten dugu gure ingurune hurbila dela uste dugulako, Euskal Herri barruan delako, eta horregatik. Edozein kasutan mozio bat aurkezteak ez du oztopatzen beste batzuk aurkezteko aukera.

Joseba Elejalde Ribacoba: lehenik eta behin, Alderdi Popularretik DANA ekaitzak kaltetutako udalerrietako biztanle guztiakin elkartasuna adierazi nahi dugu, hala Nafarroan uztailean, Tafalla, Erriberri eta mozioan agertzen diren udalerrri guztiakin, nahiz DANA ekaitzak kaltetutako guztiakin, irailean Nafarroan, Mutiloa, Beriain eta Kordobila, Malagan, Alahurin el grande, Alacant, Orihuela, Dolores, Castrar, Rojasles, Almoravi et abeste hainbat, Ciudad Real, Cuenca eta Albacete Gaztela Mantxan, Balear uharteak, Valentzia eta Murtzia. Irailean hildako sei pertsonen eta uztailean hildako pertsonaren senitarteko eta lagun guztiari nire babesa adierazi nahi diet. Bigarrenik, ados gaude mozioaren sakoneko gaiarekin. Harritu egiten nau, EH-Bilduk aurkeztutako honetan, ez jasotzea tanta hotzak edo DANA ekaitzak kaltetutako udalerrri guztiak (maila handiko depresio isolatua), hala Nafarroako udalerrietan nola Espainiako gainerakoetan. Hirugarrenik, mozio honetan kaltetutako erkidego guztiak barnera daitezela eskatzea.

Alkatea: guk, hasiera batean, hau da egiten dugun mozio-proposamena. Kontziente gara eta, horren baitan jarduten dugu, eremu demografiko batean gaudela, edo herrialde batean, kasu honetan Euskal Herrian, eta horrenbestez Euskal Herritzat ulertzen dugunaren barnean gertatzen denera mugatzen gara. Egia da Levanten ere gertatu dela, ziurrenik Europako beste leku batzuetan gertatuko zen bezala, ziurren Ekialde urrunean gertatuko zen moduan. Azken batean gure eremuari begiratzen diogu, izan ere, eztabaida hau beste eztabaida batzuetara eramanez dezakegu eta beste egoera batzuetara, non elkartasuna adierazten edo kondena azaltzen edo dena delakoa egiten aritu gaitzekin, 25 kilometrorra edo 50 kilometrorra gertatu diren egoerak baina 200 kilometrorra gertatu diren antzeko egoerak, muga geografiko bat dagoelako edo edozein dela arrazoia, ez dugu hala aintzatesten. Orduan ildo horretatik, gure mozioa Nafarroan gertatu denera mugatzen da, gure eremu geografikoa baita esan dezagun, horri dagokio. Beste taldeetako batek aurkeztu nahi badu edo aurkeztu nahi izan badu, edo aukera izan badu aurkezteko Nafarroaren kasuarekin soilik ez Estatuko beste leku batzuekin edo Europako beste leku batzuekin edo edonon elkartasuna erakusteko mozio bat, bada tira, aukera



dauka. Kasu honetan EH-Bilduren mozioak Nafarroan gertatutakoari heltzen dio, eta hori da guk onartuko duguna.

Joseba Elejalde Ribacoba: esan duzunari buruz ñabardura bat, Nafarroa da Nafarroa, eta Euskadi da Euskadi. Euskadi Bizkaia, Araba eta Gipuzkoak osatzen dute, Nafarroa da Nafarroa. Ez ditzagun gauzak nahasi. Eta aurrekoari helduko diot, uztailean DANA ekaitzak Nafarroa astindu zuen, zuk ongi esan bezala, zenbait herri, eta irailean tanta hotza gertatu zen, beste DANA bat, zuek aurkezten duzuen mozioan islatzen direnaz aparteko beste udalerrri batzuetan kalteak eragin zituen. Azken batean, esaten duzunez "eragin-eremu geografikoa" ados, baina saiatu eragin-eremu horretan uztailean nahiz irailean kaltetutako udalerrri guztiak jasotzen, baina ez nahastu orain Nafarroa Euskadi dela edo Euskadi Nafarroa dela, izan ere, hori inondik ere, oraingoz ez da hala, eta ez dagokio esatea. Eragin-zona modura? bikain. Baina nik berriro diot, eta idatzia sartu behar bada mozioa sartuko da. Nik uste dut hemen jaso daitekeela EAJ udal taldeak esan duena zein Alderdi Popularreko udal taldeak esan duena, eta mozio horretan gure ekarpenak aurkeztu eta ez aritu eztabaidan dagoeneko nahiko hondamendia den kontu baten inguruan, zenbait pertsonak dena galdu baitute eta gu hemen eztabaidatzen aritzea elkartasuna gutxi batzuekin ote den, guztiekin, guregandik hurbilago dagoen zona geografiko batekin, edo Espainia osoko mailan. Bakoitzak ikusteko bere modua du, baina tira, berriro diot, irailean ere izan ziren Nafarroan zenbait udalerrri, Mutiloa, Beriain eta Kordobila, tanta hotzaren ondorioz arazoak izan zituztenak, eta ez dira zuen mozioan jasotzen.

Arkaitz San Jose Martinez: besterik gabe, ez dut uste horrek eztabaida handirik merezi duenik. Edozein kasutan mozioaren helburua bikoitza da, herri batzuekin gertakizun klimatiko jakin batekin lotuta gure elkartasuna adieraztea, eta funtsak biltzeko dagoen kanpaina bat gure egitea. Kanpaina gehiago baldin badaude horiek ere osoko bilkura honetara ekar daitezke, onartu eta abar. Gauza batek ez du bestea kentzen. Mozio hau aurkeztu duguna da, besterik gabe. Agian osokoaren aurretik izan genezakeen eztabaida hau eta areagotu egin zitekeen ala ez. Edozein kasutan, hau da dakarkigun proposamena.

Joseba Elejalde Ribacoba: talde guztiekin ere egin zitekeen kontsulta, eta esan, aizu, ongi deritozue baterako mozio bat ateratzea? Orduan bakoitzak bere ekarpena egingo zukeen, eztabaida tu egingo genukeen, eta osoko honetara adostutako zerbait ekarriko genuke. Azken batean guztiak du bere arrazoia, baina noski, arrazoia sarritan mozioa aurkezten duenaren irizitik abiatzen da. Mozioa aurkezten da eta ondoren ez dugu malgutasun pixka bat izan nahi, malgutasuna, oposizioko bit aldeetatik neurrigabekoak ez direla uste dudak kontuak aintzatesteko, ez dira inolako erokeria, izan ere, azken batean kontua da esatea "aizu, begira, EH Bilduk bere mozioan egin duenaz gain gaur hemen egin diren bi proposamenak hartuko ditugu" eta osoko bilkurarekin jarraitzen dugu.

Alkatea: beno, egia da, era berean, oposizioko bi taldeek nahikoa denbora izan duzuela mozio alternatibo bat aurkezteko, edo premiazko bat aurkezteko osoko bilkuran, hori da adibidez EH Bildu taldeak joan den legealdian sarritan egin duena. Gobernu taldearen aldetik mozio urriren bat aurkeztu izan denean, EH Bildu taldetik alternatibaren bat aurkeztu izan da, epez kanpo izan arren, premiaz eztabaida zedin, eta azkenean hemen bi eztabaidatu dira, eta baita hiru mozio ezberdin ere, gerora norberak nahi duena bozkatzeko aukeraz. Denbora izan da. Eta ondoren berriro esan aurreko legealdietan ere noizbait adierazi dugun zerbait, hemen gauden alderdi guztiok dugu mozioak aurkezteko gaitasuna eta aukera. Eta behin baino gehiagotan esan dugu. Funtsean, urte hauetan, EH Bildu izan da osoko bilkura honetan mozioak aurkezten zituen talde bakarra, eztabaida zedin, ondoren gainerakoak etorri eta bat egiten zuten, babestu egiten zuten, edo aldatzen saiatzen ziren. Uste dut guztiok dugula egiteko aukera, eta EH Bildu taldeak Nafarroako zenbait herririkiko elkartasuna adierazteko mozio bat aurkezten duen moduan, kasu honetan kalte batzuen ondorioz, eta ondoren klima-aldaketaren kontuarekin konpromisoei buruzko beste bat aurkezten duen moduan, gainerako alderdiek ere gaitasuna dute, kaudimena dute, eta gauza bera egin dezakete, eta beren mozioak aurkez ditzakete EH Bildu taldea mozioak aurkez ditzan itxaron gabe, ondoren horiekin bat egin edo horiek aldatzen saiatzeko. Adierazteko besterik gabe.

Joseba Elejalde Ribacoba: gauza bat oposizioan egotea da, eta zuk badakizu hori ni bezalaxe oposizioan egon baitzara, gauza bat da zuk idatzi bat sartzea Udal honetan, batzorde honetan,



zerbait eskatuz, eta sarritan batzorde horiek luzatu egiten dira denboran, deitzen direnean deitzen dira, eta horregatik sarritan premiazko mozioaren alde egiten da arazo baten gainean eztabaidatzeko edo herritarrengan eragina izan dezakeen zerbaiten gainean aritzeko. Kontu ezberdina da Gobernuan gehiengo osoz egotea eta premiazko mozio bat aurkeztea. Edo mozio bat besterik gabe, barkatu. Nik uste dut zuk ahalmena duzula une honetan, Alkate modura, eta Udalbatza honetako gehiengo modura, hartu, batzorde bat egin, une jakin batean esan, oso ongi iruditzen baitzait, txalotzen dut zuen lana, osoko bilkuran honetan dauden bi arazo larri azpimarratu dituzue eta, hala klima-aldaketaren kontua nola uholdeena, baina azken batean guztia sartuz akordio bat erdietsi zitekeen, edo bi akordio ezberdin egin zitezkeen, eremu geografiko bakoitzeko bat, eta beste bat bakoitzari hobeto edo okerrago iruditu ahal zaigulako, niretzat eragin berdina baita nafar baten kasuan edo Albaceteko baten kasuan, berdin zait, berdin sentitzen naiz. Eta uste dut hori dela aldea. Ezberdintasuna da zuk esaten duzula "guk iaz, edo lau urtez mozioak aurkeztu ditugu". Eta Alderdi Popularrak ere aurkeztu zituen. Zergatik? Aukera bakarra zelako osoko honetara iritsi eta eztabaidatzeko, eta zuk nik bezala dakizu hori, gauza bera jasan duzulako. Eta are gehiago, Alderdi Popularrak aurkeztu zituen mozio gehienak onartu egin zituen Bilduk, Bilduk aurkeztu zituen mozio gehienak onartu egin zituen Alderdi Popularrak. Zergatik? Gobernuko taldea beste esparru batean zegoelako. Ez esan zuek aurkeztu dituzuenik mozio guztiak, Alderdi Popularrak mozio pila bat aurkeztu baititu, eta horietan, zorionez, Alderdi Popularreko bozeramaile modura, Bilduk babestu egiten zituen. Mozio garrantzitsuak, oso garrantzitsuak. Gizarte-ongizatekoa, horietako bat, anbulantzien gaiarekin, eta zuek gauza bera. Museoaren gaiarekin esango dizut zenbat mozio sartu ditugun elkarrekin zuek eta nik, eta guztiak bi alderdiek onartuta. Zergatik? Hori zelako egonkor zegoen prozesu bat arintzeko modu eta era bakarra. Horregatik esaten dizut mozioak egiteko orduan ez dezazula esan "egin genezakeen...", genezakeen. Nik lasai asko zuen mozioan aplika zitezkeen hiru puntu ekarri dizkizut, eta alternatiba bat egin zitekeen.

Alkatea: eztabaidan sakon sartu gabe, eta luzatu gabe, gure mozioa kasu honetan irailaren 11n dago aurkeztua. Hau da, uste dut gainerako taldeek nahikoa denbora izan dutela begiratzeko irailaren 11tik hona, eta konturen bat ekar zezaketen. Beraz, guztiok apur bat horrela ibili baldin bagara, uste dut guztiok gurela aukera, denbora zegoen.

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu taldekoak (5); Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ-PNV (2) alderdikoak; Joseba Elejalde Ribacoba P.P. taldekoa (1)

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Onartuta geratu da.

11.- EH Bilduren mozioa, klima-aldaketaren gaineko neurriei buruzkoa.

Alkatea: hau klima-aldaketaren gaineko mozio bat da. Nik ez dut hitz hori atsegin, izan ere, klima beti aldatzen da, nahiago dut planetaren berotze bizkortua esan.

Arkaitz San Jose Martinezek mozioa azaldu eta irakurri du: gero eta gehiagotan ikusten dugu nola gizarteak, eta are gehiago azken egunotan, batez ere jende gazteak bultzatuta, ahal den heinean klima-aldaketa bere osotasunean galgatzeko neurriak har ditzatela eskatzen dien instituzioei, eta instituzio bakoitzak neurri egokiak har ditzala bakoitzari dagokien erantzukizunaren arabera, gizarteak ere egin behar duen moduan, norbanakotik kolektibora. Ildo horretatik mozio bat aurkezten dugu, orain irakurriko dudana, eta ez du soilik azpimarratzen udalaz gaindiko instituzioek egin dezaketena, baizik eta hurbileneko administrazioetik egiten



saiatuko garen hori ere azpimarratzen du, Udaletik. Horregatik konpromiso jakin bat ere baitaratzen du.

"KLIMA-ALDAKETAREN AURKA KONPROMISO ZEHATZAK HARTZEKO MOZIOA

ARRAZOIA

Larrialdi Klimatikoa datozen urte eta hamarkadetako agenda baldintzatzaera etorri da, gure ongizatearentzako mehatxu nagusienetarikoa baita, benetako zibilizazio erronka bat. Mundu mailako eta Euskal Herriko egoera eta joerak ez du baikortasunerako tarte handiegirik uzten, are gutxiago geldotasunerako. Gazteentzako dagoeneko kezka nagusia bihurtu da, ez bakarrik larrialdia, baita gaiari ematen zaion erantzun politiko eskasa ere.

Azken urte luzeetan komunitate zientifikoak aldaketa klimatikoaren bilakaeraren inguruko abisuak eta jakinarazpenak igorri ditu. Aldaketa klimatikoa, Berotegi Eftuzko Gasen isuri masibo baten ondorioz gertatzen ari da, eta isuri horien arrazoi nagusia, bakarra ez bada ere, gure metabolismo sozioekonomikoa mantentzeko erretzen ditugun baliabide fosilen erabilpenean datza. Aldaketa klimatikoa, beraz, guk eragiten dugu nagusiki, eta dagoeneko ondorioak atzematen hasiak gara.

Urtez urte argitaraturiko txostenetan, egoera kaskartzen ari denaren zantzuak ditugu. Nazioarteko hainbat erakunde eta lantaldeek argitaratzen dituzten txostenetan gero eta argiago esaten da klima eta energia politikan, eta ondorioz gure egunerokotasunean, eraldaketa sakon bat, iraultza bat, eman behar dela, baldin eta egoerari aurre egin nahi baldin badiogu eta aldaketa klimatikoaren efektu bortitzenak pairatu nahi ez baditugu. 2018ko urrian, IPCC Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak, plazaraturiko txosten berezi batean, tonua altxa zuen indarrean dauden politikek behar besteko anbiziorik ez dutela salatuz, eta elektrizitatearen, nekazaritzaren, garraioaren eta industriaren sektoreetan aurrekaririk gabeko aldaketak eskatuz.

2018ko azaroan, Nazio Batuen Ingurumen Panelak aditzera emandako txostenak egoera larria dela ohartarazten du, esfortzuak areagotzen ez badira hondamendira goazela azpimarratuz.

Gaia bere osotasunean ikusirik, argi dago ataka batean gaudela eta orain arte proposatu eta egindakoa berraztertu beharrean gaudela. Ahal dela, eta industria iraultza aurretiko egoerarekin alderatuta, 1,5°Cko tenperatura igoera ez gainditzea helburutzat zuen 2015eko Parisiko Akordioa betetzeko, orain arte emandako pausoak guztiz ez-nahikotzat jo beharrean gaude.

Hasieran genion bezala, zibilizazio erronka baten aurrean gaude, eta aurrez aurre Jaurlaritzaren eragin esparru eta ahalmenak gainditzen dituen lanak baditugu ere, egoerak partekaturiko esfortzu bat eskatzen du.

Gure ustetan, ipar orratza ahalik eta azkarren karbono isurietan neutroa izango den Euskal Herri baterantz begira jarri beharrean gaude, eta horretarako ezinbestekoa da eraldaketa azkar eta eraginkorrak egitea. Prozesu honek gure jendartearen inplikazio anitz eta sakonak ekarriko ditu, bai ehun produktiboan, bai mugikortasunean, bai lurralde antolamenduan eta abar, horregatik deritzogu pausu azkar eta eraginkorrak ematea ezinbestekoa dela.

Mozio honen bitartez, egoeraren larritasuna aitortzea dugu helburu, Larrialdi Klimatikoari behar besteko arreta ipintzeko asmoarekin, aurrerantzean politika publiko guztiak Larrialdi Klimatiko egoeraz kutsa daitezen.

Hori horrela, EH Bildu Artziniega Udal taldeak honako **MOZIOA** aurkezten du:

1. Artziniegako Udalak larrialdi Klimatiko egoera deklaratzeko du.
2. Artziniegako Udalak, Jaurlaritza larrialdi klimatiko egoera deklaratzera eta horrekin bat datozen premiazko neurri egiazko eta ekitatiboak hartzera, eta honi aurre egiteko beharrezkoa den karbonogabetze prozesua 2040. urtera aurreratzeko moduko plangintza eta politikak abiatzera premiatzen du.



3. Artziniegako Udalak, Jaurlaritza aldaketa klimatikoaren eraginez pairatuko ditugun ondorioetara egokitzeko neurriak hartzera premiatzen du.

4. Artziniegako Udalak, bere eskumenen baitan, Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko politika eraginkorrek garatzeko konpromiso irmoa adierazten du.

5. Artziniegako Udalak Aldaketa Klimatikoaren eragiten duten udal eskumeneko faktore guztien inguruko diagnosi bat eta 4/2019 Jasangarritasun Energetikoaren Legearen garapena udalerrira egokitzeko hurbilpen lan bat egingo du urtebeteko epean.

6. Artziniegako Udalak, udalerriko egoeraren diagnosia kontuan hartuta, prozesu parte-hartzaile bat abiatuko du herritarren, auzoen eta beste edozein eragileren ekarpenak barne bilduko dituen plangintza bat osatzeko 2020. urtean zehar.

7. Artziniegako Udalak, udalerriko herritar, eragile eta auzoekin elkarlanean, plangintza hau aurrera eramateko beharrezkoak diren bitarteko tekniko zein ekonomikoak bermatzeko konpromisoa hartzen du, bere gaitasunen arabera izanik plangintza gauzatzeko epea.

8. Artziniegako Udalak bat egiten du, larrialdi klimako egoera dela medio, nazioarte mailan deitutako mobilizazioekin.

9. Artziniegako Udalak Arabako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako trantsizio ekologikorako ministerioari bideratuko die onartutako mozioa".

Alkatea: inork zerbait esan nahi badu.

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: bai, azken orduko mozio bat izateaz gain, guk 20-30 agendarekin bat gatzela adierazi, eta Eusko Jaurlaritzak larrialdi klimatikoaren inguruan egindako deklarazioarekin.

Joseba Elejalde Ribacoba: Alderdi Popularra ados dago klima-aldaketa geldiarazteko beharrezkoak diren politika guztiak eratzearekin. Ezinbestekoa da hori sorrarazten ari diren ekintzak aztertu eta horiek arintzeko inbertsioak egitea. Baina udal esparruaren barnean, nola hasi lanean gerta daitezkeen ekiditeko? Herritar guztiak hezi behar dira eta ingurumena degradatzea ekiditeko prozesua gure etxeetan hasten dela ohartarazi, birziklapenean, gure azturretan, erretzean, festetara irtetean, kirola egitean, landa giroan jaten dugunean, eta abar. Ezin da ongi ikusia egon, edo ezin da ezaxolarena egin, norbaitek zigarretan bat lurrera botatzen duela ikustean, festa egitera atera botilekin eta guztia lurrean botata uzten dugunean, kirola egitera atera eta platan-azala edo barra energetiko baten plastikoa lurrera botatzen dugunean, landara jatera atera eta gure janari arrastoak edo latak bertan uzten ditugunean. Haurtzaro samurrenetik hezi eta kontzientziatu behar da ingurumenarekiko begirunez jokatzera, txikle bat edo beste edozein goxoki ez dela lurrera bota behar erakutsiz. Gauza errazak ere egin daitezke, esate baterako, auzoetan paperontziak ipini, besterik gabe, paperontziak ipini, edo inork poltsak jasotzen ez dituelako edo poltsarik ez izateagatik paperontziak itxita dituztenean urbanizazioekin akordioetara iritsi. Ezin dugu gure burua babestu esanez ez direla udalerrikoak. Hori dator udalerrian paperontzi batzuekin lotutako arazo bat egin delako, itxita zeuden, eta ingurune guztia zikinkeriaz beteta zegoen. Eta uste dut horra Udalaren erantzukizuna ere iritsi behar dela eta akordioak erdietsi behar ditu, edo langile bat bidali behar du poltsa horiek aldatzera zona horiek ez daitezkeen zikinkeriaz beteta egon eta ingurumena degradatuz. Mozioan ipintzen duenez, gazteak dira lekukoa hartu dutenak, klima-aldaketa honen aurkako borrokaren aldarria daramatenak, baina asko dira manifestaldien ondoren parkeak, kaleak eta hondartzak zabortegei baten antzera utzi dutenak. Gema Igual Santanderko alkatearen komunikatu bat irakurriko dut, klima-aldaketaren aurka protestara irten ziren gazte horiek hiriko hondartzak, lorategiak eta parkeak zer-nola utzi zituzten ikusi ondoren.

"Gizarte-sareak erabiliko ditut Santanderko Udaletik abian jarriko ditugun neurrien berri eman eta zuegan helarazteko.. Ez naiz eztabaidetan sartu zalea, baina gaur ezin naiz isilik geratu. Tamalgarria da Santander zaborrez beteta esnatzea botila-festaren eta horietan aritzen direnen portaera kaskarraren eta zibismorik ezaren ondorioz. Ongi ezagutzen dut tamalez maiz errepikatzen den egoera hau. Udalak eta herritarrek dira kaltetu nagusienak, izan ere, horrek garbiketa-kostuak areagotzen ditu eta, hiriaren irudia ez ezik, hondartza eta lorategiak kaltetzen ditu. Gaur garbiketa-zerbitzuak indartu behar izan dira zazpi pertsonekin eta bitarteko mekanikoekin gau bakarrean sortutako 700 kilogramo hondakinak jasotzeko. Guk isunak ipini eta



garbitu egin dezakegun, baina ezin dugu erantzun komunitatean elkarbitzen ez dakiten pertsonen heziketarik ezaren aurrean. Lotsagarria da eta espero dut gaur sareetan ageri diren irudiak baliagarri izango direla kontzientziatu eta errespetu gehiagoz joka dezagun".

Era guztietako mozioak egin ditzakegu, klima-aldaketaz hitz egin dezakegu, baina ez baldin bagara jabetzen klima-aldaketa guk bakarka egiten ditugun ekintzen baitan dagoela, ez goaz inora, multinazional handiak, kalkulatu ez dutena sortzen ez dutelako beste herrialde batzuei karbono-monoxidoa erosten dieten herrialde azaleratu berriak alde batera utzita... Honen inguruan gehiegi eztabaida dezakegu. Baina errealitatea argi dago, edo txikitatik hasten gara kontzientziatzen klima-aldaketaren ondorioak gure etxeetatik arintzen has gaitzkeela eta gure eguneroko azturekin, edo ez gara inora iritsiko. Hainbat adibide ipiniko ditut, azkarra izaten ahaleginduko naiz, asko dira eta, ohikotasunez erabiltzen dugun edozein tresnak degradatzeko zenbat denbora behar duen ikusteko. Pila arrunt batek 3.000 ur litro kutsa ditzake eta 500 eta 1.000 urte bitarte behar izan ditzake degradatzeko. Pila batek. Uste dut guztiok bota ditugula pilak edukiontzi marroira, nik uste dut hemen gaudenen artean, norbaitek eskua jaso eta ezetz esaten ez badit, baina ni izan naiz lehenengoa botatzen. Horregatik nire buruari aplikatu behar diot kontzienteagoa izan behar dudala birziklatzeari begira egunero egin behar dudana. Beirazko botilak 4.000 urte. Latak 100 urte. Tabakoa, zigarreta batek, 1-11 urte bitartean. Txikleek 5 urte. Zapatilek 200 urte. Fruta, hori baita lehen esan dudana, sagar-azal batek eta abarrek, 3 hilabete. Tetra brickak 30 urte, eta jarraitu egin dezaket. Ados nago mozioarekin, noski, ados nago gobernuek ekimena hartu eta karbono-dioxido gutxiago sortzeko politikak egin behar dituztela, planeta gutxiago berotu dadila egin dezatela, egoera horren ondorioz, suteen ondorioz, degradatutako zona horiek berreskuratzen joan ahal izateko, baina berriro diot, mozioak ongi esaten duen moduan, hurbileneko instituziotik, hots, Udaletik, edo herritar guztiak kontzientziatzen ditugu eta gure buruak kontzientziatzen ditugu, gure esku baitugu honek abiadura geldiezina har dezan ekiditea, birziklatuz eta haur garenetik gauzak ongi eginez, eta balioetan heziz eta zibismoan heziz. Gertatu ezin dena da ni gaur ateratzea aldarrikatuz mundua zabor hutsa eginda dagoela eta bart gauean 500 edo 1.000 pertsona elkartu eta botila-festara joan eta nire hiriko kale guztiak, edo % 50, berdin zait, zabortegi baten modura uztea. Hori ez da klima-aldaketaren aurka borrokatzea. Hori hedabideetako argazkietan ateratzea da, eta oso ongi geratuko naiz. Badago oso kontzientziatuta dagoen jendea, eta pozten naiz, eta bada jendea, ziurrenik han zirenak, egun horretan, ostirala zenez, eskola zutelako edo gainerako atzetik joatera mugatu zirelako. Baina jendeari kontzientziatu behar zaio edo beheratik, etxetik, hasten gara, edo ez dugu ezer lortuko.

Arkaitz San Jose Martinez: niri, esan duzu tamalgarria dela Santander zabor hutsa eginda agertzea, sina ditzaket esan dituzun gauzak ere, orain, argitze aldera soilik, hori hondakinen esparruari dagokio, eta badu zerikusia, baina klima-aldaketaz hitz egiten ari garenean beste gauza batzuez hitz egiten ari gara, eta niri iruditu ahal zait oso tamalgarria Santander zabor hutsa izanda agertzea, baina tamalgarria iruditzen zait lehendabiziko gogoeta izatea "guztia zikinkeriaz beteta utzi duzue". Lehendabiziko gogoeta, hots, esaten ari zaizkigu batez ere azturak aldatzeari dagokionez, garraioaren kontuan, energiaren gastuan, nola mugitu behar garen, planetan zer nolako lorratza uzten dugun, batez ere, eta hondakinetatik askoz ere harago doa. Edozein kasutan, erabat ados nago, uste dut hondakinak kudeatzeko eredua aldatu egin behar dela, batez ere murriztea azpimarratu behar da, hobeto biltzeko zer-nola egin ikusi behar dugu, izan ere, edukiontzi asko ditugu baina ez dakit zein neurritan izaten ari diren eraginkorrak. Baina, edozein kasutan, hori Kuadrillan planteatu izan dugu beste batzuetan, Kuadrillan hartu beharreko erabaki bat da, eta ea orain zenbait urte geratzen zaizkigula zerbitzua berri arte, berriro heltzen diogun gaiari garaiz ibil gaitzen. Izan ere, gero gertatzen da bilketa-zerbitzuaren kontratazioa amaitu egiten dela eta korrika eta presaka eta egiten ari ginena errepikatu beharrean gaude bereziki emaitza onak ematen ari ez denean. Hondakinei dagokienez ere bai, eta jende gaztearekin ere landu beharrekoa da. Baina administrazioetatik egin daitekeena azpimarratu nahi genuen batez ere. EAJ taldeak esan duenaren inguruan, 20-30 agenda ez dela nahikoa uste dugu. Errealitate bat aipatzen du eta, gure ustez, ez litzateke hori aipatu behar. Esaten ari gara berotegi-efektuko gasen emisioa murriztu beharko genukeela, eta esaten ari gara gaur egun Euskadin berotegi-efektuko gasen emisioan urtean % 5 areagotzen ari garela, batez ere, CO2, atmosferara doana.



Hau da, oso ondo gaudela diogunean autokonplazentzia kutsu bat dagoela uste dugu, udalerrri gehienek badituzten beren ekintza planak, ez klima-aldaketaren aurkakoak, baina bai iraunkortasunekoak, eta ikusten dugunez, 2.000. urtetik 92an Rioko gailurra izan zen, 2.002. urtearen bueltan, 2.004an, programa bat jarri zen martxan eta suposatzen zen gertatzen ari diren gauza guzti hauek aurreratu behar zizkigula guztioi, eta zer da eta, berdin jarraitzen dugu. Horregatik halako estrategiak oso ongi daude, "hau da gure hautua" esateko balio dutenak, baina uste dut, emaitzetan erreparatuz, ez garela betetzen ari duela 20 urte egingo genuela suposatzen zenarekin, beraz ezinbestekoa da lanean jarri eta oraintxe bertan aldatzen hastea, eta oraintxe bertan neurriak hartzen hastea.

Joseba Elejalde Ribacoba: ohar bat, izan ere, mozioan proposatzen duzuen harira dator apur bat. Gaur goizean El Correo egunkarian irakurri dut Europako Batzordeak egiten duen erregulazioa etxetresnen balio-bizitza luzatzen duen arau berri batekin, ezta? Bada hemen aipatzen duenez, etxetresnak fabrikatzen dituzten enpresa guztiak derrigortuko dituzte 15 urtetan ordeko piezak izatera arropa-garbigailu batek 5 urte iraun eta aldatu beharrean, zertxobait gehiago iraun dezan. Izan ere, gaur egun esaten dizute konponketa zertxobait garestiagoa aterako zaizula, piezarik ez dagoelako, berri bat erostea baino. Eta hemen berotegi-efektuaren murrizketaren ondorioz 46.000 milioi tona kalkulatu dira. Esan nahi dizut horiek direla azken batean egin behar diren politikak, ezta? Eta kasu honetan Europar Batzordea, eta maila nazionalako politiketatik, edo eremu hurbilago batean Eusko Jaurlaritza dira derrigortu behar dutenak, esate baterako, supermerkatu batean bilduta erosten ditugun produktu guztiak ez daitezten plastiko batekin etorri. Izan ere, absurdua da plastikozko poltsa batengatik 5 zentimo kobratzea eta ondoren egiten dituzun erosketen % 99 plastikozko bilduta etortzea. Nik ez dakit mikra gutxiago direnez kobratzen ez dizkizuten, edo horrek gutxiago zikintzen duen, eta klima-aldaketan eraginik ez ote duen, edo lehenago degradatzen ote diren, baina lotsagarria dena zera da, hemen, Espainian, poltsa bat erosteagatik bakarrik 5 zentimo ordaindu behar izatea. Orain, gainerako erosketak guztia bilduta eta plastikozko ontziratuta ematen badizute, nik ez dakit merkaturatzen duten enpresek isurien kanon bat izango duten, baina iragarria da, 5 zentimo ipintzea plastikozko poltsa bat erosteko eta gainerako guztia plastikozko poltsetan bilduta egotea. Eta ondoren bada beste datu bat zerikusia duena adibidez, ez gure barneko esparruarekin, hori ere oso garrantzitsua izanik, Euskadin 302 ekoizpen-planta ditugu non euskal automobilgintzak bere jarduera garatzen duen, 32 herrialdetan hedatuta dagoena, hala azaleratu berri diren merkaturaren bidez nola merkatu tradizionalen bidez. Guk Euskadin ditugun arazoez hitz egiten dugu hemen, ongi esan duzun bezala iaz baino % 5 emisio gehiago, baina noski, ehunka enpresa ditugu munduan zehar sakabanatuta. Hor Eusko Jaurlaritzak edo Espainiako Gobernuak ezingo dute Espainian aplikatzen dena aplikatu, eta herrialde bakoitzak une horretan duen legeria aplikatuko du. Eta lehengora itzuliko naiz, ni azaleratu berria naizen herrialdea atmosferara CO2 askoz gehiago igorri behar dudana, azaleratu berri ez den herrialde bati erosten diot bere kanona, eta orduan horretan gaude. Azkenean gertatzen dena da herrialde guztiak ados jartzen ez diren bitartean, eta badira azaleratu berri diren herrialdeak edo zenbait herrialde oso industrializatu erdietsi diren akordioak sinatzeko prest ez daudenak, eta azkenean ez dugu ezer lortuko. Nire aldetik ados nago mozioarekin.

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: 20-30 agendaz gain, deklarazio klimatikoa ere aipatu dut, non, premiazko neurrien bidez, asmoa Euskadi karbonoaren emisioari dagokionez neutroa izatea baita.

Alkatea: nik Josebak aipatu duenari nabardura bat egin nahi diot, zona bateko paperontzien kontuarekin, hemengo hirigintza-sektore bat. Besterik gabe azpimarratu paperontzi "santu" horiek lur pribatu batean daudela, ez dago Udalak harrera eginda, beraz, artez edo moldez udaletxera etorri zaizkigunari esanez "aizu, paperontzi horiek ez dira jasotzen", esan dieguna da paperontzi horien bilketa ez dela Udalaren eskumenekoa, baizik eta hirigintza-sektore horretako jabeakideena. Sektorre horretako jabeak horietako batekin hitz egin dugu, hala paperontzien inguruan nola duela zenbait hilabete ura galtzen ari zen iturri baten inguruan, ez baitzen irtenbiderik ipintzen, eta azkenean gaurkoz iturriaren arazoa konponduta dago, dagoeneko ez du ura galtzen, eta paperontziekin egin zena izan zen paperontzietako zaborra bildu, baina uste dut prebentziozko neurri modura gehiago paperontzia tapatu egin ziren, teoriarik paperontzi horiek



obran daude oraindik, nolabait esatearren, urbanizazio horretan ez baitago harrera eginda. Udalak egin ezin duena da, uste dut, eta ziurrenera hala esango digute teknikariek, kontua da ez garela sartuko, nolabait esatearren, deitzen ez gaituzten lekuan. Izan ere, hirigintza-sektore horretan aurreko Udala sartu zen obra bat egitera deitu ez zuten lekuan, eta nahiko kaltetuta irten zitekeen eta azkenean ez zen atera. Baina kasu honetan ez dugu arazo bera errepikatuko. Orduan tira, kexa hori helaraztera udaletxera bertaratu denari dagokion azalpena eman diogu.

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: iturriaren konponketa beraien gauza izan zen.

Alkatea: ez zen hainbeste konponketa, baizik eta uraren igarotzea mozteko ixteko giltza bilatzearen alde egin zen. Botatzen ari ziren, azkenean udaletxeko langileak joan ziren, jabea joan zen, begiratu zuten, azkenean giltza aurkitu zuten ez zela agertzen baitzirudien, eta ura moztu zuten. Ondoren iturria konpontzearena jabeakideen kontua izango da.

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu taldekoak (5) taldekoak; Joseba Elejalde Ribacoba, P.P. alderdikoa (1);

Kontran:

Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderdikoak (2);

Abstentzioa:

Batere ez.

Onartuta geratu da.

12.- Kantauriko Urkidetza ur partzuergoaren korporazioko ordezkarien izedapena.

Alkatea: orain hasieran premia sartu dugun puntua bozkatuko dugu.

"Gaia: Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoaren Korporazioko ordezkarien izedapena

"Ikusirik 2019ko ekainaren 26an Udaltzarak hartutako akordioa.

KONTUAN HARTUZ, Artziniegako Udalarik Kantauriko Urkidetzaren Asanbladan bi ordezkari dagozkiola, eta Antolaketa Saioan bakarria izendatu zela.

Toki Erakundeetako Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 38, c). artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, Alkatetza honek Udaltzarak proposatzen dio:

Lehena.- Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoaren Korporazioko ordezkari modura hauek izendatzea:

URKIDETZA - UR PARTZUERGOA (2)

Titularrak: Joseba Vivanco Retes.

Arkaitz San Jose Martinez.

Ordezkoa: Unai Gotxi Kastrexana

Bigarrena.- Izendapena izendatuei eta Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoari jakinaraztea".

Alkatea: bere garaian, ekainaren 26ko eraketa bilkuran titular bakarria izendatu zen, kasu honetan Alkatea, erreferentzia modura aurreko legealdiko karguen izendapena hartu genuelako. Baina ondoren Urkidetzatik jakinarazi ziguten bi ordezkari genituela, ez bat, eta orduan aste honetan jakinarazi ziguten Urkidetzaren asanblada dagoela hilabete honetan eta Artziniegaz



gain, beste udalen batek beste ordezkariaren bat izendatzea falta zen, beraz horregatik beste ordezkaria izendatzearen premia. Eta aste honetan Ascenek esaten zidan suhiltzaileen partzuergorako ere ordezkariak izendatu genituela aurreko korporazioa erreferentzia modura hartuz, eta suhiltzaileen partzuergoa desagertu egin da berez, beraz hor ez genuen ordezkariak izendatu behar. Alazne libratu egiten da suhiltzaileekin joateaz.

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu taldekoak (5); Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ-PNV (2) alderdikoak; Joseba Elejalde Ribacoba P.P. taldekoa (1)

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Onartuta geratu da.

13.- 2019. ekitaldiko bigarren hiruhilekoko aurrekontu-egikaritzearen berri ematea.

Alkatea: 2019ko bigarren seihilekoa aurrekontuaren egikaritzean dagoen eran, hor duzue dokumentazioa kontsultaren bat egiteko baduzue, hor duzue Jesus ezer aipatzeko.

Zinegotzi bertaratuak jakinaren gainean daude: Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu taldekoak (5); Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ-PNV (2) alderdikoak; Joseba Elejalde Ribacoba P.P. taldekoa (1)

14.- 2019ko bigarren hiruhilekoko ordainketarako batez besteko epealdiaren txostenaren berri ematea.

Alkatea: ordainketaren batez besteko epealdiaren berri ematea, Ascen.
Ascension Hormazabal Meabe: 53,84 egun.

Zinegotzi bertaratuak jakinaren gainean daude: Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu taldekoak (5); Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ-PNV (2) alderdikoak; Joseba Elejalde Ribacoba P.P. taldekoa (1)

15.- Alkatetzaren ebazpenak jakinaraztea.

Alkatea, Idazkariaren laguntzaz, 131-133 bitarteko zenbakidun, 142, 143, 146 eta 153-262 bitarteko zenbakidun dekretuak direla jakinarazi du, 188 zenbakiduna izan ezik, baliogabetua baitago.

Miren Izaskun Perez Barragan: dekretu bat baldin badago, uztailearen 24koa, 212. zenbakiduna, Encina izendatzen du zehapen-prozeduraren instruktore, eta uste dut aldatu egin zela. Encinak eskatu zuen...

Alkatea: ah, bai, bai, baliogabetu egin zen.

Miren Izaskun Perez Barragan: hemen agertu egiten da, eta alda dadin soilik.

Ascension Hormazabal Meabe: baina gero beste dekretu bat dago, Arkaitzen izendapenarena dago.



Joseba Elejalde Ribacoba: nik, 171. zenbakiduna, halako asko dago, bai esaten dute fakturak atxikitzen direla eta azkenean ez dakigu oso ongi...

Ascension Hormazabal Meabe: Pilotalekua erabiltzeko baimena?

Joseba Elejalde Ribacoba: ez, hori Alkatetzaren dekretua da... "T/2019/27 zenbakidun fakturen zerrenda onartzea ebatzen dut, 1.020,01 euroko zenbatekoz, eranskin modura atxikitzen dena hona". Orduan, ni bederen, atzo irakurtzen aritu nintzenez, ez dakit zertaz ari zen.

Alkatea: ez da inoiz atxikitzen. Nik uste dut atxikitzen direla dioten horiek, baina sekula ez dira atxikitzen ordea. Jesusenean, eskatuz, ikus daiteke.

Zinegotzi bertaratuak jakinaren gainean daude: Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu taldekoak (5); Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ-PNV (2) alderdikoak; Joseba Elejalde Ribacoba P.P. taldekoa (1)

16.- Udal kudeaketaren kontrola.

- Joseba Elejalde Ribacoba: hilabete honetan sartu ditudan azken idatziei dagokienez, uste dut guztiei eman diezula erantzuna.

Alkatea: erregistratu dituzun idatzi guztiak erantzun ditut, ez dakit zuk nahi bezala ala ez...

Joseba Elejalde Ribacoba: beno, ez nahi bezala eta bai, kontua da oposiziotik gauzak era batera ikusten direla eta gobernuko taldetik, gobernatzen denean, beste era batera. Izan ere, bitxia da, esate baterako, Palacioko urbanizazioaren irteeran, hala atxikietan nola 3, 4 eta 5, hiru blokeetan hilabete askoan Bilduk hautsita dauden bi ispiluen aldatetaren aldarria egin zuen. Nik 3 hilabete itxaron ditut, 3 hilabeteko epea eman diot korporazio berri honi autoen irteera zer-nola aztertzen zuen eta hobetzen zuen ikusteko. Zein da nire ustekabekoa erantzunean esaten zaidala arduraduna Arabako Foru Aldundia dela. Hori bagenekien. Bagenekien hori Foru errepide bat zela eta horiek ipintzeko ardura Aldundiak berak duela. Baina zuek hilabete askoan Udalak ipin ditzala aldarrikatu baldin baduzue, alda ditzala, urbanizazio horietako edo urbanizazio jakin horretako herritar guztiak errepidera irtetea izan ditzaketan arazoak arindu ditzala, eta zorigaitzik izan ez dezagun, nik izan baititut ugari dagoeneko, eta hori orain ikusgaitasuna askoz ere handiagoa dela, baina azkenean dauden moduan daudenez, arreta ematen dit erantzuna izatea arduraduna Arabako Foru Aldundia dela, eta haiek direla aldatu behar dituztenak. Bada tira, egia esatera, lehengoa errepikatuko dut berriro, hesiaren beste aldetik kontuak era batera ikusten dira, eta hesiaren alde honetan zaudenean gauzak beste era batera ikusten dira. Hots, oposizioan gaudenean Alkateari egurra ematen diogu, eta Alkatea eta korporazioa boterera iristen direnean konturatzen dira agian ez zutela arazo osoa, edo ez dute gauzari behar bezala ekiteko gogorik eta bi ispiluak aldatzeko gogorik, eta Aldundiarekin hitz egin ondoren, edo alderantziz, Aldundiarekin hitz egin eta esan "aizu, zuek aldatuko dituzue edo guk aldatuko ditugu". Ezin dena da bi urte baino gehiago egon ispiluak hautsita daudela.

Unai Gotxi Kastrexana: ispiluez hitz egin duzu, beraz nirekin ari zarela sentitzen dut. Guk ez genuen eskatzen Udalak alda zitzala, izan ere, aurreko Alkatearen erantzuna Aldundiak aldatu behar zituela zen, egur asko sartu eta gero. Nik esaten nuena zen Aldundiari joan zedila aldatzeko eskatzera. Oraindik ez baldin badugu egin...

Alkatea: ez. Nik, besterik gabe, azaldu, egia da guk denbora luzez eskatu dugula ispilu horiek ipin zitezela. Baina nik uste dut oker geundela urbanizaziotik bertatik ispilu horiek aldatzeko eskatzen ari zirenak oker zeuden bezalaxe. Aurreko eskaera, aurreko legealdian, hor ispiluak ipin zitezela eskatuz hor egon zen hainbat hilabetez, eta ziurrenik artxiboetara jotzen baldin badugu urtebete igaroko zen Udal honetatik ispiluen kontuarekin lotuta idatziak erregistratzen zituen inori ez ziola erantzunik ematen. Eta kontu erraza zen, galdetzea besterik ez, guk egin dugun moduan eta esan, "bada ispilu hori komunitatearen erantzukizuna da", eta ez hainbat hilabetez pentsatzen egon, are ziur nago eskatzen ari ginenean pentsatzen genuela Aldundiaren ardura zela edo Udalaren ardura zela. Eta oso erraza zen, errepideei galdegin esan ziezazuten "jabetza pribatuko irteera baldin bada partikularrak ordaintzen du, errepide baten edo bide publiko baten irteera baldin bada Aldundiak, Udalak edo dagokionak ordaintzen du". Kasu honetan Aldundia izango



da. Zuk azken idatzi hori sartu baino apur bat lehenago, Santa Koloman ere eskaera bat izan genuen, helarazi zigutena "aizu, hemen ispilu bat behar da, izan ere, etxetik errepidera atera behar gara eta oso arriskutsua da bihurgune bat dagoelako". Errepideei jakinarazi genuen eta errepidetik zera esan ziguten, "ez, ez, irteera partikularra baldin bada jabekideen erantzukizuna da". Hots, gauza bera hor, eta han. Hor, hura modu ulergaitzean atzeratu zen, azkenik zera erantzun zitzaion arte "aizu ez, hori zuen eskumena da hemengo irteera delako", eta horrekin dena argitu zen. Are gehiago, denbora askoan egon zen falta zen ispilua non zegoen jakin gabe, obragatik kendu baitzen, eta kontua da ispiluak uste dut urbanizazioak berak zuela. Hots, ispilu sinple bat ipintzeko hilabeteak itxaron ziren norbaitek esan arte "hau da irtenbidea, zuek ipiniko duzue, eta gainera, begira, zuek duzue ispilua eta". Hori bezain erraza. Hortik aurrera ispiluak ipini dituzte. Arazoa da ispiluak hautsi egin direla eta komunitatea, Palacioaren kasu honetan, horiek ipintzeko arduraduna da oraindik. Ez dago besterik. Guk eska dezakegu, nik gogoan dut guk ere, oker ez banago, eta bestela Unaik zuzenduko dit, ispilu bat eskatzen ari ginen hemengo ertzean. Hemen bai ari gintzaizkion Aldundiari eskatzen. Jar zezatela ispilu bat, gerora ipini zena. Ispilu hori Aldundiak ipini zuen. Eta gu eskatzen aritu ginen hor ispilurik zergatik ez zen ipini esanez. Beheran, behin argitu eta esaten dizutenean, izan ere, gauza asko gertatzen dira, zu zatoz eta galdera egiten duzu, eta sarritan gertatu zaigu guri ere, eta zuri ere gertatuko zitzaizun galdegin eta erantzunak apur bat hutsalak direla, edo a beharrean zer eta b dela, eta ondoren denborarekin konturatzen zela b zela, tira, baino esan zidaten a zegoela, edo ez didate erantzun berez erantzun behar zidaten moduan. Orduan ondoren arazo hauek sortzen dira, norena den eskumena hemen eta norena han. Egokiena nori dagokion esan behar dizunari galdetzea da, nori dagokion, nor den eskuduna. Kasu honetan errepidetara jo, galdetu eta esango dizute. Orduan gertatzen dena da, jartzen dena jarrita ere edo erreklamatu behar zitzaionari erreklamatzeara. Arazoa da hilabeteak pasa zirela, hilabeteak, hilabeteak eta hilabeteak hori eskatuz idatzi bat sartzen zitzaionari erantzunik eman gabe. Eta hori zen ezin zitekeena. Kasu honetan nik, zuk sartu dituzun kontu guztiak berehala erantzun ditut. Ez gara hasiko esaten erantzukizuna norena zen.

Joseba Elejalde Ribacoba: esan dizut guztiak erantzun dituzula eta esan didazunean "ez dakit zuk nahi bezala ala ez". Nik esan diezazuket Gobernuko taldearen aldetik azkartasunari eta izapideari dagokienez, nik ez dut inolako kexarik egon edo sor daitezkeen arazo guztiak azaldu edo aztertzen saiatzearekin lotuta, edo dauden irtenbideak planteatzearekin, kasu honetan ispiluen gaiari helduz. Nire ustez arduraduna ezin da urbanizazioa izan, urbanizazio horrek azken batean foru errepide batera baitu irteera, eta arriskua egotearen edo ez egotearen, edo istripuak saihestearen arduraduna Aldundia bera da, zuk zona bat urbanizatzen, Palaciokoa, utzi didazunean. Zuk niri esatea azkenean aurrez ez zitzaiola galdetu galdetu behar zitzaionari, guztiok genekien hemen erantzukizuna izan zitekeela, ongi esan duzun moduan arduraduna Arabako foru Aldundia, edo auzotarrena. Beste kontu bat da deitu zuten ala ez zuten, edo egin zuten ala ez zuten. Bada, berdinetan gaude, arazo berarekin jarraitzen dugu. Bada, agian igorri beharko da, erantzukizuna Palacioko auzotarrena baldin bada, bada idatzi bat igorri beharko zaie auzotar horiei eta esan "aizu, begira, Arabako Foru Aldundiaren arabera bi ispilu horiek birjartzearen erantzukizuna urbanizazioarena berarena da", eta horrekin eztabaida eta arazo guztiak amaitutzat ematen ditugu, baina jakin dezala Palacioko jabekideen erkidegoak haiek direla bi ispilu horiek jartzeko ardura dutenak edo egiaz haiei dagokien ala Arabako Foru Aldundiari dagokien jakiteko aholkularitza juridikoa bilatzekoa. Nire ustez foru errepide baterako irteera da, eta ispilua Arabako Foru Aldundiak ipini beharko zukeen. Oker egon naiteke, baina nik uste dut eta ulertzen dut horrela dela.

Miren Izaskun Perez Barragan: ez, Joseba, badakigu Palacioko auzotarrok ispilu hori guk ordaindu behar dugula. Are gehiago, hitz egiten aritu ginen osoko bilkura batean, ez dakit Joseba izan ote zen, aktan jasota egongo da, nik esan nion, "ispilu hori guk birjarri behar dugu".

Joseba Elejalde Ribacoba: Biak? Goikoa eta behekoa?

Miren Izaskun Perez Barragan: Palaciokoa da, ez dago... guk ordaindu behar dugu.

Alkatea: kontua ez da ez dakitela, dagoeneko ipinita baldin badago haiek ipini dutelako da. Are gehiago...



Joseba Elejalde Ribacoba: bada Palacioko jendeak ez du jakingo, idatzi bat bidali zidaten eta. Izan ere, nik pertsonalki ez dakit bataren edo bestearen erantzukizuna den baina nik badakit badela ispiluekin ea zer gertatzen den galdetzen didan jendea oraindik.

Miren Izaskun Perez Barragan: urbanizazioari esan zitzaiguna da guk birjarri behar genuela.

Joseba Elejalde Ribacoba: bada, horren berri ez duen jendea dago, eta ni lehena. Nik uste nuen Aldundiaren baitan zegoen gai bat zela. Tronpatu egin banaiz tronpatu egin naiz.

Alkatea: nik dakidala, Udalaren idatzi bakar batean ere ez da jasotzen, hiru hilabete hauetan bederen ez, eta aurrez ere ezezkoan nago, Palacioko inork ez sartu izana hemen idatzi bat esanez "aizu, zergatik ez dituzte ispilu horiek konpontzen?"

Joseba Elejalde Ribacoba: beno, bada niri etorri egin zaizkit eta kito. Nik ez dut konponbidea...

Alkatea: nire ustez auzotarren kontua da erkidegoarekin edo une horretan dagoen gerentziarekin berarekin esateko "aizu, ispilu hauek ipini behar dira, arrisku bat dago eta". Eta arriskua egiazkoa da, baina azkenean arriskua, nire ustez, erkidegoa bera sortzen ari da, edo erkidegoaren beraren gerentzia, premiazkoa den hori konpontzeko pausoa eman behar duena bera baita. Farolak edo paperontziak edo igerilekua konpondu behar duen bezalaxe. Baina erkidegoaren kontua da, ez gara sartuko deitzen ez gaituzten lekuan.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez, ez. Nik ez diot Udalari sartzeko esaten.

- Joseba Elejalde Ribacoba: bigarrenik, Percotur delakoaren gaiarekin, esan didazu, era berean, urrian elkarteekin eta ostalariarekin, merkatariekin, AEME berarekin harremanak abiatzea aurreikusten dela...Egia da datorren astean bilkura bat dugula...

Alkatea: gaur.

Joseba Elejalde Ribacoba: gaur, ni dagoeneko... Espero dut mahai hori abiatzeko harria izango dela eta turismo eta merkataritza arloan herri honek dituen premia guztiak planeatu eta jasotzekoa. Gehienbat, oso plan polita daukagulako, baina bi urtetan oraindik ez da abiatu, iaz egun hauetan azaroan egin zena salbuetsita, eta uste dut gaur horretaz hitz egingo dugula apur bat hobetu edo bultzatzeko.

- Joseba Elejalde Ribacoba: ondoren beste idatzi bat nuen A-2602 eta A-6224 errepideetako espaloi eta areketako zikinkeraren gaiarekin, eta esan didazunez, dagoeneko arduradunekin egon zara.

Alkatea: bai, eta atzo berriro egon nintzen berarekin eta hitz egin nuen berriro eta bai, eta bidezainek dagoeneko parte eman dute. Azken batean errepideetako zaindaria da, hala deitzen dute, baina azkenean kontserbaziokoa den norbait dago, mantenuko beste bat, eta ondoren bidezainak daude. Orduan etorri beharrean dira, dagoeneko parte eman diote ikastetxearen aurreko zona txukuntzera etor daitezten, hots, sastraken zona, eta ondoren ikastetxearen beste aldean geratu den ubidea eta beteta egon dena, sasitaz beteta dago, orduan ubide hori guztiori garbitzera etorri beharrean dira, pentsatzen dut sastrakak kentzeko, eta baieztatu zidan badutela dagoeneko abisua beste kontu batzuen artean, eta etorriko direla. Hemengo jaitsiera garbitzen aritu ziren, estoldak euria hasten denerako. Udaletik ere, ekaitza ere egon zenez, eta orbel guztiak berriro jaisten direnez, eta barruan sartu ez arren gaineratik geratzen da, aurreko egunean ikastetxeko zona garbitzen aritu ziren pixka bat, izan ere, berriro bete egin zen gaineratik, ez barnean, orbelekin, garbi egon zedin bederen, eta tira, alderdi horretatik ari dira egiten, egingo dute.

- Joseba Elejalde Ribacoba: beste idatzi bat sartu nuen 362 zenbakidun partzela zela eta, garrantzirik Mendietara igotzen den bidea. 3 urte daramatzagunez txosten teknikoarekin eta obra hori egikaritzeko zain, beno dagoeneko erantzun didazu gutxi gorabehera aurten egikaritzea aurreikusten dela.

Alkatea: bai, aurrena horri heltzeko partidariak begiratu behar da, azkenean ez baita zenbateko handiegia, mila eta zertxobait gehiago euro dira, partida badaukagu, orduan nik aparejadoreari esan diot, ahal duenean, egia esan beste gauza batzuk ditugu mahai gainean, ahal duenean, azkenean bizpahiru aurrekontu eskatzea baita kontua, izan ere, obra bera ez da hainbesterako, eta aurrekontu hori dugun bezain pronto esleitu eta egin dadila, hori aurreikusita dagoen zerbait da eta. Hiru urte edo dena delakoa atzeratu izatetik haragoko kontua ere ez da. Baina tira.



- Joseba Elejalde Ribacoba: ondoren, galdera bat. Hau zuretzako da zuzenean Unai, zu izan baitzara gai honekin eztabaidan aritu dena, lortu al duzu txosten teknikorik hiriguneko espaloiak aldatzeko?

Unai Gotxi Kastrexana: ez, oraindik ez, baina tira. Josebak esan duenagatik da, lanpetuta daude. Baina egin beharko da, bestela, horma jotzea bezala da.

Alkatea: aurtengo aurrekontuan uste dut 10.000 euroko partida bat zegoela, ez dut gogoan, espaloietan zeuden kalteak konpontzeko, ez dakit hirigunean, pentsatzen dut udalerrri osoan izango dela, eta uste dut aurreko legealdiaren amaieran egon zirela begiratzen, ez dakit lñigo ez ote zen egon norbaitekin bisita egiten zein leku zehatzetan jardun zitekeen ikusteko.

- Joseba Elejalde Ribacoba: azken galdera bat, Josemi, joan aurretik, Alderdi Popularrak egindako planteamenduari buruz legealdi hau hasi zenean EH Bildu taldetik mendietako zinegotziarekin lotuta, aztertu duzue zerbait, berri bat izatea komeni ote den ikusteko ikerketarik egin duzue, edo berriro mendietako zinegotzi bat izatearekin lotuta gure mendietan dauden arazoez arduratu dadin, gure luberrietan eta mendizaina den Jesusekin koordinatuta egongo dena?

Alkatea: ez, momentuz ez. Mendietako eskumena baitaratzearen arduraduna ni naiz Batzordearen barruan, ez naiz orotzen orain bere izenaz, mendietakoa eta herrietakoa. Momentuz ez gara buru-belarri sartu gai horrekin. Jesusekin harreman zuzenean gaude gauza asko daudelako, eta horietako bat da esan duzun moduan laster atera beharrean gaudela, edo udazken honetan atera beharrean gaudela luberri guztiak eguneratzearen kontua, orduan bada tira, berarekin hitz egiten aritu naiz, gauza batzuk ditugu egiteke, egiten ari diren zenbait gauza, baina esan dezagun kakotx artean mendiaren gaiari serio heldu eta horretan ipintzea, momentuz emaguzu denbora pixka bat udako hiru hilabete hauek izan dira oso..., hirigintzaren kontuarekin soilik uste dut ez dugula bururik altxatu, eta orain apur bat altxatzen ari gara ikusi dugunean... beno, orain bestea etorriko da baina bederen obren izapideari dagokion kontu guztia kendu dugu, mahai gainean genuena, abuztuan irten ziren diru-laguntzen kontua eta eskatu egin behar ziren horiek ere, eta izerdi patsetan egon gara, eta ea has gaitzkeen heldu behar ditugun beste gai batzuekin, pixkanaka joan, Percotur delakoaren kontua esate baterako, gai asko ditugu hasteko, baina ea hirigintzaren gaiak apur bat libre uzten gaituen.

- Miren Izaskun Perez Barragán: epeen kontuarekin lehen aipatu duzunaren harira, gauzak noiz egiten diren, kontu asko ditugu, eta batzordearen gaiarekin, adierazi nahi genuen deitu diguzuen azken batzordeetan ez direla epeak bete, entregatu diren dokumentuak ez dira entregatu ez garaiz ez modu egokiz, hau da, Legeak ezartzen dituen derrigorrezko 48 orduan bete gabe, eta tira, oraingo honetan, guk diru-laguntza ekonomikoak direnez lehen onartu dugun guztia baita, dagoeneko landuak eta eginak izan baitira aurreko EAJ taldearen eskutik, beno bada apur bat deialdi hau betetzearen kontua utzi egin dugu, baina aurrerantzean eskatzen dugu, dagoeneko erregu modukoa izango litzateke, aurrerantzean eta ahal den heinean berriro ez dadila gertatu orduan aurkatu egin beharko genituzke eta, orduan hori da eskatzen duguna. Eta, era berean, batzordeen gaiarekin berriro eskatu dagoeneko egin ditugun batzordeetako aktak. Eta ondoren nahi baduzu puntuz puntu egingo dizut... askotxo dira eta.

Alkatea: nahi duzun bezala, nahi baduzu hauek biak esango dizkizut eta..

Miren Izaskun Perez Barragan: ados.

Alkatea: besterik gabe, epeen kontua egia da azken batean hiru hilabete hauek apur bat zalapartatsuak izan direla hirigintzaren gaiarekin, egunero jokatzen ibili behar izan gara eskatzen zizkiguten gauzekin, sartu behar ziren gauzak, onartu behar ziren gauzak eta batzordetik pasa behar ziren onartu egin behar zirelako, eta egia da batzorderen batean ez zela bi eguneko epea bete, esan nizuen alde z aurretik ezingo zela bete premiazko gauzak zeudelako, eskertzen dugu prestutasuna, baina tira, gogorarazi nahi dut, era berean, joan den legealdian ere eta aurrekoan, uste dut gobernuko aurreko taldeari sekula ez zaiola aitzakiarik ipini gobernuko taldetik esan izan zaigunean epeak ez zirela betetzen edo premiazko gauzak sartu behar zirela, eta ikusi dugunez gauza logikoak zirela, sartu beharrekoak, ezin baikenuen eragotzi horiek onartzea arintasuna



eskatzen zutelako eta beharrezkoak zirelako, sekula, eta sarritan gertatu da, ez dugu aitzakiarik ipini. Besterik gabe izan da esatea, egiaz justifikatuta baldin badago, arazo bat egon baldin bada eta lehenago ezin izan bada sartu baina horrek aurrera atera behar du, sekula ez dugu arazorik ipini. Ez da berariaz egiten duzun zerbait gai bat ez sartzearena, Kantauriko Urkidetzaarena adibidez. Jakina aurrez izapidea ematen zaio aurretiaz jakin dadin baina esan nahi dut gure aldetik beti egon dela prestutasuna, korporazio modura izan dezakegun jokoaren barnean...

Miren Izaskun Perez Barragan: bai, bai, guk ere ez, ez gara sartuko... baina esan nahi duguna da Legea bete beharrean gaudela, horregatik.

Alkatea: eskubide guztia duzue alderdi horretatik.

Miren Izaskun Perez Barragan: besterik gabe. Saiatuko gara.

Alkatea: eta akten gaiarekin, Ascen dagoeneko horiek idazten ari da beraz berehala, prest daudenean guztiei helaraziko zaizkizue.

- Miren Izaskun Perez Barragan: gero beste zenbait kontu... nahi izatera guztiak segidan esango dizkizut.

Alkate: bai, bai.

Miren Izaskun Perez Barragan: jakin dugu, gizarte-sareetatik adierazi duzulako, eta WhatsApp taldeetatik Gordexolako Udalarekin bilkura bat izan duzuela, orduan nolabait laburbiltzea nahiko genuke, haiekin akordioaren batera iritsi ote zareten, Gordexolako Udaletik zer-nolako prestutasuna ote duten, eta gobernuko taldetik zein plan duzuen izan duzuen bilkura horrekin lotuta.

Ondoren merkatuari eta festei buruzko balioespen bat egin dezazuen gustatuko litzaiyuke.

Museoari buruz ere gauza bera. Bilkura bat izan duzue, era berean, bideragarritasun-planarekin lotuta, eman dituen emaitzen inguruan, eta bilkura horren azalpen labur bat nahiko genuke, zein balioespen egiten duzuen Gobernuko taldetik emaitza horien inguruan, eta zein neurri hartuko dituzuen Udaletik aurrerantzean, eta zein urrats emango diren. Nik pentsatzen dut bideragarritasun-plana ez dela hor amaituko, baizik eta aurrera jarraituko duela, ez dakit bilkura motaren bat edo lantaldeak edo dena delakoa. Apur bat horren inguruan informazioa egunera dezazula.

Ondoren sareetan aipatu duzun beste gai bat, uste dut, zuntz optikoari buruz. Gutxi gorabehera kudeaketaren bat egin ote duzuen Foru Aldundiko errepidetekin, hasierari nola ekingo zaion, informazioa egunera diezaguzun apur bat.

Beste gai bat, Dorrearena, badakizu idatzi bat sartu genuela kalean jakin genuelako kirol jardueretarako erabiliko zela.

Alkatea: ikastaroak.

Miren Izaskun Perez Barragan: beno ikastaroak, udak kirol jarduerak. Orduan erantzuna ikusi genuen apur bat, baina jakin nahiko genuke Dorrean egingo diren obra edo inbertsio ekonomiko guztiak aldi baterako zerbaiterako balioko duten, aldi baterako irekitzeko, zein zerbitzu mota emango diren, edo eragina duen edo izango duen etorkizun batean hotel edo turismo establezimendu modura ireki dadin, apur bat azal diezaguzula.

Arteko tabernari buruz une honetatik zein erabilera ematen ari zaion jakin nahiko genuke apur bat eta plegu bat ateratzen denetik aurrera zein erabilera eman asmo zaion, zer egingo den, zein erabilera emango diren, eta abar.

Urtegiko bidearen inguruan ere idatzi bat sartu genuen uztailean galdetuz, eta zuen erantzuna izan zen ez zenutela horren berririk. Tira, balioespenen bat egin ote duzuen jakin nahi dugu auzotarren batek bai errepikatu baitigu hori, eta zuen erantzuna izan zenez ez zenutela berririk, nik ez dakit zuen taldearekin harremanetan jarri zen auzotarrak zuekin hitz egin ote duen horri buruz bere egonezina agertuz, baina ea begira dezakezuen itxitura edo bide horretako ibilgailuen sarbidea. Eta nik uste horrekin dena dagoela.

- Alkatea: Arkaitz hasiko da museoaren gaiarekin, bideragarritasun-plana.

Arkaitz San Jose Martínez: bilkura bat izan genuen hilaren 23an, astelehenez, Arabako Foru Aldundian, Ana del Val kultura Diputatuarekin, irailaren hasieratik harekin harremanetan ipintzeko ahaleginetan egon ondoren, bideragarritasun-planarena zertan zen ikusteko, izan ere, plana



idazten eta dinamizazio-bilkura egiten aritu zen enpresaren konpromisoa azken batean aurkeztea zen, beti ekaina aipatzen zitzaigun, eta are nik uste dut planteamendua udal hauteskundeen aurretik aurkeztea zela, egon zen baiezko bat, edozein kasutan Udal berriak eratu aurretik, baina tira, azkenean hura han geratu zen, eta udaren aurretik deitu genien hala enpresari nola teknikariari eta apur bat itxaroteko esan zigun, bada Jose Maria Armentiak, enpresakoak, esan zuen Aldundiak esaten zuenaren mende zegoela apur bat, orduan hari esaten ziotenean azalpena emango zuen. Orduan bada, apur bat horrela geratu zen. Hitzordua adostu genuen pasa den hilaren 23rako, hasiera batean Udalarekin hitzartu genuen baina esan genuen ea egoki ikusten ote zuten Elkarteko jendeak parte har zezala, baietz esan zen, Elkarteko jendea ere joatea interesgarritzat jotzen zutela, eta lehendabiziko harreman bat zen. Eta ideia horrekin joan ginen Aldundira.

Alkatea: hau da, ez gindoazen sikiera plana aurkeztuko zen ideiarekin, pantaila batekin, ez dakit zerekin. Besterik gabe esan behar genuen, hau zertan da?

Miren Izaskun Perez Barragan: emaitza apur bat Power Pointean.

Alkatea: hori da. Azalpen apur bat laburtua egin zuen, baina zehatza

Arkaitz San Jose Martinez: bai dokumentu pare bat helarazi zizkiguten, bata osoa eta bestea laburtua, baina hori ere dezente handia, bideragarritasun-planekoa. Orduan guk jakin gabe enpresakoak izan ziren, Jose Maria Armentia eta bere taldea, han izan ziren ondorio nagusiak aurkezten. Uste dut taldeei helarazi dizuetela, oso dokumentu luzea da, eszenario ezberdinak aipatzen ditu, batez ere bilkuraren ondorioetatik abiatuta, hau da, badirudi bi eszenario planteatzen direla, bat esan dezagun orain dagoen moduan mantentzea gastua birdoituz, eta bestea asmo handiagoekin eta berriro ipintzeko, esan dezagun, inoiz egon ez bada, museoan gaia lehen lerroan eta, bi eszenario horiek aurkeztu arren, uste zuen plan horretan parte hartu zuten pertsona guztiek bigarren alde egiten zutela. Orduan haiek proposamen bat egiten zuten urte batzuen buruan helburu horretara iristeko, baina enpresak proposamen bat zela esaten zuen. Eta orain administrazioek eta Elkarteak ikusi behar dute nola eman horri forma.

Alkatea: Diputatuak argi utzi zuen laneko dokumentu bat dela, ez dela egin beharrekoa. Dokumentu horretatik aurrera orain eztabaidatu egin behar da, noski, bizkor, 2020. urtea ate joka dago eta.

Arkaitz San Jose Martinez: orduan bai esan zuen berak helburu modura ipintzen zuela gehienez bi hilabetetan 2020. urteari begira zer-nola funtzionatu behar ote den jakitea, orduan nire ustez urria eta azaroa izango dira hil gakoak, orduan elkartu eta hori nola kudeatu ikusi beharko dugu, hala finantzazioaren ikuspegitik nola haren kudeaketari dagokionez, hori baita apur bat bilkuretan hitz egiten aritu ginena, eta ildo horretatik bihar bilkura bat dugu, eta gainera etorri egingo dira hemen, museoan, eta pentsatzen dut teknikaria etorriko dela eta baita Elkartearekin ere, zeinari, oker ez banago, deialdia ere pasa zaizue.

Alkatea: bai, izan ere, nik hari ere esan nion oposizioko taldeei jakitera emateko, izan ere, nolabait haiek ere parte hartu zuten hilabete guzti hauetako aurreko izapideetan, urteko lehen zatian, are uste dut gero Encinak igorri zidala ea parte hartu zuen inor etor zitekeen baina dagoeneko ez zegoela zinegotzi modura. Nik esan nuen nire ustez ez nuela uste arazorik egongo zenik, azken batean Aldundia zen apur bat esaten ari zitzaiguna... bada tira, ez gara gu inor gonbidatu behar duguna, baina nire ustez egoki da lehendabiziko hilabeteetan izan den eztabaidan zuzenago parte hartu duen norbait bada bihar museoan egon ahal izatea bideragarritasun-plan hori ere balioesteko edo proposamenak ekartzeko.

Miren Izaskun Perez Barragan: bai, baina nire galdera agian apur bat zehatzagoa zen. Zuek Gobernuko taldetik, zein balioespen ematen duzue Gobernuko talde modura, Alkatetza modura?

Arkaitz San Jose Martinez: Planari?

Miren Izaskun Perez Barragan: bai. Azkenean kudeaketa ekonomikoaren hanketako bat Udala da, orduan zuen ustez Udalak zein jarrera izan dezake plan horretan, edo museoan kudeatzeko moduan epe luzera begira?

Arkaitz San Jose Martinez: tira, planean ez da aipatzen...

Miren Izaskun Perez Barragan: ez esaten dut soilik planean oinarrituta.

Arkaitz San Jose Martinez: planean ez da kudeaketa irudirik aipatzen. Aspalditik bueltaka dabilena eta aurrekoen ere planteatu zen, zera, eta uste dut pixka bat horretara bideratuko garela,



kudeaketak fundazio baten bitartez egitea azkenean patronatu bat izan behar duena. Eta patronatu horretan Udala aldeetako bat izango da.

Miren Izaskun Perez Barragan: iaz planteatu zena.

Arkaitz San Jose Martinez: bai, eta hala planteatu genion Diputatuari. Hori, nolabait landu zela, baina akordiorik izan ez zenez ez zela bide hori jarraitu. Gainera, Aldundiak gu bideragarritasun-plan horretara bideratzeko aukera ere sortu zen. Nik uste dut orain bakoitzak zein espazio betetzen duen eta hori ona ala txarra izango den begiratzeko lanketa dagoela aurretik, nik uste dut edozein gogoeta dela ona Artziniegako herriarentzat eta Artziniegako Udalarentzat, eta guztion artean zein kudeaketa-eredu aurkitzen dugun ikusi beharko da.

Miren Izaskun Perez Barragan: hau da, patronatuaren eta fundazioaren eredia bideragarri iruditzen zaizue.

Arkaitz San Jose Martinez: guri beti iruditu zaigu hala.

Alkatea: Diputatuak aipatu zuen berak argi zuela fundazioaren bat egon behar zuela. Diputatuak adierazi zigun eta gainera hitzez hitz aipatu zigun, ez duela nahi Artziniegako etnografia museoaren gaia datorren urtean Aldundira itzultzea arazoak daudelako. Nik uste dut, edo bederen hitz egiten zuen modua eta aipatzen zuena kontuan izanik, iradoki zigula gai honi serio heldu nahi diola eta konpontzea nahi duela. Eta behin betiko irtenbide bat eman zuhur eta onargarri batean. Orduan, egoera horretan planteamenduak hor daude, dokumentazioa helarazi zigutenean igorri nizuen nik, are gehiago, zuzenean igorri zitzaizuen, era berean, batzordearen akta iritsi zitzaigunean, zer hitz egin zen jakin zenezaten ere igorri zitzaizuen, orduan dena hor dago. Pentsatzen dut bihar lehen harremana izango dela esateko, irakurri duzue txostena? Zein iritzi duzue? Izan ere, ez da bihar hau ebazteko, baizik eta pentsatzen dut bilkurak egiten jarraitu beharko dugula kudeaketa-eredua zein izango den, finantzaketa-eredua zein izango den, eta bakoitzaren eginkizuna zein izango den bikaina zehaztu arte eta, batez ere, nik ere esan nion, hemen planteatzen den hau guztiau guztiok txipa aldatzeko da. Museorako ere bai, izan ere, hau puntu eta parteko moduko bat da eta museoak ere jauzi egin beharko du alde batera ala bestera, bere jarrera azalduz. Hau da, nik ulertzen dut Aldundiak, Aldundiak honetan helarazten duela dirudien inplikazioa, edo gero Eusko Jaurlaritzan inplikatu ahal izatea modu ekonomiko batean edo edozelan esateko, ados, inplikatu egiten gara baina honek norabait jauzi egin behar du, zein lekurantz? Hori da zehaztu behar dena. Museoak nora jo behar duen. Orain arte zegoen moduan geratzea nahi duzuen edo norabait jauzi egingo dugun, eta nola. Nik uste dut bihar gauzak ikusten joango garela, ea nondik ateratzen den, eta ez da lehendabiziko bilkura izango. Arina izan behar duela bai, izan ere, azkenean 2020. urtea hortxe dago eta ikusiko dugu nola doan, edo 2020. urterako egon behar duen, edo ez dagoen, eta nolabaiteko luzapena egin beharko da prest den arte, bada tira, zentzu horretan hor dago.

- Alkatea: Gordexolako alkatearekin egindako bilkuraren kontua, ni bulegoan eseri bezain pronto, uste dut bigarren edo hirugarren egunean, Gordexolako Alkatearekin harremanetan jarri nintzen eta bilkura bat egiteko hitzordua eman nion, lehen harreman baterako, elkar ezagutzeko ere bai eta irtenguneen gaiaz hitz egiteko. Apur bat aurrerago elkartzea adostu genuen eta jadanik irailean nirekin jarri zen harremanetan, deitu egin zidan eta egun baterako hitzordua jarri genuen. Arkaitz eta ni jaitsi ginen udaletxera eta harekin eta beste zinegotzirekin hitz egiten aritu ginen irtenguneen inguruan, eta beste hainbat gauzen. Nik esan nizuen elkartu egingo ginela eta, era berean, esan nizuen, bi udal taldeei igorri nizuen, bi bozeramaileei, laburpen bat edo nik bilkura hartan hauteman nuenari buruzko ikuskera bat eta nire ustez bilkuraren nondik norakoak zein izan ziren azalduz, eta besterik gabe horregatik izan zen, lehendabiziko harreman bat zein jarrera duzun ikusteko, guk ikusteko zein lekutan gauden, baina batez ere gure aldetik haiek zertan diren sentitzeko, irtengune horien gainean jarduten jarraitzeko zer-nolako prestutasuna duten ikusteko. Egia esan bilkura nahiko adeitsua izan zen, inolako arazorik gabe, uste dut bi aldeak oso argiak izan ginela, uneren batean Alkatea ere esplizitu samarra izan zen ihes egin zion aipuren batean, baina tira, horretaz hitz egin genuen, eta beste gai batzuen inguruan ere hitz egin genuen, izan ere, nik uste dut azkenean bat gentozela, eta gu ere saiatu ginen ikusarazten ez gaudela Artziniega-Gordexola arteko gerra moduko batean, beste gai batzuetan eragina izango baitu horrek, kolektorearen kontuan, kolektorea hara eramanez nahi baldin badugu, guri



interesatzen zaigu eta haiei interesatzen zaie, Iratxagorriako goiko zatiak ez baitu kolektorarik, interesatu egiten zaie. Horren alde egiten ari gara, eta hala bidali diogu Bizkaiko Foru Aldundiari ere Artziniegako Udaletik, bere ibilbide berdeen planarekin, Gordexola eta Artziniega batzea interesgarria izango zatekeela adieraziz, Araba eta Bizkaia alderdi honetatik elkartzeko, haiei ere interesatu ahal zaielako. Hau da, badira zenbait lan-esparru non ezin gaitzezkeen gora begira egon, beste esparru batzuetan lan egin dezakegunean. Beraiek irtengune bakar bat gehiago ez ukitzeko jarrerarekin daudela? Bai. Ez dela haien lehentasuna? Bai. Beren lehentasuna legealdi honetan Pontxonetik Iratxagorrira doazen bihurtu ziren zonan espaloiak egitea dela Aldundiak egin zuen plan hartan aurreikusten zen moduan? Baita ere. Hori da beraien lehentasuna. Irtengunean ukitzea? Ez. Guk apur bat esan dieguna da, horiek jarrera horrekin daude, haiek dituzte babak eltzean, guk bederen zerbait argi badaukagu da azken lau urteak igaro ditugula, non administrazioak inplikatu ditugun, hala Arabakoa nola Bizkaikoa, Eusko Jaurlaritza ere bai, eta ez dugu ezer aurreratu, ia Artziniegara begira, bada bai, irtengune batzuk ukitu dira, baina ez dugu ezer aurreratu. Administrazioaren bidea ia amaitutzat ematen dugu, izan ere, Bizkaia da azken batean babak eltzea dituen, Gordexola da babak eltzean dituen, baina bai, baina haiek zer egin behar duten ulertzeko ahalegin horretan, ez dakit emakida deitu edo zer, Artziniegako jendeak ere ikus dezan ados, badakit zuk duzula boterea, eta ez dituzula irtenguneak kenduko, baina egin ditzakezu gauzak. Hau da, irtengune zenbait aldatu diren bezala eta dagoeneko irtengune horiek ez dira mendate baten tamainakoak, eta hori dagoeneko egin den moduan, Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik zenbait beheramendu guztion diruarekin, Eusko Jaurlaritzaren dirua baitzen, egia da, era berean, plazatik Sodupera arte irtengune horiek guztiak ia ez direla ukitu, eta lehen bezalaxe daude oraindik. Orduan, guk gonbidatzen genien esatera hor lauzpabost irtengune geratzen zaizkizu eta horiek ere egokitu ditzakezu, Artziniegako jendeak nabaritu egingo du eta, are Gordexolako jendeak ere nabaritu du igarotzean. Eta kexatzen jarraitzen badut ere eta irtengunek kentzeko borrokatzen jarraitzen baldin badugu ere, Gordexolaren aldetik nolabaiteko erosotasuna edo prestutasuna nabaritzean bada hori ere bai, tira, beti eskertuko dugu. Haiek esaten zuten ez dutela dirurik hor jarduteko, orduan noski, eztabaida batean sartzen gara adieraziz, beno, ados, guk Arabako Aldundiarekin hitz egin dezakegu, Bizkaikoarekin hitz egin dezala 10.000 edo 20.000 euro ba ote dituen ikusteko irtengune horiek hobeto jaisteko, edo igoera hobe batzuk ipintzeko. Baina beno, azken batean zentzua izan zen, zubiak ez lehertzeko joeraz, baizik eta hitz egiten jarraitzeko, lehendabiziko harreman hau izan dugu, ikus dezagun nola hobetu dezakegun hau. Badakit ez dituzuela kenduko, denak ez baitituzue kenduko, baina, era berean, badakit batzuk kendu eta beste batzuk jaitsi ditzakezuela.

Miren Izaskun Perez Barragan: Eta konpromiso edo akordio motaren bat ateratu al diezu?

Alkatea: ez, lehen harreman bat izan zen. Ordubetetik gora egon ginen, oso ongi gainera, ez genuen elkar ezagutzen, elkar ezagutu genuen, eta beno, azken batean horixe izan zen, lehendabiziko harremana izatea, ez joan "edo hau kentzen duzue edo guztia lehertuko dugu" esanez.

Miren Izaskun Perez Barragan: asmoa ez da sekula hori izan.

Alkatea: unerren batean egin behar bada, egingo da.

Miren Izaskun Perez Barragan: eszenario hori ere ez da gertatu aurreko urteetan e? Artziniegako EAJ ez gara zuziekin joan Gordexola erretzera.

Alkatea: ez, baina haiek xehetasunak hartzen jarraitzen dute eta horri eusten diote azkenik, eta nik uste dut zentzurik gabe eusten diotela, hau da, "ez, kontua da jendea Iratxagorritik igarotzen dela eta soinu egiten duela, goizeko 6etan, edo zabor-poltsak botatzen ditu". Bada tira, baten batek egin dezake. Kontua da konturatu direla orain jaitsi direla jendea abiadura handiagoan doala. Eta nik diot, bai, eta nire herrian abiadura handiagoan. Joan nire herrira eta ikusiko duzu biribilgunetan zer nolako derrapatzeak. Ez da zuen udalerriri dagokion kontua, mundu guztiari dagokion kontua da. Jendea abiadura bizian joatean, zuzengunean aurreratzea, edo azkarrago joatea. Artziniegako jendea kexu da Iratxagorriko zuzengunean ezin dugulako aurreratu, baina azkenean irentsi eta onartzen amaitzen dugu. Zuek ere, nolabait, onar ezazue. Ez ezazue esan ez, hau ez dugu ukituko gure banderatzu bat delako, politikoa izan edo dena delakoa izan, eta hemen ez da irtengune bakar bat ere ukitzen. Tira, hori ere ez da kontua. Apur



bat egoera izan zen guk beren iritzia ulertzen amaitzea baina haiek ere ez ziezaieten horri eutsi banderatzeko bat balitz bezala eta han ez daitezela jaitsi.

Miren Izaskun Perez Barragan: Zertan geratu zarete?

Alkatea: ez, geratu ginen joango ginela, Aldundiari planteatzera, orduan Aldundiari planteatu behar diogu ea Bizkaiarekin hitz egiteko aukerarik baduten ukitu gabe geratzen diren irtengune horiek, teorian baten bat legez kanpokoak izango da oraindik, izan ere, ukitu gabe baldin badaude baten bat legez kanpokoak izango da oraindik, bada uki dezatela, noski. Azkenean Gordexolak beti eusten dio dirua beste batek ipin dezala, eta beren errepidea da eta haiek egin beharko lukete, baina tira, azkenean. Orduan hori da apur bat egoera.

Joseba Elejalde Ribacoba: bada gauza bat, Joseba, aipatu duzuna. Azkenean, sarritan errepikatu duzu, azkenean haiek dituzte babak eltzean. Ni beti agertu naiz uzkur udalerrri bati foru errepide hori lagatzearen inguruan, bada hor zer hitz egin asko izango genuke, eta administrazioarekiko auziarekin jarraitu izan bagenu, agian gaur egun beste egoera batean egongo ginateke edo beste kontzeptu batean. Baina Gordexolako Alkateak, eta zuen aldetik zubiak ez lehertzeagatik, edo adostasun bat erdiesteko eta Artziniegarentzat eta baita Gordexolarentzat ere beharrezkoak diren beste esparru batzuetan lanean jarraitzeko, baina noski beren burua zuritzen badute esanez oraindik indarreko araudia betetzen ez duten lauzpabost horiek jaisteko partida ekonomikorik ez dutela esanez, bada azkenean, nolabait, Artziniegako Udalak legez kontraktotasun hori baliatu beharko luke. Ezin duguna da, Gordexolako Udalak zeharbide horretako jabeak direnez, bere eskubideak handik igarotzen garen herritar guztien eskubideen gainetik jartzea onartu. Orduan, egiaz 4, 3 edo 5 irtengune horiek araudia betetzen ez badute, Artziniegako Udaletik, nire ustez, aitorrarazi egin beharko zaie. Nork ipiniko duen dirua? Nik ez dut esango dirua nork ipini behar duen. Iaz 100.000 euro lortu ziren, ongi aipatu duzun eran, euskaldun guztiena, errepide horretan hainbat aldaketa egin zitzaizten. Egia esatera egin diren aldaketak nahiko gutxi izan dira, eskasak, eta nire ustez, Artziniegako udalerriko gainerako herritarrentzat irigarriak direla esango nuke. Jaitsi egin dituzte, apur bat ipini dituzte, baina ez zen guk nahi genuena, gure asmoa kentzea baitzen, nik ez dut esaten gehienak, baina bai 7 kilometro horietan zeharreko zenbait irtengune, errepide hori erabiltzen dugun guztioi bizitza aldrebesten digute eta, eta horrek larrialdietako gaiarekin duen eraginarekin, hemen sarritan jorratu baita hori ere, edo beste garraiobide batzuetarako, eta abar. Nire ustez, Gordexolari dagokion aldetik irtengune horiek ez dituztela ukituko esaten badute, partida ekonomikorik ez dutelako, guri Artziniegako Udal modura dagokigun aldetik eta hortik igaro behar garen herritarren interesak defendatuz, 4 irtengune horiek aldatzen ez badituzte, dirua lortu beharko dute lortu behar duten lekutik, haiek beste lehentasun batzuk izatea alde batera utzita, esate baterako, espaloia bi kilometroz egitea, izan ere, administrazioarekiko auzia egitea izango da kontua irtengune horiek indarreko araudira egoki daitezen, uste baitut hori dela gutxienez eskatu behar duguna eta Udal honetatik eskabidea egin.

Alkatea: proposamena jasoko dut Joseba. Azkenik Gordexolak beti etxera eginez, nahasmen hori guztiori baliatu du bere alde egiteko, partida bat lortu haiek ere konpondu nahi zuten hori konpontzeko, proiektu bat egin ondoren egin nahi dituen gauzetarako, eta hori guztiori Eusko Jaurlaritzak ordainduta, baina tira, guztion kontura. Azti ibili dira.

- Alkatea: industrialdeko zuntz optikoaren gaia. Besterik gabe, uda hasieran, Alkatetzan sartu eta gutxira, bilkura bat izan nuen Clarianteko arduradunarekin, Clariant enpresakoarekin, nirekin egon eta solas egitera etorri baitzen, ni ezagutzeko ere bai, elkar ezagutzeko, eta haiek zuten kezketako bat, aspaldidanik zuntz optikoaren daramatelako, industrialdeko zuntz optikoaren hedapenaren gaia zen, eta, noski, bere enpresara iritsi dadila. Orduan, esan zidanez, etenik geratu zen gai bat zen, eta beno, ea guk Udaletik, eta haiek Clariantetik, ea berrakibatuz zezaketen, zer gertatzen zen ikusteko. Kontua zen zuntz optikoa industrialdera arte luzatzeko Telefonicak bertan dagoen instalazio bera erabili nahi duela, baina Aldundiak, errepidetik, ezetz esan zion, hortik ezin zitekeelako igaro. Bitako bat, edo lurpetik sartzen zuen, edo poste guztiak atzeraematen zituzten barne aldera eta handik luzatzen zuten. Zer gertatzen da? Bada, gaia horretan geratu zela. Aldundiak, errepidetik, ezetz esan zuen, orduan Eusko Jaurlaritzako SPRI zerbitzua, hura baita Euskadiko industrialde guztietan zuntz optikoaren garapen guztia



kontratzen ari dena, nora jo ez zekiela zegoela baita ere, Clariantekoak ere ez, pentsatzen dut gainerako enpresak, Lucart kasu, antzeko egoera batean egongo direla, eta orduan nik bilkura bat edo informazioa eskatu nion lurralde orekako Diputatuari. Aldundia ere aldaketekin zegoenez eta Diputatuak, Zuzendariak eta abar izendatu behar zituenenez, bada hortik ere ez, hor geratu zen apur bat etenik, SPRI zerbitzukoarekin hitz egin nuen, berak aipatu zidan pixka bat zein egoera zegoen, azkenik Aldundian, errepidetik, guztia gelditu egiten zen oniritzia ematen ez zuelako, Telefonicak ez zuelako, inolaz ere, inbertsio hori egingo, ez lurpetik, ez atzeraemanda, eta beno, nire aldetik azken gauza izan zen, astelehenean, hilaren 7an bilkura bat dut lurralde orekako Diputatuarekin, Pilar Garcia de Salazarreki hori nola desblokeatu ikusteko. Ez dakit zein izango den proposamena, uste dut proposamena azkenean izango dela zerbait atzeraematea eta ea 3 hanken artean edo dauden hanken artean kostatzen dena ordain dezakegun, ez dakit Aldundia, SPRI eta Udala izango garen, baina tira, astelehenean dut bilkura eta esango dit zein proposamen helarazten diguten eta ea irtenbiderik eman daitekeen eta zuntz optikoa industrialdera arte luza dadila. Irtenbideren bat adosten baldin bada, pentsatzen dut diru pixka bat ipini beharko dugula, ez dakit zenbat, esango digute.

Miren Izaskun Perez Barragan: bai tira, maitzetik ez da mugitu eta.

Alkatea: ez, uste dut martxotik zegoela geldiarazita. Deitu egiten zuten Aldundian dena geldiarazita zegoelako.

Miren Izaskun Perez Barragan: errepidetik. Errepidetik zen. Guk genekiena zen errepidetik ez zela ematen... Udaletik Iñigo, guk genekiena zen lurpetik igarotzeko ekimena Udaletik atera zela, baina errepidetik esan zela ezetz. Eta hauteskondeekin elkartu zen zenbait eta beno.

Alkatea: nik bai ikusi nuela dokumentazio gutxi zegoela, egia esan, Iñigoren idatzi bat zegoen Bilbon zegoen Telefonicako arduradun bati igortzen ziona, Telefonicak erantzun ere ez zuen egin, are gehiago, uste dut helbide berera beste idatzi bat igorri nuela ikusteko. Telefonicak erantzun ere ez zuen egin, orduan hor zegoen airean... hau Aldundian desblokeatzen ez baldin bada ez doa inora. Azkenean astelehenean jakingo dugu zein planteamendu egiten duen Aldundiak eta helaraziko dizuet astelehenean egiten duten proposamena eta zerbait ipintzea dagokigun, zenbat diru den.

- Alkatea: Dorrea. Ezer ez, besterik gabe erabaki zena zen Dorrea erabiltzea, erabili gabe baitzegoen, momentuz, aprobetxatzea, izan ere, ikastaro mota jakinen bat egiteko azkenean mundu guztia lokaletan dugu sakabanatuta, lokal batzuetan jendea kexu zen lokalaren egoera zela eta, hotzagatik, azken batean ez zirelako ikastaro horietako zenbait emateko lokal egokiak, orduan genituen lokalen artean Dorreko batzuk aprobetxatu zitezkeela bururatu zitzaigun, Kultura teknikariarekin ere ipini ginen harremanetan, Yolandarekin, begiratzen aritu ginen, taberna eta jangela ikusi, eta orduan ikusi ea hor ikastaro jakin batzuk sartzeko aprobetxatu zitekeen, hasiera batean GAP eta zumbakoak joaten dira, baina ondoren beste inor lekualdatu daiteke lekualdatu behar bada. Orduan lehendabizi zein baldintzatan ikusi behar zen... lehendabizi zabala ote zen horiek hartzeko, hasiera batean baietz ikusi zuten, sar zitekeela, eta ondoren baimenak ematearen kontu guztiarekin sartu behar izan ginen, instalazio elektrikorako baimenak eskatu... Azkenean izapidetu ziren dagoeneko, egingo den obra esleitu da, ez dakit zeren zain dauden hasteko, eta ipintzen dena da, azken batean, soilik hori erabili ahal izateko baimenez gain, hots, ez gainerako eraikina, soilik solairu horiek, eta erabilera jakin horretarako, ez beste inolako erabilera egiteko, hori erabiltzea, bi solairu horiek. Ez dakit hori ere aktibatzen den, orain ez dut gogoan, uste dut txostena igorri nizuela, igogailua aktibatzen ote den. Luminaria batzuk aldatu behar zituzten aprobetxatu eta luminariaren bat aldatzeko, eta egin behar dugun esku-hartzea baliozkoa ote den, bai, esan digutena da esku-hartze honekin biharko egunez, ziurren gainerako eraikina ere egin beharko dugunez, argia eta berogailua eman eta abar, eraberritu, hor egiten denarekin baliozkoa izango litzateke... hots, Dorrea baldintza onetan ipintzen hasten garenean alde hori estalita izango dugu eta ez dugu...

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: bai, tira, egokitzen horiek guztiek ez dutela baldintzatuko...

Alkatea: ez, ez. Ez du gero ondorengo baldintzatuko. Orduan, alderdi horretan bederen, aprobetxatu egingo dugu eta ondoren eraikinean egin beharko dugun eraberritzearen urrats txiki bat emango dugu. Orduan beno, hori izan da hasiera batean ideia, dena Dorrearekin zer gertatuko den edo zer egingo den erabakitzeko unearen baitan dago. Pentsatzen dut lehendabizi



erabiltzeko moduan ipini beharko dela ondoren eskaintza egiteko eskaintza egin behar zaionari edo eman behar zaion xederako. Baina noski, etortzen zen jendearekin pasa den legealdian zer gertatu den ikusita, inork ez zituen 100.000 euro ipini nahi kolpetik berogailua, argia edota irisgarritasuna ipintzeko. Orduan, bada, hasiera batean kontua da baliozkoa izango litzatekeela gerora egingo denerako.

- Alkatea: Arteako tabernaren kontua, badakizue konpondu egin zela. Diru-laguntza bat zegoen. Epeagatik, dena delakoagatik diru-laguntza hori hor geratu zen, galdu egin zen, epea igaro egin zelako. Aldunditik berriro esan zuten, beno, interesatzen bazitzaigun, apur bat zorabiatu egin gintuzten, izan ere, hasiera batean baietz esan ziguten, eta gero deitu eta ezetz esan zuten dena aurreratuta genuenean, baina beno, kontua da azkenean Arteako taberna eraberritu egin zela X baldintza batzuekin eta ideia izan zen festetan ipini ahal izatea, behintzat aldizka, baina jatorrizko ideia da udari begira, ez jaietan soilik, baizik eta udaldian, edo adierazten den moduan, taberna hori ateratzen saiatu eta funtzionatu ahal izatea, inor interesatuta baldin badago, udako hilabete horietan guztietan, eta irekita izan. Oraintxe bertan ematen ari zaion erabilera, eskatu egin baitigute, izan ere, han dugu konponduta baldintza egokitan eta argia prest, eta dena dago eta erabili gabe egongo da, Artziniegak musika-talde batek eskatu digu, Mugan taldeak, ea materiala han utz zezaketen, izan ere, joan egin behar zuten ez dakit ikastetxe bunterretik edo nondik, ikastetxeak ere bere espazioa behar zuelako, eta lekualdatu egin behar zen. Orduan beno, haiei bururatu zitzaenez han izan zitekeela begiratu egin genuen, ez tabernan bertan, baizik eta han zegoen biltegi moduko gelan, han sartzen zitzaien, han entseatu ere egin dezaketela ikusi dute, orduan zein lokalizazio den ikusita, trabarik ere ez baitu sortuko, izan ere, azken batean taldeen gainerako entseguak egiteko lokalak, hirigunean sartzen hasten baldin bagara arazoak izango ditugu ziur auzotarrekin, orduan ideia ahalik eta traba gutxien eragingo zuen alternatiba bat bilatzea zen, orduan Artean haiek lehendabizi bertan dagoen auzotarrari galdetzeko konpromisoa hartu dute, hurbilen dagoenari, ordutegiak errespetatzekoa eta Santutegian ospakizunak daudenean errespetatzekoa, ez entseatzeko, orduan entseatzeko bere egunak izango dituzte, arratsalde edo egokitze jotzen dutenean izango direnak. Eta herrian dagoen beste edozein musika-talderentzat ere irekia dago entseatzeko erabil dezaten, eta Udalak erabakitzen duenean, beranduago edo lehenago, berdin maiatzean, apirilean edo ekainean izan, taberna dena delakora erabiltzearen baitan, orduan lehenago abisatu beharko zaie...

Miren Izaskun Perez Barragan: orduan, erabilerako bikoitza, entseatzeko lokal modura eta taberna modura?

Alkatea: ez, ez. Ez, adibide bat ipintzearen, Udalak maiatzerako Arteako landako tabernaren lizitazioa ateratzen baldin badu irailera edo urrira arte. Une horretan, inork hartzen baldin badu, bada musika-taldeari, edo hara entseatzeko joaten den jendeari, beste lekuren bat bilatu beharko zaie horiei, edo beste leku bat bilatu beharko du bere trasteak utzi eta entseatzeko. Orduan prestatuta dagoen xederako izango da.

Miren Izaskun Perez Barragan: bai eta diru-laguntza ere horretarako zegoen, izan ere, uste dut diru-laguntza ere erabilera horretarako eman zigutela.

Alkatea: noski, jakina hori da, baina gertatzen dena da neguko hilabete hauetan azkenean dorrearekin edo beste lokal batzuekin bezala gertatzen zaigula, azkenean... Oso gutxi erabiltzen direla? bada aprobeitza ditzagun bitartean, une honetan lokal aldetik premia handi samarra dugu eta.

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: horixe esan behar nizun nik, batez ere azpimarratu gauza hauek ongi egin daitezela, aurrekaririk ez sortzeko, eta ondoren ez dadila etorri talde bat ez dakit zein eraikin edo lokal eskatuz eta arazoak egon daitezela.

Alkatea: ez, iristen diren eskaera guztiak ordea, ia mundu guztiak du lokala. Udal lokalik ez dago ezin delako, udal ikastaroek okupatuta dagoelako jadanik, edo fisikoki lokal horrekin ezin dutelako, bada badira beren kabuz moldatzen diren taldeak eta apaizarekin hitz egiten dute katekesiko lokala utz diezaien, azkenean han daude eta. Kontuan izan behar dugu, eta guk ere izan dugu mahai gainean baina azkenean Dorreko alternatiba bilatu genuenez ez ginen ezta horretan sartu, baina egiaz aukera hor dago, Kasinoan soberan dauden lokalak, hau da, Kasinoa hor dago, soberako zenbait lokal ditu eta jendeak erabil zitzakeen lasai asko edozein jarduera



burutzeko, ez dakit lekuarekin edo lokalekin apur bat bat letorkeena. Hau da, hor daude. Ez dakit zeren talde batek udal lokalik ez baldin badu eta eskatzen baldin badu hori, Kasinora, ez dakit Kasinoak ere uko egin diezaiokeen estatutuetan begiratzuz ere, izan ere, azken batean...

Miren Izaskun Perez Barragan: jabetza pribatu batez hitz egiten ari gara...

Alkatea: ez, baina estatutu berezi batzuk ditu, non, adibidez, jabeakideen erkidegoak baldin badaude lokala eskatzen dutenak bilkura bat egiteko eta utzi egiten diete lasai asko. Beste gauza bat da haiek esatea "ez musika-talde bat sartu behar zait ordea hemen lokala nahi baitute entseatzeko" orduan agian ezetz esango dute. Baina lokal horietan gauzak ere badaude. Udalak berak ere hitz egin zuen Kasinoko arduradunekin beste erabilera bat emateko baina ez dago inolako arazorik egunen batean haiekin geratzeko, hitz egin eta esateko, aizu, Udalaren aldetik tokiko taldeentzako prestutasunik baldin badago, kontu zehatz batekin lotuta, lokal horiek erabiltzeko, hitz egin dezagun. Izan ere, azkenean zuek Kasinoa asteburuan erabiltzen duzue, norbaitek aste barruan erabili nahi baldin badu, akordio bat adostu badaiteke. Azkenean lokal asko ditugu baina oso sakabanatuta, banatuta eta azkenean sarritan oso gutxi erabilia. Orduan Arteako gaiarekin...

Joseba Elejalde Ribacoba: galdera bat, Joseba, Arteako gaiarekin, kezkatu egiten nauena, eta kezkatu egiten nau zuk diozulako ez dakizula zergatik gertatu den, zu iritsi berria baitzara...

Alkatea: Zergatik gertatu den?

Joseba Elejalde Ribacoba: zergatik gertatu den diru-laguntza galdu izana. Ni horrek arduratu egiten nau. Ni kezkatu egiten nau iaz, zinegotzi batzuen lana edo zinegotzi guztien lana, hona etorri eta denbora ematen dugunona, eginahala, lana eta mozioak, idatziak aurkezten ditugu eta zoriona izan nuen diru-laguntza hori, lortu zitekeela eta kakotx artean lortu egin zena oso erraza zelako, nik ekarri nuen osoko honetan, orduan inondik ere onargarria iruditzen ez zaidana da zuk orain esatea ez dakizula zergatik gal daitekeen diru-laguntza hori.

Alkatea: ez, ez, ez da galtzen. Ez ahal izatea, baizik eta gu sartu ginenean diru-laguntza justifikatzeko epea ia iraungi egiten zela. Orduan nik galdetu nuen eta galdutzat ematen zela esan zidaten.

Joseba Elejalde Ribacoba: luzapen bat eskatu genuen.

Alkatea: zera egin genuen, epea igaro zen, Aldundiak deitu zuen eta esan zuen aizu, ez duzue egin... ez, nahi baduzue azkar aurkeztu baina bi egunetan esan behar diguzue. Orduan bi egunetan zer egin erabaki behar izan genuen, denbora emango zigun ala ez. Orduan esan genuen, tira, aurrera.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik esaten dizudana da diru-laguntza hori existitzen dela dakigunetik, Aldundiari planteatzen zaionetik izateko premia, edo Udalak x ezaugarriak dituen lokal bat duela, onartutako hitzarmen horren barnean erabil zitekeena non x lokal diruz laguntzen ziren, edo Udal batek ez zituen eta lehiaketara atera zitzakeen x zerbitzu. Arazoa da guk zinegotzi modura urratsak eman baditugu, uneren batean, gobernuko taldetik, eta ez naiz ari inor begiratzeko une honetan ez baitago, egin behar zuena egiteari utzi dio, izan ere, ez da normala zuk proiektua dagoeneko baldin badaukazu, diru-laguntza, arazoa izatea obra noiz egikarrituko duzun. Esaten ari gara guk aurkeztu egin behar genuela, eta hori da ulertu dudana, ez badidazu zuzentzen, Aldundiaren aurrean obrakoa zena azken batean diru-laguntza jasotzeko obrak zein kostu izan duen, eta luzapen bat eskatu behar izan dugu obra hori ez delako egikaritu diru-laguntzaren araudian bertan jadanik adierazten zen epean, orduan arazoa da norbaitek Udal honetan une jakin batean bere lana ez duela ongi egin, edo denborak ez ditu ongi kudeatu edo obraren nondik norakoa. Izan ere, ez dena normala da hiru obra izatea, zeinetan hainbat luzapen eskatu behar izan ditugun diru-laguntzarik gabe ez geratzeko. Eta nik ulertzen dut lan asko dela eta udal asko egon daitezkeela antzeko egoeran, baina horrek ez dit balio, azkenean gauzak ongi egin behar baitira. Eta sarritan agian abuztuan pleguak ateratzen dituzten beste administrazio batzuen baitan gaudela eta ondoren abuztuan administrazio horretan ez dagoela inor? Bada bai, bada horren aurka egin beharko dugu, baina egia da niri oso larria iruditzen zaidala Arteako tabernaren gaiarekiko galdu behar izatea edo epe handiagoa eskatu behar izatea gutxi gorabehera guztia antolatuta zegoenean eta gutxi gorabehera dena finkatuta zegoenean.

Alkatea: nik, ez dut azalduko gu udal gobernuaren buruan jarri aurretik egin zena, ordutik aurrera egin duguna azal dezaket eta obra dagoeneko eginda dagoela. Pentsatzen dut hemen



egongo dela zer-nola izapidetu zen azaltzen duen espedientea edo erantzunik egon ote den edo zein arrazoiengatik ez zen epea bete, baina, inondik ere, nik ez dakizkit eta ez dizkizut azalduko.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez, nik esan dut pertsona hori ez dagoela hemen, baina kezkarria da gaur egoera honetan egon behar izatea.

Miren Izaskun Perez Barragan: Zabarkeriaz salatzen ari al zara aurreko Alkatea?

Joseba Elejalde Ribacoba: ez, ni ez naiz ari inolako salaketa egiten. Ni esaten ari naiz norbaiti une jakin batean, edo ez duela izapidetu edo ez dakit zer gertatu den. Nik esaten dudana da gaur egun 15.000 euro inguruko diru-laguntza bat gal badezakegu paperak garaiz eta moduz ez izapidetzeagatik, edo obraren lizitazioa lehenago ez ateratzeagatik, edo emateagatik, ezin zen zuzenean eman 15.000 euro baino gehiago direlako, ezin zen Ascen? kontratu txiki bat da, 18.000 euroekin zuzenean eman ahal zenion udalerrri honetako enpresari bati edo beste edozeini. Esan nahi dizudana da diru-laguntza bat galduko dugula eta orain nire errua izango da. Oso bitxia da.

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: Joseba, erantzuna zein den jakin nahi baduzu agian hobeto da pertsona horrekin hitz egiten baduzu. Hemen inork ez baitizugu erantzungo.

Joseba Elejalde Ribacoba: noski, baina ez dut izango horrek izan ditzakeen erantzukizun politikoak eskatzeko aukera. Izan ere, hemen balego gaur erantzukizunen bat eskatuko nuke. Agian emango dit, aizu arazo hau izan dugu, arazo hau eta beste arazo hau, eta nik onartu egin dezaket, baina ezin daitekeena da urte honetarako udalerrri honetarako hiru obretan luzapena eskatu behar izana egikaritzeko, garaiz eta forman iristen ez garelako.

Alkatea: bost Bitan eman berri digute.

Joseba Elejalde Ribacoba: bada bost. Esan nahi dudana da arazoa ez dela gaur hemen gaudenona, arazoa lehendik zetorren eta hori da esan dudana, norena da erantzukizuna? Hau duela lau urteko, edo hiru urteko, kontratazioarena bezalaxe da, Udalhitz plana. Bada, berdinetan gaude. Bada berdinetan gaude. Herritarra. Eta une honetan, nork ordainduko du trakeskeria? Herritarrak, izan ere, diru-laguntza bat jasotzetik ez jasotzera, osorik beregain hartu beharko du...

Miren Izaskun Perez Barragan: bai, jaso da.

Joseba Elejalde Ribacoba: beno, baina esan nahi dizut ez jasotzeko aukera hor dagoela. Diru-laguntza hori onartuta zegoen. Arazoa gurea da Udal modura. Ez da Aldundiarena. Aldundiari paperak garaiz eta forman aurkeztu beharko dizkiozu eskatzen dizkizunean. Beste kontu bat da zuk esatea plegu horiek abuztuan atera dituztla eta Aldundian ez zegoela inor, noizbait gertatu baita, ados, bai. Baina arazoa da hau ez dela abuztukoa.

Alkatea: eta gertatzen da.

Miren Izaskun Perez Barragan: eta gertatzen da.

Joseba Elejalde Ribacoba: igerilekuen kontua ez da abuztukoa. Baina hau ez da abuztukoa, abuztua baino askoz ere lehenagokoa da. Beraz, garaiz eta forman egikaritu ez baldin bada Udalaren arazo bat izan da. Ez orain leporatu arazo horiek ez dakit, Aldundiari edo gureak ez diren besteren arazoei. Garaiz eta forman ez egikaritu izanaren arazoa Udalarena da zehatz-mehatz. Nork du errua? Beregain hartu behar duenak hartu beharko du beregain.

Miren Izaskun Perez Barragan: niri, ez ezazu gaizki hartu, baina uste dut oso larria dela esaten ari zarena, izan ere, iradokitzen ari zara aurreko Alkateak bere legealdian zehar gauzak ezin okerrago egin dituela, ez duela lanik egin, diru-laguntzarik ez zuela aurkezten...

Joseba Elejalde Ribacoba: nik ez dut halakorik esan. Nik esan dut kasu honetan...

Miren Izaskun Perez Barragan: iradokitzen ari zara.

Joseba Elejalde Ribacoba: ... kasu honetan, larria dela, azkenean Artziniegako Udala diru-laguntza hori gabe gera zitekeen.

Miren Izaskun Perez Barragan: baina ez da geratu ordea.

Joseba Elejalde Ribacoba: zuk nire hitzak testuingurutik at atera nahi badituzu, etxeak.

Miren Izaskun Perez Barragan: ez, ez ditut testuingurutik ateratzen.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez dagoela arazorik. Noski esango dizudala kudeaketa txar bat egon dela. Eta bestela Izaskun, zuri ez bazaizu hori kudeaketa txarra iruditzen, orduan arazo bat duzu. Nik nire enpresan, edo Josemik bere enpresak akats bat egiten baldin badu...

Miren Izaskun Perez Barragan: nik administraziorako egiten dut lan, eta halaxe da nire lana ez dago soilik nire esku, beste gauza batzuen...



Joseba Elejalde Ribacoba: nik nire enpresan akats bat egiten baldin badut azkenean arduraduna ni naiz. Nik mahai gainean aurrekontu bat baldin badut eta ez badiot bezeroari bidaltzen gaurko 13:00ak baino lehenago hala eskatu didalako, eta 14:00etan bidaltzen badiot bada ziurrenik obrarik gabe geratuko nintzen. Norena da arazoa? Arazoa nirea izango da. Kasu honetan, Udal batez hitz egiten ari gara, udalerrri batez, eta eskumena duena Alkatea da. Eta Alkateak bere garaian, dena delakoagatik, kontu tekniko bat, edozer izan liteke, planoak ez dizkiotela bidali, proiektua ez diotela igorri, edozer, nik onar dezaket. Baina kasu honetan ez zen hori, horregatik esaten ari natzaizu, niri, kasu honetan, guztia ongi antolatuta zegoen, proiektu bat zegoen, dena zegoen jadanik... diru-laguntza galtzen bada da norbaitek ez dituelako behar bezala egin kudeaketak obra hori diru-laguntzan bertan adierazten ziren epetan ez egiteko, eta ez dago besterik. Eta ondoren zuk nahi baduzu atera ni esaten ari naizela Alkateak azken lau urteak gaizki kudeatu zituela, ni ez naiz esaten ari lñigok gaizki kudeatu zuenik, eta esan dut kasu honetan lñigok, edo dena delakoak, teknikariak, ez direla inguruabarrak bete obra hori diru-laguntzan adierazten zen denbora eta forman egikari zedin. Eta kito, ez dago besterik. Eta erruduna ez naiz ni. Argi dago.

Miren Izaskun Perez Barragan: inork ez zaitu salatu.

Joseba Elejalde Ribacoba: erruduna ez naiz, izan ere, begira, gobernuko taldean ez naiz sekula egon, baina erruduna argi dago ez naizela ni, eta dena delakoagatik, eta ustekabeko ona ala txarra izan da oraintxe sartu direnak dira, eta konturatu dira hainbat gauza kolokan zeudela. Beno, bada, kito. Baina lehengora itzultzen gara, nor da ardura duena? Udalhitzekoarekin ere ni izango naiz erruduna. Alkate zegoenak entzungor egin zionez Idazkari Kontu-hartzailearen txosten teknikoari, eta pasillo horretara irten eta beste talde bateko bozeramaile den beste pertsona batekin adostasun batera iritsi zenez, bada kito. Hemen osoko bilkura batean ongi onartutako gauza bat onartu zen, baina tira, atzerantz bota digute, hori ere noren errua da. Hau gauza bera da, norbaitek zerbait gaizki egikaritu du.

Alkatea: beno, uste dut nahiko argi geratu direla azaldutako iritziak, eta horrela azkar aurreratuko dugu.

- Alkatea: urtegiko bidea. EAJ taldetik autoen gaiarekin kexak zeudela esan zitzaigun...

Miren Izaskun Perez Barragan: bai, ibilgailuen joan-etorriagatik.

Alkatea: ibilgailuen joan-etorria, egia esan erabiltzen zen adjektibo super kalifikatzailea, nik esan nuen ez nuela pentsatzen hori horrela zenik, eta noski, zuk horretan justifikatzen baldin baduzu egiten duzun proposamena eta hori ez bada egiazkoa, bada orduan proposamena ere...

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: adierazi objektiboki.

Alkatea: tira, ni handik igarotzen naiz, eta ibilgailuen joan-etorriarako hitz egiteko erabiltzen zen adjektiboa, eskua sutan ipin dezaket hori horrela ez dela esanez. Are gehiago...

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: eta nik baietz.

Alkatea: ados, baina aipatu zidan pertsonak, aitortu zidan garrantzitsuena ez zela adjektiboa. Tira, hori da zure eskaera sostengatzen duen adjektiboa, baina tira, betiereko eztabaidan egon gaitzke horri dagokionez. Kontua da urtegiaren 20ko abiadura-muga adierazteko kartela ipinita dagoela, badirudi EAJ taldeari ez zitzaizela gustatu, edo ulertarazten zuen EAJ taldearen proposamen bat zenez bulegoko bigarren edo hirugarren tiraderan uzten zela eta beste kontu batzuk lehenesten zirela...

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: ez, barkatu, gustatu ez zena, sentsazioa zen ez genuela zuretzat ordezkatzen, ez dugu inor ordezkatzen.

Alkatea: ez, ez zen hori, sentsazioa da guk eskatu dugula eta azken lerroa goazela. Eta, besterik gabe, Alkateari galdetu izan balitzaio, bada esango zukeen, begira, beste bi seinale ipini ditugu beste bide batzuetan EAJ eskatuta alde aurretik eskatuak. Urtegiak erosi ahal izateko seinalea erosi behar izan dugu, eta ahal denean ipini da.

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: eta bide batean non, zuk pertsonalki, zuk aipatu zenuena bide horretatik ibilgailuak sartzen zirelako, Soxogutiko bidea bezala.

Alkatea: Bideak sartzen zirelako?

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: bide horretatik ibilgailuak sartzen zirelako.

Alkatea: dauden partzeletara doaz. Horregatik ipini dugu muga.



Jose Miguel Vadillo Ribacoba: baina zuk hori publikoki salatu zenuen...

Alkatea: ez, ez, han lurra dituen pertsona baten salaketa iritsi zitzaidan niri, eta esan zidana hori da.

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: orduan, jaramon egiten baldin baduzu, zureak balio du eta besteenak ez dute balio ildo horretatik.

Alkatea: ez da jaramon egitearen kontua, nik esan nahi dut, EAJ taldeak egiten duen proposamen berdinean, esate baldi badu, ibilgailuen zirkulazio bat dago eta arriskutsua da auzotarrentzat eta kartel bat ipini behar da, edo dena delakoa, ez doa gehiagora. Tira, ezin daitekeena izan da justifikazioan dirudiela hark Txorierriko korridorea ematen duela eta hori ez da egia.

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: une jakin batzuetan bazirudien bai.

Alkatea: agian kasu puntual batean izango zen, baina ea, guztiok igarotzen gara handik. Eta handik igarotzen ikusten ditugun autoak zenbatu ditzakegu. Horretatik harago, berri diot, EAJ taldeak aurkeztea, Pernando Amezketarrek aurkeztea, ez du zerikusirik. Jardun behar denean jardungo da. Ez dago lehentasunik hark edo honek eskatzen dizulako. Are gehiago, Soxogutikoa eskatu zidaten, Eskartzakoa ere helarazi zidaten, eta esan zidatenez hiru urte zeramatzatzen letreroa eskatzen eta inork ez zien jaramonik egin, hori dute letreroa, zuek helarazi zenuen eta letreroa ipinita dago. Eta zera adieraztera datorrena, bada ahal denean ipiniko da...

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: Zein letrero?

Alkatea: 20 kilometro ordukoa.

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: Non?

Alkatea: urtegiaren sarreran. Urtegiaren sarreran ipini da dagoeneko, apur bat beherago 20 kilometro orduko letreroa dago ipinita, abiadura-mugari dagokiona. Soxogutin ipini den bezala eta Eskartzako auzoan ipini den bezala. Ipinita daude.

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: Zein da erantzulea baldin eta...?

Alkatea: gidaria. Udala al da erantzulea 50 kilometro orduko abiaduran doalako?

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: ez dakit, galdetu egin dut.

Alkatea: joe, galdera iruditzen zait ordea... zentzugabekoa da.

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: edozer gauza iruditu ahal zaizu, baina argi dago bertatik ibilgailuak igarotzen direla eta ez doaz 20 kilometro orduko abiaduran, Joseba, hori horrela da.

Alkatea: Nor da arduraduna errepide honetatik 100 kilometro orduko abiaduran doazelako 50 kilometro ordukoan joan beharrean?

Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin: ea Josemi, ikastetxean ere ez dira igarotzen 20 kilometro orduko abiaduran, eta ikastetxe bat da.

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: errepidea ez da bidea. Bidearen erantzukizuna Udalarena da, ez da Aldundiarena

Alkatea: Eta Aldundia al da erantzulea norbait harrapatzen badute errepide horretan norbait 100 kilometro ordura doanean? Urtegiko bidean edo Mendietako bidean norbaitek inor harrapatu eta errua Alkatearena izatea baino ez da falta autoa 200 kilometro orduko abiaduran zihoalako. Orduan, kito dena.

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: baina neurriak hartzen ez badira.

Alkatea: Neurriak? Ipini dira, guri iruditu zaizkigunak. Bai, erantzun genizuen ordea neurri horiek zirela uste genuela. Arazoa handi daitekeela, ez dakit zer, eta beste batzuk har daitezkeela, baina hauek dira orain guk hartzen ditugunak.

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: ados, oso ongi. Istripu bat gertatzen bada, nork egingo...?

Alkatea: Istripu bat gertatzen bada norbait 20 kilometro ordutik gora doalako?

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: bai.

Alkatea: espero dut egun horretan EAJ udal taldea ez zaretela etorriko esanez erantzukizuna Alkatearena dela. Zeren eta bestela argiak itzali eta diskoak ipintzera dedikatuko gara. Ez nazazu izorra.

Miren Izaskun Perez Barragan: Ez gaitzela etorri?

Alkatea: tira, etortzen bazarete mitoa guztiz eroriko zait jadanik.

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: ea Joseba ez zaitugu, Nola joango litzateke legezko kontua bidean istripuren bat izanez gero?



Joseba Elejalde Ribacoba: ea, gauza bat argi dago. Nik ulertzen dudanez. Hirigunean seinale pila bat ditugu eta ondoren Ertzaintza dugu, eta hari etorri eta isunak jartzeko eskumena eman diogu, guk ez baitugu hori egiteko udaltzaingorik. Horregatik pentsatzen dut hori udal bidea denez, eta udal eskumenekoa denez, orduan, zuk Ertzaintzari esaten badiozu hortik egunero autoak 50 kilometro orduko abiadura igarotzen direla, bada horretan jarri eta isunak ipiniko dituzte. Eta isuna arau-haustea bete duenari iritsiko zaio, hirigunean gertatzen den moduan, edo inork errespetatzen ez duen seinale bat dugun lekuan. Halaxe da. Guk Ertzaintzari hirigunera etorri eta nork aparkatzen duen ongi, nork gaizki, zer egiten duten eta zer egiten ez duten ikusteko eta isunak ipintzeko eskumena eman diogun moduan, bada eskumen bera esan aizu begira, arazo bat dugu bide batean, autoak 20 kilometro orduko abiadura baimendutik gora igarotzen dira, joan egunen batean hara. Joango dira, dagozkion 5 isunak ipiniko dituzte, eta akabo arazoa, eta Udalak arazoa ongi kudeatuta izango du. Hori bai, Josebari esan ahal zaio "Joseba, urtegiko bidean arazo bat dugu, hitz egin Ertzaintzarekin egunen batean joan daitezene". Hori bai, hori esan ahal zaie, baina horrela esan, baina ez esan "arazo bat duzula", arazoa ez du gobernuko taldeak. Beste zerbait da zuk esaten duzuna...

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: nik ez diot esan arazo bat duela.

Joseba Elejalde Ribacoba: ... beste kontu bat da zuk esatea "Joseba, arazo bat dago, seinale batengatik" eta ipintzea. Eta orain esatea, ", Joseba esan Ertzaintzari han oraindik 50 kilometro orduko abiaduratik gora igarotzen dela eta ez dutela 20 kilometro orduko seinalea errespetatzen" Eta hortik aurrera Josebak, bere erantzukizunpean, Ertzaintzara deitu eta esan beharko die "aizu, arazo bat dut auzo bide batekin, nola konpon dezaket". Arazoa da zuk esan diozula arazo hori hor dagoela eta Josebak dagokion eskuduntzari helarazi beharko dio, nik hala ulertzen dut.

Miren Izaskun Perez Barragan: ez, ez. Josebak erabaki du 20 kilometro orduko abiadurako seinale batekin nahikoa dela, eta kito. Guk ezetz uste dugu. Gerta daitekeen hurrengo gauza baina tira...

Alkatea: bada hori, zerbait gertatzen baldin bada istripu hori eragin duenaren errua izango da.

Miren Izaskun Perez Barragan: bai, bai, ez gara esaten ari zuk duzunik errua, ezta zu joan behar zarenik anbulantziarekin inoren bi.a

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: inork ez dizu errua bota ordea.

Alkatea: ez, izan zitekeen hurrengoa.

Miren Izaskun Perez Barragan: baina ez da, eta ez zaitez jarri...

Alkatea: izan zitekeen, hemen hiru hilabete eserita nagoela diktadore deitzen banauzue, bada ondoren edozer gauza deitzea izan liteke hurrengoa.

Miren Izaskun Perez Barragan: Nork deitu zaitu diktadore?

Alkatea: EAJ taldeko bozeramaileak.

Miren Izaskun Perez Barragan: Noiz deitu zaitu diktadore?

Alkatea: nahi baduzu, irakurri egingo dizut.

Miren Izaskun Perez Barragan: Diktadore esan dizu?

Alkatea: tira, Udal hau diktadura bilakatu bada, pentsatzen dut ni izango naizela Txaplina.

Miren Izaskun Perez Barragan: orain Txaplin diktadore da.

Alkatea: ezta? Hau diktadura bat baldin bada diktadore bat egongo da, eta ni izango naiz hori. Orduan, lehen esan duzunak grazia egin didala ikusita, "ez zara aurreko Alkatea zabarra deitzen arituko", esaten dut bada niri diktadore deitu badidazue. Eta kexu zarete zabarra dela esan ahal dutelako?

Miren Izaskun Perez Barragan: horrenbeste gauza esan dizkiozu Iñigori.

Alkatea: bada etor dadila Iñigo hurrengo osoko bilkurara, esan etortzeko...

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: nik ez diot ezer esan beharrik.

Alkatea: hitz egin dezagun garbi, esan iezaiozue hurrengo osoko bilkurara etor dadila hona, hemen eser dadila, eta esan diezagula guztioi eta esan diezadala niri zer leporatu diogun, zein gauza esan dizkiogun lau urte hauetan zehar, EAJ taldetik larrutu gintzaten. Ez esan jazarle batzuk izan garela, mehatxatu egin dugula, ez zinegotziei soilik, zu bertan izan zara, ez dut uste inolako kexarik duzunik, hemengo zinegotzi guztiei, EAJ taldeko militanteei, EAJ taldeko kideei, baina zertan ari zarete? Behin egin zeniguten, berriro egin diguzue, hirugarrenean ez, ez duzue berriro egingo, hona ez zatozte inor leporatuz egin ez duten gauzengatik. Beraz azti.



Miren Izaskun Perez Barragan: Mehatxatzen ari zatzaitkit?

Alkatea: ez, ez, nik azti esaten dut.

Miren Izaskun Perez Barragan: horrela ikusten zaitut eta...

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: Hori mehatxu bat da?

Alkatea: ez, ez, ez da inolako mehatxua, azti da.

Miren Izaskun Perez Barragan: uste dut osoko bilkura hasi dugula, hilabeteak daramatzagu, baina ez dakit zertara datorren esaten ari zaren hau, ezta moduak ere.

Alkatea: bada tira, esaten duzenaren ondorioz da. Ikusten dut nondik zatozten, azkenean haurra txirinduarekin eroriko da han eta Alkatea izango da erruduna 20 kilometro orduko seinale bat ipini duelako. Dagoeneko elkar ezagutzen ari gara eta hiru hilabete baino ez daramatzagu.

Miren Izaskun Perez Barragan: ez, ez, uste dut ezetz.

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: uste dut ni ez nauzula ezer ezagutzen. Ikusten denez, ez nauzu ezagutzen, inolaz ere.

Alkatea: argi daukadana da gu ez gaituzuela ezagutzen.

Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin: ez dugu zertan elkar ezagutu.

Miren Izaskun Perez Barragan: baina Zuriñe, ezin dena da Josebak suposa dezala gertatuko diren gauzak, edo esango diren...

Alkatea: ez, nik ez du ezer suposatzen.

Miren Izaskun Perez Barragan: bai, bai, ustezkoak, zer esango dugun, zer egingo dugun.

Alkatea: nik idatzita dagoenari heltzen diot, besterik gabe.

Miren Izaskun Perez Barragan: bai eta aktei ere bai, eta osoko bilkurei, guztiari.

Alkatea: idatzita dagoenari heltzen diot.

Miren Izaskun Perez Barragan: bai, horregatik.

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: eta uste dut mehatxuak soberan daudela.

Alkatea: mehatxuak izango dira existitzen ez direnak.

Miren Izaskun Perez Barragan: oraintxe egin duzuna uste dut soberan dagoela.

Alkatea: Mehatxu bat izan da, edo zer?

- Alkatea: beno, azokaren eta festaren kontua aipatuko dizuet apur bat. Azokarena Unaiak esango dizue, nik bizkor festen gaia eta amaitu egingo dut. Joan den astean Udalak deituta festen balantzea egiteko bilkura bat izan zen. Uste dut joan azken urteetan egin ez zen zerbait zela, festen balantze bat egin zer-nola joan ziren ikusteko eta bakoitzak bere proposamen, ideia eta iradokizunak egin zituzala. Egia da jende asko ez zela bertaratu baina eztabaida aberatsa izan zen eta hurrengoetarako proposamen eta aipamenak egin ziren. Guk, nik bederen, Alkate modura, festetako programaren gaineko balioespenak harago, zer-nola joan ziren eta hori, bakoitzak bere iritzia ere izango baitu, uste dut eskertu egiten genuela baino ez genuela esan, eta nik pertsonalki asko eskertu nien batzordearen gaia beregain hartu zuten bi pertsonen, Angela eta Edgarri, eta ondoren elkarri zorionak eman genizkion hartutako erabaki batzuegatik, esate baterako, dantzaldietan eta musika-emanaldietan kutsu sexista zuten abestiak kentzea, lehenestea edo saiatzea festen barnean egiten ziren erosketa guztiak herri barruan egin zitezela, eta ez herritik kanpo, hori ere ideia ona baitzen lantzen jarraitu eta horretan sakontzeko, eta ondoren Artziniegako emakumeen aldetik, eta txosnaren aldetik ere hartu zuten protokoloagatik eskerrak ematea, lehendabiziko asteburuan hartu zen jadanik, ostiraletik bertatik, izan ziren bi gertakirekin, gertatu ziren bi eraso sexistaren harira, emakumeak mobilizatu egin ziren, Udalak bere betekizuna bete zuen dagoeneko berdintasun teknikariarekin harremanetan zer egin behar genuen eta nola jardun behar genuen jakiteko, baina berezko erantzun bat egotea emakumeen aldetik elkartu eta zenbait erabaki hartuz, eta hortik, oker ez banago, bilkura baterako ernamun modukoa izan da, topaketa edo bihar arratsaldean hemen pilotalekuan egingo dutena halako gaien inguruan eztabaidatzen jarraitzeko, bada tira, elkar zoriondu genuela horregatik guztiagatik. Ondoren, festak zer-nola garatu ziren, jende gutxiago edo jende gehiago, kontzertuak hobeak ala okerragoak izan ziren, bada tira, hemen baloratu zen eta egia esatera datorren urterako edo hurrengo urteetarako baliagarri izango diren iritzia atera ziren. Eta azokaren gaiarekin, Unai izan da azokaren gaia ia osorik koordinatu eta kudeatzeaz arduratu dena.



Unai Gotxi Kastrexana: ez, ni, azokaren antolaketa beregain hartu zuen pertsona gisa ez dut ezer esateko, beste urte batzuetarako egin nituen lau ohartxotik garago, ahal bada. Nire ustez, hobe da herriko jendeak, eta batez ere azokan parte hartzen aritu den jendeak, eta egin duenak edo aritu denak egin dezala, egin dezala balioespen hori, azken batean haiek baitute esperientzia gehiago azokaren ibilbide guztian eta haiek dira ondoen ezagutzen dutenak. Azken batean nire lehendabiziko urtea izan baita azokaren antolatzaile modura, eta kontu jakina da, lehendabiziko urteetan guztia berria da zuretzat. Orduan egingo duguna da azken erdi aroko azokaren inguruko balioespena, baina baita kontuan izanik erdi aroko azoka hartzen ari den kutsua, eta baita erabaki kutsu hori norantz joan behar den, parte hartu duen jende guztiarekin, eta baita parte hartzeari utzi dionarekin.

Miren Izaskun Perez Barragan: orduan deialdi gehiago egongo dira. Erdi aroko azoka izango da 2020an, 2021ean...

Unai Gotxi Kastrexana: deialdi gehiago egongo dira.

Alkatea: bai prozesu bat hasiko dugu, ez bilkura ireki bat egitekoa, festetan bezala, eta esan goaz hemen azokaz hitz egitera, jainkotiarraz eta gizatiarraz, badakigu zer-nola amaituko den bilkura hori eta, kilker festa izaten da azkenean inora ez doana, baizik hobeto urratsak ematen joan, azokan presentzia duen edo izan duen jendearekin harremanetan ipiniz, edo inplikatura dagoena edo egon dena, ikuspuntu horiek guztiak jasotzen joateko norantz jo ikusteko. Zer egin den, bai, nondik gatozen 20 edo 21 urte hauetan, baina norantz uste dute joan behar duela azokak. Ziurrenera hori guztiori bateratzea eta oinarri bat izan lan egin ahal izateko eta esateko, beno, haiek dira jaso ditugun ekarpenak, beste inork beste ekarpenik egin nahiko balu, aurrerantzean eseri egingo gara jadanik, eta dagokion foroan ikusiko dugu norantz joan behar duen azokak. Ez balantzea egiteko bilkura ireki bat, jainkotiarraz eta gizatiarraz hitz egitekoa, eta beti bezala ezerezean amaitzen dena, baizik eta sukaldeko lan pixka bat egitea ondoren aintzatesteko zerbait eduki ahal izateko. Nik hasiera batean horiek dira zeuden gai guztiak...

Miren Izaskun Perez Barragan: bai, bai, nik uste dut baietz.

Eta jorratzeko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen saioa, lehenago aipatu egunaren hamabiak eta berrogeita bost minututan. Eta guztiorren gainean, fede ematen dut.